

J.B. BILBAO 'BATXI'

HAU MUNDU ARRANO HAU



J.B. BILBAO “BATXI”

Hau mundu arrano hau

edizioa:

Iñigo Aranbarri

Koldo Izagirre



Liburu honen salneurria: 3 € + BEZ.

Ordainketa egiteko, edo liburu gehiago eskuratzeko:

<http://susa-literatura.eus/ebook>

© 1997 Batxi

© edizio honena: Susa

Lehen edizioa paperean: 1997ko urria

Edizio hau: 2018ko urria

Susa: 317 posta kutxa / 20800 Zarautz

Adoain Aita 92 / 31015 Iruñea

Zubitalde 21 / 48195 Larrabetzu

Telefona: 943 83 26 55

Elektroposta: susalit@armiarma.eus

Webgunea: <http://susa-literatura.eus>

Gure esker ona:

Lazkaoko liburuzaina den Juan Jose Agirreri,
gurekin hartu zuen pazientziagatik
eta eman zizkigun erraztasunengatik.

Juan Luis Susaeta
Gernikako Batzokiko lehendakariari,
bere abegikortasunagatik.

Vicente del Palacio historia irakaslari,
Batxiren nortasunaren arrastoan jarri gintuelako.

Miren Izarra Bilbaori,
aititaren berri eman zigulako.

HITZAURREA

IDAZLE EZEZAGUNA

Nor ote da hildakoan Kepa Enbeitak lantua jotzen
dion hau?

Nor ote da euskal literaturaren historiaz egin diren
liburu guztietan aipurik ere merezi ez duen idazle
hau?

Nor ote da bera ez dagoelako euskal idazleen lehen batzarra atzeratu egiten duten hau?

Nor ote da Kirikiñok «idazle errimeak» esaten dion hau?

Nor ote da libururik gabeko idazle hau?

Nor ote da Batxi?

Bayo itsasontziak, Bayo, Lezama y Compañía etxekoak, Bordeletik Bilbora zetorrela, Palice-tik 40 miliatara, mina bat jo zuen 1916ko urtarrilaren 16an. Bertan galdu zen Batxi. Marinel bakarra salbatu zen, pilotua. Josu Azkune Markaida algortarrak 27 urte zituen eta pilotari ezaguna zen, *Algorteño*:

«Azkunek dinoenez, ontzia aida batean urperatu zen oso apurtuta, barruan egozanei ezertariko astirik emon barik, eta berori urten zen ur azalera zori ikaragarritz» emanen die berria Kirikiñok Euzkadi egunkari-ko irakurleei.

Batxi bere gelan harrapatu bide zuen, kamainatik jagita, irakurtzen edo idazten. Hala egoten omen ohi zen egunero, goizeko seietatik bederatziak aldera arte, argitzen die Azkunek kazetariei.

Nor ote zen bere familiariaren alde Euzkadi egunkariak dirubilketa berezi bat antolatu zion hura?

Nor ote zen bere heriotzean eginiko oroigarrian «euskeldun zintzo eta hizlari sutsua» esaten zitzaion hura?

Nor ote zen hain kronika ederrak idazten zituen gazte hura?

Juan Bautista (Batxi bere kroniketan, Jon Ugutz aipamen aberkoietan) Bilbao Elgezabal Gernikan bizi zen, bertako batzokiko bazkide zen, eta noizean behin Erandio Behera ere hurbiltzen zen. Hau bere idazkietarik atera ahal izan genuen. Euzkadi egunkariak eskaini zizkion eskelatik eta oroigarritzko artikuluetarik jakin ahal izan genuen 28 urte zituela hil zenean, eta hiru alabaren aita zela.

Gernikarra zelakoan, Derioko apaiztegi izandakora jo genuen, Bizkaiko artxibategian miatzeko. Baina bertan gerraondoko datuak baino biltzen ez direla jakin genuen. Gernikan berriz... Gernika erraustua izan zen. Gernikan ez dago historia egiterik. Familiak ordea oso hari mehea eta nahasia eskaintzen zigun: Bilbao abizena zuten hiru emakumezko! Senideak berriz, arreba bat bazuela bagenekien, amarekin Barakaldotik joan

zelako Abandoko San Vicente elizan egin ziren hileta-elizkizunetara. Bigarren abizena Bilbao zuten gernikar guztiei dei bat egitea ere sortu zitzaigun...

Vicente del Palaciok, historialari on gisa, barre egin zuen gure metodologiaz. Alde batetik ez gene-kien Gernika erraustua bai baina ez hainbeste, izan zela: faxistak sartu zirenean, ia alderdi politiko guztien bazkide zerrendak aurkitu zituzten egoitzetan, gaur egun kontsultagarri direnak. Bestetik, Batxiren aita ager zitekeen lehen hauteskunde zerrendetan, hautesle. Gernikako epaitegira jo genuen.

- Egunon, begira... Bilbao baten bila gabiltza...
- Izena?
- Ez dakigu... egia esan bere semearen arrastoa-ren atzetik gabiltza...
- Zer izena zuen semeak?
- Juan Bautista, marinel bat, ito egin zen 1916an...
- Nire aitita! -esaten digu barrez Miren Izarra Bilbaok, Gernikako epaitegiara Bilbotik etorri berri.

Juan Bautista Bilbao Elgezabal 1887an jaio zen, irailaren zazpiko ilunabarreko zortzietan. Aita, Saturnino, kaxakoa zen, hogeita hiru urtekoa orduan, eta Arratzuko erremintaria. Gure idazlea, beraz, ez zen

gernikarra, Arratzuko erremintarianekoa baizik. Ama, Ana Josefa, Lumokoa zuen. Egia esan, Batxik berak ematen digu honen berri Herri Sekulakue! izeneko ipuinean, Arratzun Goro-Etxabarri deritzon etxea aipatzen duela, «nire aitaren sutegia». Baina Batxiren teknikaren ezaugarri hau, fikzioari datu biografikoak txertatzea, gerora ikasiko genuen.

Ez dakigu gauza handirik idazlearen haurtzaroaz. Irakurtzale amorratua izan arren, ez bide zuen itsas ikasketarik egin: maiordomo *-hornikari* idatziko du berak beti- ibili izan zen ontzietan. Bere azken kroniketak batean «hamazazpi urte daroadaz ur gainean» aitortzen dio Kirikiñori. Gazterik hasi zen beraz txo bezala, hamaika urteko zela edo. Hemezortzi urte zituela izan zen guraso aurrenekoz. Jesusa Zabala Bilbao zuen emazte, mendatarra. Goiztua, azkarra, urduria, Sabino Aranaren zirkuluko zen Gernikan. Maisuaren gutunak ere ba omen ziren Batxiren etxean, gerran galdu zirenak. Aranak denboraldiak egiten zituen bertan, eta haren tertuliako izanen zen noski, hamalau-hamabost bat urte zituela.

Hain pozik heldu nintzan
Bilboko ibaira

Baina joan e'in behar
Urezko zelaira.
Ugazabak bidaldu
Gaitu Cardiff-era
Zama hartuta joateko
Amerika aldera

Itsasaldi luzeak egin zituen merkanteetan, Sota konpainiako Arraiz-en ibilia zen Bayo-n aritu aurretik. Euskal Herria jo gabe eman zuen 1915 osoa ia. Lehen Mundu gerra zen, eta Bilboko nabierek mozkin gaitzak ateratzen zituzten neutraltasun plantan batarekin eta bestearekin trafikatzuz, Ingalaterrarekin bereziki. Ingalaterrak, kontuan har dezagun, beligerantea zen. Fleten prezioak oso gora egin zuen, arriskua estakuru. Cardiff-era eginiko itsasketa bakarrean amortizatzen zen ontzia 1915-16 urteetan. Bat-ek, Uriarte-k, Vascongada-k, Bilbaina-k, Nervion-ek, Sota-k, Aznar-ek... irabazi itzelak izanen dituzte. Printzipioekiko eta pertsonenganako urrikirik gabeko merkataritza honen ondorioz Bizkaiko itsasetxeen 59 ontzi galdu ziren, 100 marineletik gora ito. Baina arriskuak merezi zuen. Burdinaren esportazioak behea jo zuenean bertan lehertu zen Mundu Gerra, irabazi errazen Bilbao anglofiloa sortze-

ko. Sota y Aznar konpainiak %6ko mozkinak zeuzkan 1910ean; %112koa 1916an. Ramon de la Sotak «Knight Commander of the British Empire» titulua hartu zuen, Britania Handiko gobernuak emana. Bizkaiko nabieren inperioaren biktima izan zen gure idazlea, halakoren kontzientziarik ez zeukan arren: 1914an bidaia egin zituen Inglaterrara; 1915ean

Negua igaroteko
Neukan ba ustia
Ekarririk ontzira
Sendi ta emaztia,
Eta iketzaz berotu
Merke zubetia
Itsastarrek ederto
Jokosten tronpia!

Gerra heldu zelarik, Jesusa Zabala alargunak Bilbora alde egin zuen, alabak bonbardaketatik salbatuz. Bertan bizi izan zen 1948an hil zen arte, 65 urte zituela. Bere alabak, Miren, Josune eta, XZ, bizi dira oraindik.

LANGILE ZINTZOA

Ume kozkorretik ontzietan ibili izanak irudi luke eman behar ziokeela zapalduaren halako kontzientzia bat. Inoiz halakorik izan bazuen, arrastorik ez uzteraino ezabatu zuen. 1914ko apiril-maiatzetan zamako itsasontzietan zebiltzan marinelek greba egin zuten, oporra, beren eskubideak aldarrikatzeko (bazekiten, edo sumatzen zuten, noski, nolako irabaziak ekartzen zizkieten ugazabei). Greba Maritima Nervion-eko marinela hasi zuten graba, eta Cardiff-en hain zuzen. Bertan zegoen Batxi, Barry Dock-en. Ez du inorekin haserretu nahi, baina oldozmen orokor bat eskaintzen digu:

«Nik dinodana ez da besterik euskotar onagan ez dagoela opor egitea, ez ugazabaren aurka joatea, bakesuak eta beharginak garelako, ondo begiratuak izaten garelako munduko toki guztietan».

Ez zen bakarra hala pentsatzen zuena. Ez behintzat Sotarenean, orduan zebilen konpainian:

«Sotaren etxeko ontzietan gabiltzanoi deuskue gorroto handia. Kirten batzuk ei gara gu, halan dinoe eurek».

Bera harro egonen zen noski halako irainak entzunda. Esan ohi da Sotarenean langile «seguruak» kontratatzen zirela, Alderdiak gomendatuak. Euskalduna ontzian, langileek lepoan hartuta paseatzen zuten Sota jauna botadura bakoitzaren ondoren, urte haietan. Iraultza Sobietikoa ez da agerian azaldu oraino, urte batzuk beharko dira ELA sortzeko, sozialistek Enkarterrian baino ez daukate indarrik, eta atzerriar antieuskaltzale bezala hartzen dituzte nazionalistek... Batxi Bilbao eusko-langile zintzoaren eredua zatekeen. Errumaniaz ari delarik, gomutatzen da behin hango sozialistek protesta egin zutela Bartzelonan Ferrer i Guardia fusilatu zutenean. Gure idazlea trufatu egiten da jator asko aldra builoso haietaz, gudarostea kalera orduko hanka-jokoa egin zutelako. Baina ideologiaz atzerakoia bazen ere gizarte arloan, bere bizi-griak eta bere umoreak langile zumeengana makurtzen zuten, haiekin nahi zuen atzerriko portuetan taberna...

IDAZLE ERAGILEA

Nortasun alaikoa izan behar zuen, inondik ere. Portuetan erositako tabakoz betea azaltzen zen beti, Kiri-kiñok erretzen zituen onenak Batxik ekarriak ziren. Semetzat hartua bezala zeukan mañariarrak, beti haren berri ematen, beti hark igorritako lanak goraipatzen, beti haren begira, noiz azalduko makila edo kapelua edo txilibitua eskuan, berak antolaturiko lehiaketako sari gisa: nola esan euskaraz...? Maite zuten idazleek ere, hilondoko telegramak eta doluminak ikusi besterik ez dago Aranaren oinordeko zen Luis Eleizaldek heriotz albistea Euzkadi-n eman orduko. Dohain guztiak zeuzkan, beraz, idazle txarra izateko, bileretan ezinbesteko bezala idazterakoan sobera arin, sobera bizi, sobera trufazalearen juzkua egiten ahal zaio itxura baitean.

Nonbaiten izan behar du argazki batek, atera egin zuten-eta, udaletxe alboko horma ondoan, harrizko jesarleku bat zen tokian: Zornotzan, Euzkeldun Batzokija-tik berbertan zegoen Bernarta Aurtenetxe-ren jate-txean 1914ko urriaren 25ean egin zen euskal idazleen bilera historiko hartara berandu iritsi zen gure marine-la, Abrako bokalean eman behar izan baitzuen gaua

ontziak. Noiz helduko, hogeita hamabi lagun zituen zain, urrunetik etorriak batzuk. «Bake eta armorio santu batean» bazkaldu zuten noizbait, gogotik hitz egin zen -ahobatez onartuko da Isaak Lopez Mendizabalaren proposamena, alegia, gerran zauritu eta Pariseko ospitaletan ziren iparraldeko anaiei euskal egunkari, aldizkari eta liburuak igortzea- eta denek Batxik ekarritako txokorrak piztutakoan hitza hartu itsasturriak: bakoitzak honenbeste hilero emanen lukeenaz euskarazko orriak argitaldu behar omen ziren baserri-tarren artean zabaltzeko, Aberriarekikoak ikas zitza-ten. Gaztea, kementsua, borondatez betea, antola-tzaile bat ematen du. Harrigarria da ordea Batxi Bil-bao. Bazkari azkenean, zutitu eta itsasoko bakartaldie-tan eginiko poema batzuk irakurtzen ditu. Hunkituak uzten ditu denak. «Honek Batxik hautsak daukoz», dio Kirikiñok.

MUNDUAREN KRONIKARI

Bazeukan Batxik, espiritu jostalariak gainera, idaz-letasunaren kontzientzia, egilearen harrotasuna, auto-riaren kezka. Behin eta birritan idazten du Napartarra-

ra eta Euzkadi-ra bere lanak zertan diren, zergatik ez diren argitaratu, nolatan atzeratzen diren hainbeste... Eta badaki euskarazko kazetaritza ito egiten dela oilo-lurrean. Maiz erabiliko duen jokutria, besteren ahoan jartzen du, eta Glasgow-n, autokritika izan behar duena:

«Gaur neure ontziko agintari gurenak deiturik esan deust:

- Batxi.
- Zer nahi dozu?
- Egunero erosten dot zuen eguneroko Euzkadi eta ikaratuta nago European dabilen guda negargarriari begiratuta be, zuek zelan zabiltzen oraindino.
- Zer ba? -dinotsot neuk.
- Ba zuek, euskal idazleok, (...) lekuri onenean bateko *amaginarreba*, besteko *astarra*, besteko *katarra*...»

Abiada gorrian egiten ari zen idazlea genuen, eta bere lan batzuek harrigarritzko heldutasuna erakusten dute. Idazle ugaria zen, ia berrehun kolaborazio egin zituen bi urteren buruan: 1913ko abenduan argitaratu zen bere lehen lana, eta 1916ko urtarrilean azkena. Hiru atal nagusitan sailka genitzake bere hizlaurko

idazlanak: bertako kronikak, ipuin saioak, atzerriko kronikak.

Busturiatik eta Forutik eginiko kronikak bertako zertzeladaz beteak daude, baina bereziki Gernikako bizitza politikoko gora-beherez, orduko erregionalisten egitateak -piparpotoak» esaten die karlistei- kritikatuz eta abertzaleenak goratuz. Oso lan interesgarriak dira garaiko giroa ezagutzeko, baina alderdikoia eta publizitatekoak dira guztiz, aldian behin bere zorrotasunak eta bere senak kuadro zorrotz eta kritikorik eragiten dioten arren -«Alderdiak ahaztuta gauek»-, Barakaldoko batzokira eginiko bisita deskribatzen digunean bezala.

Ipuinak ostera -«Euzkadiko ipuñak» eta «Erri sekulakue»- saio moduan agertzen dituela esan genezake, detaile autobiografikoak asmatuekin nahasiz. Bitxia du umorea, konplexubakoa askotan. Baina ez du hori bere bidea, ez teknikaren zabarragatik, ez egituraren xingleagatik, ez gaiaren folklorikotasunagatik.

Atzerriko kronikak dira, zalantzarik gabe, Batxi Bilbaoren lan nagusia, eta arrazoi askorengatik. Atzerrian, Europako portuetan, Batxi libre zegoen, Mazarron-en ez zegoen batzokirik, Cardiff-en ez zituen karlistak pairatu behar, Savona-n ez zegoen Gernikako

feriarik. Distantziak libreago egiten du Batxi idazlea. Abertzale sutsua eta maiz topikoa baldin bada ere, Bilbaok lortzen du bere zama militantea arintzea munduan barrena dabilenean, idazki publizitarioak egitetik kronika deskriptiboak egitera pasa da. Subjetiboak, jakina, baina ironiaz eta aldi berean maitasunez beteak, ideologiaz haratagoko hurbiltasun batean, lantzean behin Aberriaganako maitasunak konparazioak eta mesprezuak egitera ekarri arren. Munduko portuetan ateratzen ditu zakukoak: pertsonaiak atzeman eta marrazteko trebetasuna, hizketan jartzeko grazia, ekintzak girotzeko ahalmena, detaile ñimiñoekiko ardurua, errealitatearen alderdi bitxiak umorez hartzeko gaitasuna... Kronika hauek leku berezia hartzen dute orduan euskaldunok idazten eta irakurtzen genuen artean, aipatu dugun bezala lokalismoa gaingitzen dutelako, eta idazlearen teknika ez dagoelako amaiera bortxaz barregarri bati lotua. Kostunbrismo batean, bai, baina kosmopolitismoz jantzia hizkeran eta ikuspuntuan. Errealitatearen konplexutasuna azaltzen digute maiz -txiroak janari eske ontzietara, marinelen hordikeria, euskaldun epelak- moralismotik urrun, Txomin Agirrek arbuiatu zuen naturalismotik gertu inoiz.

Batxik bi iturri nagusi zeuzkan errealitatea jasotzeko. Bata berak ikusitakoa zen, bere esperientzia pertsonala, ugaria eta anitza, egia esan. Bestea irakurketak zituen, tokian tokiko kazetak bereziki. Espainieraz, italieraz, portugesez eta ingelesez behintzat polito moldatzen zen, errumanieraz ere irakurtzen zuen, nahi beste izpar zeuzkan bere gisara moldatzeko. Eta honek Batxi Bilbaok kronikagintzan garatzen duen teknika argitzen digula uste dugu, bere lan batzuek bai baitute literaturari eskusibari omen dagokion literaturatik. Hizketak, han eta hemen entzunak ditu; ja-zoerak, hainbat izparringitan irakurriak; pertsonaiak, auskalo nongo tabernatan ezagutuak... eta horiek denak begi bistan daukan inguruan jartzen ditu bizi, ausart. Hots, gai dela ezagutu dituen lagunentzako dekoratu egokiak sortzeko, begiak erreko dizkioten os-tatu zikinak -ez da kupidarik euskaldunentzat-, gerra-ra doazen soldaduz beteriko karrikak, propaganda fil-meak erakusten diren zinema aretoak...

Unibertsaltasuna, azken batean. Modernoa, zibila, lagunmin zuen Kirikiñoren beraren txokokeriatik aski urrundua. Tranbian dabil, antzokietara edo zinemato-grafora joaten da, ostatuetan horditzen da, makineria miresten du, marinelen arteko borroketan dago, poli-

ziak eskua eransten dio espioi alemana delakoan, afitxeak egiten dituzte bere argazkiarekin... Hori da nolabait ere Batxi Bilbao, haize freskoa orduko narragintzan.

Zorrotzako moilea eta Baionako portua asimilatu gabe genituelarik, Batxik Rotterdam-eraino eramaten gaitu, Lisboa-raino, Glasgow-raino, Sfax-eraino... Eta idazleak garamatza, ez kazetari zurrinak. Ez du unean unekoa soilik kontatzen, memoria ere altxor ona da. Ez du begimenera datorkiona apuntatzen, bera dabil zokoetan miaka. Eta pertsonaiaren bat behar duenean ez dio ardura kaian ez azalduagatik, asko ibilia zen kronikak ematen hasi aurretik eta azalduko zitzaion nonbaiteko akorduan. Eta horrela baino ez ditu berreskuratzen portu zaharragoak, Hego Afrikako Durban, Buenos Aires ederra, Danubioko ibai-kaiak... eta inoizko pertsonaiak, Mari Eperdi, Zapasto, Txapel...

Gerraren obsesioa, apunte baino ez hasieran, gero eta indar handiagoz agertuko da, itsasoa geografia arriskutsua da. Lehen Mundu Gerra honetan ageriko dira aurrenekoz urpekontziak, beldurgarritzko arma alemaniarren eskuetan ingelesak blokusaren aurka «itsaspeko gerra mugagabea» aldarrikatu zuenean.

Bizkaiko itsasoa minaz josia dago, eta heriotza atze-
man egiten da:

«Agur abertzaleak. Arrisku handietan gabiltza
itsastarrok, ba ez dago egunik ontziren bat hondora ez
doanik, alemaniarrek ipiniriko mina batek jota. Otoi
eizue ba Ama Birjinari itsasoan gabiltzan gizon txiroen
aldez».

Lehen mundu gerrak Hegoaldean duen kronista
bakarra da Bilbao. Kirikiñok ere badu artikulu ederrik,
baina Euzkadi egunkariko bulegotik eginak dira maña-
riarrarenak, ajentzien albisteen moldaketak dira.
Batxi, lubakietan egon gabe, gudan dagoen European
barrena dabil, frontera doazen soldaduz beterik dira
Italia eta Ingalaterrako portuak, eri dakartzate asko.
Populazio zibilak eguneroko bizimoduan jasaten du
gerra-ekonomiak berarekin dakarren bizi baldintzen
latza. Gerra zain-zainea bizi duen gizartea da Batxik
berak ezagutu eta irakurleari dakarkiona. Eta honela,
Etxepare mirikuak, Saint Pierrek eta Zerbitzarik behar
zuten kontrapuntua, soldadu, parte izan gabe gerra-
ren erretratu soziala eginen zuen idazlea dugu Batxi
Bilbao. Ñabardura garrantzitsu batekin hauen ondoan:
beste herrietan aurkitzen du, gerran diren herrien ze-
remonia eta agerraldietan, Euskal Herrian ments duen

abertzaletasuna. Batxik God save the King abesten duelarik Londresen, ez da noski God save the King abesten ari...

GURE EDIZIOA

Esana dugu, bere garaiko idazlea da Batxi. Ez du iraganarekiko zorrik, ez du, esan dezagun honela, arnismoak literaturara zekartzan oztopoak saihestezina zirelako ustea. Batxiren zorra Arana eta Elizaldearen arauetik, ordea, handia da. Lexiko mailan bereziki: *bakaldun, laterri, notin, txindi, donoki...* Guk gaur egun erabili ohi ditugun ordezekoak ezarri ditugu haiek agertzen ziren tokian, laurogeiren bat hitz hortxe-hortxe. Baina ulergaiztasunaren anabasa honetan badu Batxik bere aldeko haizerik. Oso presente du gertuagoko zaion euskara erdua, hau da, ahozko sintaxia azal-azalean duen idazkera da Bilbaorena. Eta ezagun du. Alde honetatik ozta eman digun lanik. Sintaxiaz gainera, esamoldez ere aberatsa eta herrikoia da guztiz gure idazlea, bere maisuari adarra jotzeraino («Kiri-rikiño, badakizu zer den kakazotz?»).

Liburu gabeko idazlea izan da Batxi Bilbao. Eguneroko prentsan eman zituen argitara hemen bildu ditugun artikulua. Honek dakarrena jakina da. Gaur egungo irakurle batentzat nekagarria baldin bada garaioko prentsan gaztelerazko artikuluetan agertzen den akats kopurua, euskarazkoen kasuan are handiagoa da nahasmena. Arrazoia bat baino gehiago izan daiteke, baina kajistak ez hizkuntza, ez hizkuntza horren eredu idatzia ez ezagutzea izan daiteke nagusia.

Testua finkatzeko unean, arazo handiak eman dizkigute artikulua. Nabaria da orrialde arduradunaren eskua -Kirikiñorena gehienetan- hala nola Batxiren beraren zalantza hitz bat baino gehiago emateko orduan. Honela ulertu ditugu *ebazan* / *zituen* erako alternantziak. Adibideak ikaragarri dira, bai aditzean, bai deklinabidean. Erabili dugun irizpidea forma bakarra ematearen aldekoa izan da, osterantzeko artikuluetan sarrien darabiltzan formekin bat datorrena gehienetan. Gutxieneko koherentzia izan nahi duen aditz eta deklinabide paradigmatarak ekartzen saiatu gara era desberdinen dantza. Honetan oso lagungarri gertatu zaigu, estuan jarraitu ez dugun arren «Bizkaiera idatzizko arauak. Deklinabidea eta aditza» liburua. Halaber, aintzat hartu ditugu Mendebalde elkarteak

egin eta argitara emaniko hainbat gogoeta. Guztiei eskerrak.

Liburu honek ez du Batxi Bilbaoren artikuluko guztien bilduma izan nahi. Ez da, eta ezin. Materiala bildu, prestatu eta egungo irakurleari emateko orduan literaturaren historiei orri artetik jausitako idazlearen aldarrikapena prestatzea izan da gure xede nagusia. Horretarako beharrezkoa ikusten genuen liburu atsegin bat eskaintzea. Jatorrizko ortografiak -akatsak eta eskuak tarteko-, neologismo ulergaitzak, aniztasun morfologikoak urrundu egiten gintuen helburutik. Edizio kritiko batek -zintzoagoa hagitzez ikerlariarentzat- ez zigun horretan lagunduko. Bizkaiera batutik euskara batura bidean ikusten genuen soluzioa, berezko ezauzgarri nagusiak eta idazkeraren kolorea mantenduz edonoren begira gozagarri izan zedin. Biderik egokiena iruditu zaigu, Batxi Bilbao idazle bezala interesatzen zaigun heinean, eta ez testugile edo lekuko edo bizkaitar bezala.

Iñigo Aranbarri
Koldo Izagirre

1914

GIBALTAR-TIK

1914ko urtarrilean

Espainiako itsasertzak hasi gara ikusten Cabo Palos deritzon amaieran, eta besterik ez da ageri harria eta haitza baino. Bedartxu bat be ez, zuhaitz txiki bat be ez, dena mendi garbi eta haitzulo itzelak. Cartagena parean hurretxotik igaroten bazara, ikusiko dozuz edozein haitzulotan atsoak leihoetan legezu gudo kanoien ahoak; han-hor gaztelua, eta han-hor zuloa, eta dena asmaketa gizonak hilteko. Bertatik hur samar dago Erroldan Mahaia, haitz ikaragarri bat mahai antzekoa. Handik honantz be, ez dago besterik itsasertz labartsu itzela baino; han-hemen karabinero etxeren bat eta osterantzeko etxe txiki zahartxuren bat edo beste, bakartasunik gorrienean.

Ez da ikusten honetan, gure aberri aldean legezu, zuhaizti alairik, ez etxe bazter ugaririk, mendi bedartsurik, ez herri etxetxurik. Hemen dena da txirotasuna eta itzaltasuna. Jaunari zertan eskerrak emon dauka-gu guk euskotarrok geure aberria egin euskulako, udabarriko loratxuak langoa, txoritxuaren abesti zolitzua langoa, berorren zelai loratxuekin, meta bedartxuekin,

mendi zuhaiztuekin, herri etxetxu alai-alaiekin, euren erdian eliza dabela, bere kanpai hotsek poztutzen dabezela biztanleen bihotzak, eta bardin euren hotsaz batera zerura zuzendu otoiak Ama Birjinagaz gomutatirik.

Hemen hodeiak dira alaiagoak eta ortzea garbiagoa gure aberrian baino. Baina besterik ezebez. Bestelakoa da gure herri maite hori!

Helduten da bat Gibraltarrera, eta egunonak lehenengo emoten deitsuez kanoiek; lehen esan dodan tokian legez, hemen be edozein zulotan dagoz ba euren buru metalezkoek dir-dir edo argi egiten dabela.

Haitz handi bat da berau eta, dinoenez, dena hau dago barrutik zulatuta, eta ingelesek berton arra bete lur be ez daukie gizonak hiltzeko asmaketaren bat ipini barik. Erreketeek ikasi gura balebe armen erabilera Don Jaime ekarteko, honaxe etorri behar leukie.

Mendi gaineraino Gibraltar huritik dago airean burdia, hori da gudaldian pildorak eroateko han goian dagoen gaztelura. Hau aireko burdiau da, aditu egin badozue, tranvia aereo bat. Haitza sortalde edo eguzki aldetik dena laututa dago, eta azpiko mendian jausten den ur guztia handik lauguneetatik sartu dadin berta-

ra, egon dadin haitz horretan zer edan guda bat balitz eta Espainiak urik emon nahi ez. Portuan barriz, huts egin barik dago beti ontziteria ingeles bat. Eta honeek guztiok ikusita esaten dot nik: zenbat diru eder gasta-tu ete dabe herri-agintariek batak bestea hilteko, eta zenbat asmaketa makalagoa zapaltzeko.

Beste aldean ageri da Ceuta, burua makurtuta legez handiagoaren aurrean. Gibraltar herria guztiz da polita. Batez be kale bat dauka ona: King Street. Edo-zer gauza dago Ingalaterrako salneurrian; arraina merke-merke, baita be tabako-orria eta seda eta ur usaintsuak.

ROTTERDAM-ETIK

1914ko urtarrilean

LARRAPASTALARIAK

Hauxe dela uste dot izenik egokiena skiting jolasean ibiltzen direnentzako, honeek dira ba larrapastaka ibili ohi direnak leiaren gainean oinetan tramankulu batzuk ipinita.

Gaur joan naiz neure zeregin batzuk egiten hurira, eta ikaraturik geratu naiz hemengo jendeak daukan zaletasunagaz sport edo kirol horretarako. Huri honetan ba, Venezian legez, hainbat ibai txiki dagoz herri barruan, ur joanak indarrik han ez daukalako. Burdiak gainetik igarota be, ez apurtzeko eran dagoz lei karral-dotuta, eta goiz guztian kalegarbitzaileek itsuskiekin ekin deusie gaina garbitzen kale bat balitz legez, gero jendea larrapast egiten joan dadin.

ZINERAKO IRUDI POLITA

Mila lagun baino gehiago ibili dira Harta Straat kaleko ibaian larrapastaka, eta euren artean hor hogeita hamasei inguruko emakume koloregorri bat inor baino arinago ibili da, baina azkenean garesti urten jakoz

bere azkartasun guztiak. Ibaiertz alde batera heldu denean, beheara bete-beteko zuloa egin eta sartu da sama-samaraino. Hau ikusirik, badatoz neskatila bi berari helduten, eta berehala honeek be sama-samaraino sartu dira. Han ibili dira hirurak zarataka eta negarrez. Besteak ez dira ausartuten izan hareek salbatzen joateko, igarten izan dabelako eurak be samaraino sartuko direla (eta sartuz gero ezin leike urten inork atera ezik, norbera beteko zulotxuan egoten delako bat). Azkenean etorri da polizia bat, eta joan da hiru emakumeok egon diren tokira. Eta bera be zaust! sartu da, putz nahikoa egiten izan dau, baina ezin urten, eta gero sokatxu bategaz atera dabez laurok, sokatxua automobil bati lotu atzetik eta tiratuta tatarrez. Gero automobil bertan sartuta joan dira laurak, uste dot bakoitza bere etxeetara joan izango direla, apur bat berotzeko eta soineko lehorrak aldatzeko.

EZBEHAR BAT

Esan dodan tokian eskerrak ez dela egon ur handia leipean, ez da inor ito. Baina esan deustenez, beste toki batean neskatila eder bi sartu ei ziren eta itota ur-joanaren indarrak eroan. Eta aurkitu ei dabez hemendik ordu biko bidea urrinago.

TXARRA MERKATARIENTZAT

Hemendik hogeï orduko bidea urrinago dagoz berrehun gabarra geldituta, etorri ezin direla ibaia leiaz gogortuta dagoelako. Eta hemen zamatzeko ustez dagozen ontzi askok joan beharko dau beste toki batera. Hemen zamakuntzarik gehiena delako ikatza, eta gabarra horreek gehienok ikatzez beterik dagoz, eta behinik behinean Castro Urdiales eta Antonio, Bilbako baporeak be hementxe dagoz, eta ez dakie azkenean hutsik urten beharko daben.

ERABAKI ONA

Hemengo gobernuak neurri onak hartu ditu moz-kortasunaren kaltez, batzar eta hitzaldi eta holako. Neurri guztiz onekin ahalegindu gura dau jendeari edateko gurari neurribagea kentzeko, eta edatetik datozen gaixo txarretatik alde eragiteko. Behar izana be badago hemen honetan holako neurriak hartzeko, ba guztiz pertsona moz kortiak dira hemengo txiro edo beharginak, eta baita emakumeak be. Ikustekoa izaten da gizonak legez emakumeak garagardotegietan sartuta edan eta edan.

ROTTERDAM ZELAKOA DEN

Herri eder hau zelakoa den esan behar deusuet orain. Kale guztiak dira lauak eta zabaleran bardinak. Etxe guztiak kolore bardinetakoak, gora-behera be etxe guztiek bardina daukie.

Edozein tokitatik igaroten dira gabarra eta ontzi txikiak. Eurretan daukie bizitokia edo etxea sendi askok. Hamar tranbia dagoz, eta hainbat geltoki trenenak. Zumardi edo parkea be ederra, bertan askotariko abereak daukiezela euren tokitxueta. Portuan beti dagoz ehun eta berrogeita hamar ontzi baino gehiago. Atoiontzi eta gabarratan bost mila baino gehiago dagoz. Eliza katolikoak hamarretik gora, eta ikastolak be hainbat.

Lehenago, lau edo bost egun emoten ebezan ontziak hutsituten, eta orain barriz ontzirik handiena egun bat eta erdian hutsituta eta beste hainbestean zamatuta dago, elektrizitatez darabilezen tramankulu batzuekin. Dena aurrerapidea merkatarietzat.

Kafetegi ederrak, hainbat zine, hainbat antzoki, eta denda eder asko. Kafe, tabako-orri, gazta, indibabak eta honakoak guztiz merke dagoz.

Kafetegi bat dago berton ikusgarria. Sartzen da bat atetik eta barruan inor eta ezer ez da ageri, zulo-

txua hor eta zulotxua hemen baino. Zulotxuen goiko aldean idatzita zer janari dagoen bertan. Idazkunean iragarrita dagoen salneurria jaurti zulotik eta, dart!, urteten da janaria erresorte bati tiratuta. Jan, azpilak bertan utzi eta alde. Edariagaz bardin; goiko aldean dagoz edontziak eskegita, jaurti txanpona, txorrotxuan ipini edontzia, bete han, klink! egin, utzi bertan edontzia lohirik, eta alde. Holakorik ez dabe ikusi gure aita zaharrek.

EKANDUAK

Honeek guztiz onak ei dira alde honeetako base-
rrietan. Nik inoiz ikusi dodaz dantzan hemengo base-
rritarrak. Dantza garbiak. Gizonezkoak emakumeari
eskutxutik oratuta egiten ditu inon diren saltoak, eta
hau gelditzen denean hasten da bestea, eta honek be
bardin. Beste denak egon ohi dira begira, eta lantzean
batek urten ohi dau erdira holako saltoak egiten.

Baserri emakumeek guztizko soineko nasai mardo
astin-astinak erabilten dabez, merinakearen antzera.
Buruan zapi zuri bat lekaimeak legetxe, eta bekokian
alanbrezko txorta bi aurrerantz urtenda adartxuen an-
tzera.

Gizonek jantzten dabez gure baserritarren txamar-
rak lakoak, eta prakak belaunetan estu, eta beherago
guztiz nasai, txilinaren antzera.

Baserrietan guztiz dira beldurtiak. Arrotz bat ikusiz
gero, leihoak itxita etxean sartzen dira emakume eta
umeak.

Baserri antz gitxi dauka Rotterdam honek ekan-
duetan. Hango lako dantzak barik baltseo dantza
lohiak egiten dira hemen. Berrogei dantza-etxe baino
gehiago dagoz berton, gauetan guztiak jolastu daite-
zen. Hogeitabost zentabo ordainduten da sarrera, eta
ez dakienari be erakutsi egiten deutsie horretarako
dagozen gizon dantza-irakasleek.

TYNE IBAITIK

1914ko otsailean

Heldu ginen Ingalaterra eder honetara be. Tyne deritzon ibai handi ederraren erdi-erdian gagoz. Newcastle-ra beste bide dago hemendik North Shields-era, horregatik gagoz alde bietatik distantzia bardinean.

Euzkaditik at inoiz urten ez dozuen euskotar neure anaia laztanok, ikusi barik ez zeunkie sinetsiko munduko alderdietan hau lango herririk egon behar dauenik. Zeuen baserrietako etxetxuetatik urten ohi zarie-nean eta Bilbaora joan, ikaratuta geratu ohi zarie hango kezulo eta fabrikekin, eta esan ohi dozue beharbada... ez dagoela Bilbao lango herririk munduan. Bai, Bilbao guztiz ederra, aberatsa, langina da, baina aitortu beharra daukat ibai hau askozaz dela aberatsa-goia eta langinagoa horkoa baino. Ederragoa ez, horixe ez dela herri hau Bilbao baino, gure aberriko herriak baino ederragorik ez delako ikusten munduko inongo txokotan.

Tyne deritzon ibai honetan sartzen denean bat, besterik ez da ikusten alde bietatik fabrika, trena, ontzia, ontziola, zarata, txistua eta zalaparta baino. Ha-

rantzatxuago hainbat ke-zulogaz burdinola, ibaia ontzi handiz, txikiz, zaharrez eta barriz beterik. Ibaian bata besteari aldendu ezinik, hainbat atoiontzi, dena txanela, dena ontzi urtetea eta sartzea, dena lana, dena ogia.

Goizeko zazpian dena da fabrika txistua, gortuteko legez. Badoa bat goizeko seiak inguruan herrira, eta ikusten dira hainbat eta hainbat langile euren lanetarako te-ontziak lepoan dabezela hizketa alaian gazteak eta zaharrak. Tren guztiak be langilez beterik gelditzen dira geltokietan, uzten dabezela ehundaka behargin aurpegi baltz-baltzekin. Zazpietarako ez dago gizonik kaleetan, emakume eta umeak bakarrik baino. Gizon guztiak fabrikan edo lanean dagoz.

Eguerdi inguruan ikusten dira osterak be bideak gizonen eta emakumez beterik, batzuek euren gizon edo semeen bazkariekin, eta besteak etxerantz bazkaltzera. Ordubatean hasten da barriro be zarata eta zarraparra, eta arratsaldeko bostetan dena geratzen da isilik, baserri bat baino isilago. Hor gaueko zazpian hasten da burrunbada garagardotegietan, eta asko joan doaz etxera lehorreko lebatza harrapatuta.

Honetara aste guztia igarota heltzen da larunbata. Orduantxe mozkorra hartzen ez dauena ez da gizona.

Emakumeek be garagardotegietan berariz egindako zulotxu batzuetatik eskatu ohi dabe eurentzat edaria, eta gaueko hamaikak inguruan ez da ikusten kaleetan hordia baino. Beharbada, kale-hegal batean bi haserretuta elkarri musturrak hausten ibiliko dira borrokan, eta polizia barreka eurei begira. Gura adina edo nahikoa egin dabenean, elkarri mosu egiten deutsie borrokariok, eta han doaz bata sudurra apurtuta eta bestea belarria odolduta, txapela galduta eta txartesa lurrez beterik, harik eta hurrengo larunbatera artean borroka egiteko gogo barik.

Harantzago badoa bat eta ikusten dira gizon-emakumeak, musika eta guzti abesten nik ez dakit zelako piezak. Honeek amaiturik igoten da gero aulki zahar baten gainera gizon bat edo emakume bat, eta han ekin daroie gogor hizketan, esaten deutsiela hareei: «Ez eizue edan, ez erre tabako-orririk zerura joan gura badozue...!». Eta nire ustez, eurek hizlariak be, batak baino besteak mozkor handiagoa eukiten dabe.

Badoa bat beste kale ertz batera, eta han ikusten dau atso aldra bat, batak baino besteak zarata handiagoak egiten, *The Suffragate* egunkaria gura daben guztiei emoten deutsiee dubarik. Gizonak barre handiak egiten deutsie atsoen zaratari, eta eurok barriz

piperra baino begi gorriagoekin begiratuten deustee
gizonei.

* * *

Hemengo atsoek inoiz ez dabe soinekorik aldatzen; erosten dabe soineko barri bat eta zatika jausi arte ez dabe kentzen gainetik. Umeek barriz, ikusteko da zer koloretako soinekoak erabili ohi dabizen kaleetan.

Hortikoak be honantz datozenean hemengo ekan-duak hartzen dabez, eta askotan bertokoak baino txarrago. Barreak egingo zeunkez ikusiko bazenduez zelan garbitzen daben hemengo emakumeek aurpegia, katuak legeztatik kontuz-kontuz, eta horregatik aurretik garbi, eta sama eta kokota kedarra baino baltzago.

Gehienetan hotz egiten dauen legeztatik, gizonek be erabili ohi dabez gaineko txartes handiak, eta koipectan badarabile lapiko galanta onduteko beste.

Ez uste izan, irakurleak, den-denak direla holakok; ba asko izan arren eurok, beste asko be badagoz garbi ibili ohi direnak. Horregatino zikinak gehiago.

* * *

Newcastle ibaian oraingoan hotz guztiz gitxi dago. Ikaratu egin leike hain epel egoteaz Ingalaterrako toki honetan. Rotterdamen bai egiten ebala hotz. Han ezin berotu izaten ginen ezertara be, hori gero hamazazpi jaka, hamahiru gorantz, hogeita lau praka, eta beste hainbeste alkondara eta abar ipinita soinean.

* * *

Hil honen hogeita bostean jokatu eben Sunderland deritzon hurian bertako futbolari bikainek eta Middlesbrough-ekoek. Hareek sartu ebezan lau goal eta Middlesbrough-ekoek bi bakarrik.

Sunderlandekoak dira Ingalaterrako bikainenak gaur, baina aldi gitxi barru Middlesbrough-ekoak izango ei dira nagusi. Eurok ei daukiez back guztiz onak eta goalkiper guztiz azkarra. Laster honeek izango dira ba Ingalaterrako txapeldun edo champion.

* * *

South-Shields deritzon herrian atzo erre zen fabrika handi bat. Lau gizoni erre jakezen begietako mintzak eta geratu ziren betikoitsu. Beste batzuei erre jakezen buruko uleak, soinekoak, betuleak-eta; inori

besteri ez jakon egin beste ezbeharririk. 100.000 libra esterlinaren balioa erre da.

* * *

Gure aldekoek uste izaten dabe hemen dubarik dagoela gauza, eta horregatik esan oi deustiee itsas-tarrei horrantz doazanean eroan daiela hau edo hori edo bestea. Ba, hemen be txakurrak ortozik dabilta, eta salneurriak be horko antzera dagoz. Egia da, laranjak hemen merkeago dagoz Valentzian baino. Osterantzean, soineko eta beste holako trasteak, hemen txilin bi eta erdi ordaindu ohi dena, hor be erosi leike hamahiru errealean.

SAVONA-TIK

1914ko otsailaren 12, 15 eta 23an

Kai txiki-txikitxua, herri guztiz zaharra. Eliza zahar-zahar asko. Kaleak berezietako bidezidorrak lakoak gehienak, eta eurak guztiz atsitu lohiak. Azoka egiten da kale estu batean. Tranbia bat dabil kale batean edo bitan bakarrik. Kale bat edo bi dagoz zeozer balio dabena, eta hantxe dagoz zine batzuk eta antzoki bat eta holakoak.

EUSKOTAR BATI JAZORIKOA

Kirikiñok osterara be esango deust andaluztu naizela, baina ez deust ardura, eta esan behar dot zer jazo jakon antzina, haize-ontziak ibiltzen zirenean, gure herriko mutil bati.

Heldu zen hona, eta gose zen, eta ikusi ebazan os-tatu edo jatetxe batean hainbat gizon zeozer irensten, zinta bat lakoa zen gauza bat. Eta zer zen? Makarroiak neurrira saltzen ebazan etxe bat.

Hara: heltzen zen bat eta eskatuten ebazan honenbeste metro makarroi. Sartzen eutsoen arilean legez batuta euken makarroiaren punta ahora, eta

irentsiz-irentsiz joian jaubea neurtzen. Eta berak gura ebazan metroak irensten ebazanean, zazt! Ugazabak ebagiten eban eskuan eukan makarroi hori, beste ma-haikide bati oster a be sartzeko.

Eta hau ikusi ebanean, sartu zen gure herritar hori, eta ugazabak itaundu eutsan zenbat metro gura eban.

- Hogeí -erantzun eutsan beronek.

Hasi zen irensten, eta hogeira heldu zenean ugazabak esan eutsan:

- Oraintxe daukazuz hogeí egin-eginak barruan.

- Ebagizu ba -inotsan beronek, barruan eukanez gerokoan ordaindu barik ihesi egiteko ustez.

- Ekatzu ba dirua -inotsan ugazabak.

- Zenbat da ba?

- Laurleko bi.

- Nik ez daukat hiru txakur baino -esan eban gu-reak.

Eta beste batzuk be irensteko begira egozan eta larri, dirua eskuetan ebela, eta orduan, zer uste dozu, Kirikiño, egin ebala jatetxeko ugazabak?

Ziri-zara atzera atera euskotar gizajoari urdailetik janda euki ebazan hogeí metroak, eta gero berehala sartu atzera beste batzuei ahotik, bati bi, besteari bost, eta halan.

* * *

San Martino de Alvaro deritzon hurian ume txiorentzako asilo barri bat egiten ibili dira, eta bat-batean jausi da behera etxe hori, hainbat behargin azpian harrapaturik, eurotarik zortzi hil direla, eta zaurituak asko. Herriko alkateak bisitatu ditu zaurituok. Etxe barri horren egileari itaundu deusagu, eta dino jauste hori izan dela aspalditxuon izan diren euriengatik.

* * *

Genoako irakasle elkarte batek pentsatu dau itsas-tarrentzat ikastola eder bat egitea. Ikastola honek daukaz eginkizun bi; bata itsastarren jolasak erakustea, eta bestea itsas-eginkizunetan eurok ondo irakatsita ipintea. Ikastola horrek eukiko ditu txanela edo itsasontzi txiki asko itsastarrek jolastu daien eta euren eginkizuna eta abar ikasi daien.

* * *

Italiar batek asmatu dau New Yorkeen munduko txoko batetik besteraino hitz egin ahal daikean hari bagako telefonoa. Amerikako irakasle bikainenek ontzat emon dabe, eta lau bider sendoago norberak egi-

ten dauena baino entzuten da hitza, edozein tokian tramankulua eukiz geroztino.

* * *

Gudaren kaltez hemengo sozialistek hainbat hitzaldi egiten dihardue, eta guda ministroari hainbat idazki bidaltzen deusiez esanik utzi daiola bere lekua beste bati.

* * *

Vesubioko sumendi zulora sartuko da hil honen 18an Alessandro Malladra irakaslea, eta gero etorriko da Genoara krater horretaz hitzaldiak egiten. Jakituen artean gar handia dago berari entzuteko. Hitzaldi tokira sartzeko laurleko bat kenduko dabe.

* * *

Gaur hemen Savonan dago dantzaketa handi bat, eta Venezian lege egongo da bertoko zumardia, argiz jantzita.

* * *

Italiarren odola munduan dagoenik odolik nobleena... Halan dino egunkari batek, eta gainera dino ita-

liarrak edonon direla euren aberriaren zaleak, italiarrak guztiz askatasun zaleak direla, eta Italia dela munduko herririk ederrena eta handiena, justizia onena dagoena, eta azkenez amaituten dau «Gora Italia!» bategaz.

* * *

Erroman gogor dabilta katolikoak eta sozialistak ezkontzaz. Hemen be kafetegietan ez da besterik entzuten matrimonio civile bera baino.

IKURRIN EDERRA

Hemen dago ba, lehenago esan neutsuen legez, Bilbaina izena dauen ardanetxe bat, itsastarren sakel-hustutzailea (inork entzun gura ez badau belarriak itxi).

Ardanetxe horretara hurreratuz gero euskotar txapela buruan, lehenengo agurra da Torquito edo Kirtenkito-ren himnoa. Uste izaten dabe andaluziarrak garelarenok. Han euki ohi dabez neska artista gitarra eta bibolin jole bi, katararren ahotsagaz abestu ohi dabezenak ez dakit nik nongo txuleriaren kantuak: artista mirrixok, barriz, ez dabe egiten besterik barre baino, norberak atzea emon orduko. Eta gero euskotar asko

hara joan ohi gara katamixarraren kantuak entzuten eta diru ederrak, sendiak ondo eskertuko leukiezenak, han uzten.

Ateburuan dagoz espainiar ikurrina Grezia, Inglaterra, Alemania eta, azkenez baita be, bilbotarra eta honen azpitxuan euskal abertzaleon ikurrin ederra.

Abertzaleak, gure ikurrin ederrak ez leuke egon behar txulokeri-doinuak eta abestiak egiten diren tokian, hori baino ederragoa da gure ikurrina, itsastar sakel hustutzaile batek euki daien bere taskaren ateburuan, beste zereginik ez daukana ahal dauen guztia estutea eta guri berak ahal dauen edaririk zantarrenak emotea baino.

Pentsatu ba, italiar batek berak gura dauen legez erabilteko ez dela gure ikurrin maitea.

SAGUNTO-TIK

1914ko martxoaren 13an

Heldu gara atzera hona, bi hilabete inguru eginik geure atzera-aurreran.

Hona heldu behar genduen baino egun bat lehenago, ontziko lagun guztiak ebiltzan soinekoak aldatuten, biboteak kirimiletan, eta uleak orraztuten, hona dotore-dotore agertzeko. Ontziak berak egiten eban urrumadan esan eikean adierazten ebala gogaituta egoela ia Ingalaterra eta Italia aldetik.

Sugileek abesten egiten eben Jaungoikoak baka-rik dakien beste, eta labek zirikatuten ebezan inoiz baino bikainago, eta makina ebilen inoiz baino abiada handiagoaz. Makinistak be ben-ben egozan euren tokietan soinekorik ederrenak aldean ebazala. Lemariak eta abar, guztiak ebiltzan begiak urkatu beharrean kai hau ageri ete zen begira, eta halakoren batean ikusi genduenean bazen hemen poza eta alaitasuna.

Noiz edo noiz sartu ginen ba berton, eta ontziburuaren aginduz nasatik hurretxuan gelditu ginen atxurrak hondora jaurtiteko ustean. Baina berehala urten

zen Bilbaoko Gorbea Mendi ontzia, eta honen tokira joan ginen mea zamatuten hemendik Holandarako.

Upo Mendi, Bermeo, Rafael, eta aleman ontzi bat dagoz orain hemen, eta bihar uste dot helduko direla Lalen Mendi eta Urko Mendi.

* * *

Bai, Kirikiño adiskidea, zuzen zagoz negar egiteko egunak berez etorriko direla esanez. Holan etorri jataz niri aspalditxuon neure sendian, holan heldu zen hona Saguntora be negar egiteko eguna Abanto baporeko den-denak ito zirenean. Geu be, edo neu be, hurretxu nengoen orduan beste ontzi batean, begien aurrean heriotza ikusten. Baina hahor ba, ni bizirik.

Eguraldi zantarraren arazoak ziren orduan hiru ontzi hondartza eta harritzara eroan ebezanak, baina orain horixegatik ez dago ardurarik. Itsas erdirantz ur-teten den nasa handi bat egin dabe, eta hantxe ederto egon ohi dira ontziak barruko aldetik, nahiz eta eguraldi txarra egin.

* * *

Heldu ei da hona bapore handi bat eta egun bitan zamatatu ei dabe aurrerapidetsuzko tramankulu elektri-

ko handi bategaz. Hona joten daben ontzietako lema-
ri eta sugileak lurrera joaten dira berehala, eta aldi
gitxi egiten daben legez hemen ontziak zama hartze-
ko, txistua legez joaten jakez hemengo egun biak. Eta
ontziak itsasoratu behar dauenean eurak bilatzen
nahikoa neke eta zeregin izaten da.

Honek ez daukala ezer be zerikusirik esan leike,
lehen aitatu dodan eguraldi txarraren arazoaz. Ba...
badauka. Lehen ezin eitekezan ibili lemariak eta abar
orain legez, ba kai zantarra zen legez, eta eguraldi
txarren beldurrez eta ontziko zereginetan beharko zi-
relakoan, ontziburuak barruan eukiten ebazan lagun
denak. Baina orain kaia ederto dagoen legez be nasa
luzeagaz, denak dabilta askatasun gehiagogaz, nasa
barrutik ontzia egonez gero ekaitzaren beldurrik ez
dagoelako.

ROTTERDAM-ETIK

1914ko martxoaren 27an

Heltzen denean arrotz bat herri honetara lehenengo ohartu ohi dauena da hemengo kaleetako garbitasuna. Igaroten bada bat goizeko zortzietan legezkaleetatik ikusten dauena da neskame guztiak euren etxe-aurreak garbitzen, eta hor bederatziak inguruan, zurubi eta metal eta beste enparauak birrist egiten egoten dira dir-dir garbiaren garbiz. Hemen ez da ikusten Ingalaterran legezkume kozkor aldrarik ortozik eta atze-aurreak agerian. Hemen kaleetatik ikusten diren umeak soineko zaharrekin baino ez bada be, behinik behinean garbiro ikusten dira.

Hemen esan leike, edo zenbatu leikez herri bi: bata lehorrekoa eta bestea uraren gainekoa. Lehorrean beste biztanle gitxi bat gorabehera dagoelako uraren gainean, ba senar-emazteak, ume eta abar bizi dira urgazontzietan lehorrean baino oraindino zabaltasun gehiagogaz berarizko bizitokietan. Urgazontzi bakoitzak daukaz bizitoki bi, bata guztiz ederra ontziburu eta sendiarentzat, eta bestea behargin edo marine-lentzat. Marinelak ezkongeak badira, bizi leikez bi bizi-

toki hareetan, baina ezkondua izanez gero bat baka-
rrik emazteagaz, eta honek dauka eginkizuna bigarren
marinelaren lana egiteko.

Askok esango dau zelan izan leiken senar-emaz-
teak umeekin halako ontzietan bizi izatea. Ba, guztiz
erraz. Umeak txikitxuak diren artean, nik ez dakit
zelan, baina puskat kaskonduten direnean, gogoia alde
bateratuta txakurkumatxu bat balitz legeztatu ohi
dabez uhal batez gerritik, eta gero apurtxu bat luze
utzi haria jolastu daitezen umeak, eta horretara inoiz
ez daukie uretara jausiko diren beldurrik, haria beti
izaten delako ontzi-ertzeraino baino laburragoa.

Emakumeak dira lemaririk bikainenak. Gizonek
beste zer edo zer egiten diharduen bitartean, ikuste-
koak dira leman atsoak txistua baino arinago ibaian
gora eta behera ontziak zuzenduten. Badira hemen gi-
zonak, gauean, euren ontziagaz nora edo hara joan
beharra euki, eta eurak ohetik ez jagitearren atsoa bi-
dali ohi dabenak ontzi-zubira, eta goizean jagitorduan
aurkituten direnak beste herri batean atsoak ontzia
eroanda.

Umeak ikastoletara joateko adina daukanean, bi-
daltzen dabez berariz eginda dagoen ikastola handi
batera, eta bertan irakasteaz gainera elikatu eta abar

egiten deustie euren ontzietara etorri ezin diren umeei, ontzia beste alde batera joan delako-edo. Holakoxea da ba hemengo uraren gaineko herria: dena da zama-ontzia ibaian, atsoz eta umez beterik.

Lehorrean barriz guztiz ondo bizi leike hemen dirua eukiz gero. Kalerik kale salduten dabe ba etxean behar den guztia, eta ez dago zertan plazara joanik ezer erosten. Ikustekoa da zaldi-orde burditxoetan txakurak dabezela hemengo baserritarrak gauzak saltzen goizean goizetik.

Ikaratuko dira beharbada txakurak erabilteagaz zaldi-orde *Euzkadiren* irakurle asko. Ba ez harritu... eta ez uste txarragoak direnik, neuk ikusi dodalako lau txakurren artean eroaten zaldi handi batek eroango leuken beste. Eta gero elikatuteko zaldiak pentsua behar dau, eta barriz txakurak bardin-bardin arratoiekin be.

Honeetan Holandako herrietan geure herriko antz handia daukie ekanduek eta beste gauza askok. Ba, Alemania ikusi eta hau Holanda ikusi, erdi bardin.

Gauza bat bakarrik ikusi dot hemen jazoten ez dena: hemen ontziak heltzen direnean ez da inor etorren euren gauzak salgai ipinten Alemanian legez. Han ikustekoa da ontzi bat heltzen denean. Beronen ondo-

ra etorri ohi dira hamazazpi harakin, hamahiru okin, hogeita hamar soineko-garbitzaile, beste hainbeste oinetakogile, eta ontzi guztia beteten dabe idazki-azalez edo tarjetez euren etxearen zuzenbideaz, eta denak bata besteagatik txakurrenak esaten. Hemen horrexegaz bakea daukagu itsastarrok.

BOXEOLARIAK

Hemengo antzoki batean frantziar batek eta errusiar batek egiten dabe ukabil-jokoa. Ukabilkada eder-rak sartzen deutsoz bata besteari, baina elkar ez dabe oraindino hil. Kale mustur guztietan dagoz ipinita euren irudiak, eta jendetza handiak joaten ei dira gauero horixe ikusten.

BUSTITEKO GOGOA

Kowader deritzon batek atzo bere buruari uretara utzi eutson. Bere bila joan zirenean, uger egiten aurkitu eben. Itaundurik zergatik behar hori egin eban, erantzun eban diruak amaitu eta lan barik egoela. Horregatik hil gura izan ebala bere burua. Zergatik uger egiten ete eban ba?

LAPUR ZUHURRAK

Ingeles ontzi bati loki edo noka barri bi ostu deustiez. Ibai-poliziak badabiltza lorratz bila, baina ez dakit ezer idoroko daben; ba honeetariko lapurrak egi-ten dabe, ostu orduko ikusi, eta joan beste ontzi bate-ra eta esan zelako lokia daukien saltzeko, eta baie-tzean gelditzen badira, ontzi hori itsasoratu baino ordu batzuk lehenago ostu lokia eta eroan eta saldu. Esan gura dodana da, ostu baino lehen salduten dabe-la lokia; berau hartu behar dauen ontzia itsasora joan behar dauen gau hartan bertan, ostuten dabe lokia bestean eta berehalaxe daroe harengana. Ha urteten da loki ederra guztiz merke erosita eta bestea ha barik, eta kitu.

EMAKUME BATEK BIRRITAN EZKONDU NAHI

Esan deustenez, lehengo egun batean nahi izan eban errusiar neskato batek bigarren ezkondu An-beresko zuritzaile bategaz, baina honek egun bat le-henago hartu eban idazki bat Berlindik neskato horren lehenengo senarrarena, eta orduan amaitu ziren tra-tuok.

GURA IZAN ARREN EZIN

Inoiz lehenago esan deutsuedan legez, dago hemen kafetegi edo jatetxe bat dirua zulo txutik jaurti-

ta jatekoak urteten dabena. Hor Bilbaon balego, Kiriki-
ñok esango eban pezeta faltsu guztiak bertara joango
litzakezela. Ez ba, ezin leike hori. Neuk jaurti dot gaur
Frantziako laurleko bat, eta erresorteari tira eta tira
ibili naiz, baina barruko aldeko jotekoa geldi, eta bere-
hala urten jat neure laurleko hori beste zulo txu bate-
tik atzera. Zulo txuetatik doazen txanpon guztiak
euren bidetxuetatik doaz toki batera, eta han dago
neskatila bat dirua ikusteko. Txanpona ona bada,
berak ipinten dau aske jatekoaren erresortea, eta txar-
ra bada, beste zulo txu batetik bidali atzera.

ABERRIRA!

Gaur jakin dogu hemendik Ingalaterrara goazela,
eta handik aberrira. Ez uste goazenik euskotar askok
aberria deitzen deutson eta ez denera, ez, bertora,
Bilbaora. Hau da poza! Pentsatuta bakarrik laster egon
behar dodala hor neure anaia kutunekin eta laster en-
tzun behar dodazela horko txoritxoek kantuak eta ku-
kuaren hots zolia...

Bederatzi euskotar bakarrik gagoz barruan hogei-
ta hamabi gizonetik. Gu oso alai gagoz, baina valen-
tziairak hemen dabilta prakak eutsi ezinik beldurrez,
hor Bilbaon denok utziko ete doguzen.

NEWCASTLE-TIK

1914ko martxoaren 31n eta apirilaren 4an

Heldu gara gaur hemengo kai-aurre edo sarrerara, eta helduaz batera ontziburuak esan deutso lehenengo agintariari: «Jaurti eskoako atxurra!». Eta esanez batera, burrun! atxurra uretara joan da.

Ontziburuak: Zenbat estuntza joan da?

Lehenengoak: Hiru morapilo, eta laugarrena orain-txe dago estuntze-zuloan.

Ontziburuak: Norantz dauka jite atxurraren estuntzak?

Lehenengoak: Alborantz, eta atxurra ontzipean dago.

Ontziburuak: Ondo dago, jaurtizu harik eta bosgarren morapiloa uraren gainean lotu arte.

Eta honetara geratu gara harik eta urak gora igon arte. Gero atxurra gora jaso eta Newcastle ibaian sartu gara.

Ondo ikusi barik inork ezin leike esan zenbat edertasun daukan ibai handi honek. Sarreran alde batetik North Shields dago eta bestean South Shields. Lante-

gitsua bada bata, lantegitsua da bestea. Untzi asko badago alde batean, askoz gehiago dago bestean.

Horrexek biok legez dagoz Jarrow alde batekoa, eta Walssend eta Hebrun bestekoa. Hasten da bat ontzigintzak ikusten, eta alderdi bietatik ez dago besterik ontzi barri erreskadak baino.

Hor Pelaw inguruan amaituten dira ontzigintzak, eta handik aurrera beste fabrika batzuk dagoz, eta eurok guztiz ederrak, batez be Holzapel pintura-fabrika, Pelaw oinetakoak garbitzeko pasta-fabrika, Sliper Bakers urun-fabrika, eta beste ola handi bat metalak garbitzeko pasta bakarrik egiten dauena. Honeek amaituta gero hasten da ostera be ontzigintza erreskada, eta amairik ez dauka ostera be eginda dagozen ontzi-barriteriak. Honez gainera, ibai guztia, laurogei metrotik laurogei metrora, ontziak zamatuteko tramankuluz beterik dago.

Holakoxea da ba ibai hau, harik eta Derwentaf-era heldu arte, eta hantxe amaitu da itsasoko ontzientzat. Eta hantxe bertan gagoz geu, Derwentafen edo ibaia-aren amaian.

Begoña, Gorbea Mendi, Bermeo, Armuru, Aurrera, Sardinero eta beste hiru-lau bilbaotar ontzi dagoz hemen.

Ingelesak dira euren burua inor baino zuhurrago-tzat daukienak; eurak uste dabe ez dagoela inon ez justiziarik ez beste gauza onik hementxe bertan baino. Ingeles bati ezin esan leikio inongo tokitan gauza ona dagoela, ez dau sinetsiko-eta. Ez esan honeei: han geure herrian be bajagozak holako ontziak, makinak eta abar, zuek hemen daukazuezan lakoak. Ez deusue entzun be egingo. Holako gauzarik ez dago inon Ingalaterran baino.

Honeek, euren aberriaren zale-zaleak dira. Heltzen diren toki guztietan beti euren herria jaso eta goral-tzen dabe; ez dabe txarrik esaten Londresko euren mi-nistroengatik. Ikustekoa da edozein tokitan ingelese-kin aurkituz gero euren herriko abesti aberkoiak erabi-li ohi dabezela beti, eta beharbada lehorreko lebatz ikaragarria euki arren aldean, «Gora Ingalaterra!» edozein tokitan hots egingo dau.

Hara, oraindino aldi asko ez dela neuri jazo jatana. Neure ontzi hau ibaiaren erdian egoen eta, lemari bati dei egin eta gero, txanelari itxoiten nengoen ontzira-tuteko. Jezarrita nengoen eta neure albotxuan egozan hiru edo lau ingeles hizketan. Neure ontziaren izena

entzun neutsen, eta zuhur ipini neban neure belarria, eta hara zer inoen euren:

- Hori da untzi ederra.
- Ez dago Ingalaterran asko berori baino hoberik.
- Guztizko ederra da haxe be.
- Espainiakoa da-eta. Edo da Middlesbroughen egina edo Sunderlanden. Hantxe egiten dabez horren antzerakoak.

Barriketa honeei gehitu eutsan batek:

- Geure ontziolak, ez dago gu lakorik! Munduko toki guztietan erakusten dogu guk geure antza.

Eta holako hitz asko esan ondoren otu jakon euretariko bati niri itauntzea zenbat urte dituen gure ontziak. Esan neutson: bi. Eta non egina den, eta Bilbaon. Barreka hasi jatazan, ez eusten sinetsi, eta ni alderatu nintzenean puska bat, elkarri inotsen:

- Espainian holako beharrik egin? Ezin izan leike, han besterik ez bajagok gosea eta abarra baino. Ontzigintzan baino hobeto jakingo joek han zezanak uxatuten eta tangoa dantzetan.

Honako batzuk esanda aldegin eben egozan tokitik, ni guzurti bat naizela-eta.

Badakizue ba, neure anaia kutunok, hemen espainiarrak gara honeentzako, arraza banakoak izan

arren. Espainiarren iritzi guztiz txarra daukie hemen-
goek. Antzokietan beti agertzen da espainiar gizonez-
koa kapela biribil, praka estu eta jaka laburtxuagaz,
eta emakumea beti manola soinekoekin. Eta uste
dabe Espainia guztian holantxe jantzita dabiltzala, eta
jantzi horreei jagokezen ekanduak dagozela.

Empire deritzon antzokian oraindino aldi asko ez
dela, antzerki bat ikusi neban polita ingelesentzat,
hainbat barre eragiten eutsen, baina espainiarrentzat
ez hain egokia. Hara zer antzeztu eben:

Ingalaterrako huri batean bizi ziren senar-emazte
aberats bi eta egunkarietan irakurri eben historia
gauza ederrak eta abar ikusteko, Sevilla baino herri
ederragorik ez dagoela. Berehala gertuten dira, eta
berarizko bapore batean doaz Sevillara. Hona helduaz
batera ez dau aurkituten bideetan lapurra baino bes-
terik, edozer egiteko denak diru eske, eta Sevillan da-
goen lehenengo egunean zabalduten ditu mila laurle-
ko baino gehiago. Sevilla guztiz herri txiroa, eta kale
guztiak zezenlariz beterik. Zazpik urteten deutse ku-
txillo banagaz erreskadan dirua ostuteko ustean egun
batean, eta jo lehenengoa ukabilaz eta zazpiak bota-
ten ditu lurrera. Beste egun batean be, zaldi-burdian
doala, urteten jakoz hiru edo lau, eta denak ukabilka-

dak emoten ibili baino alde guztietatik eta guztiei. Joten ditu gudamutil, polizia, goardiazibil, eta azkenean baita Sevillako gobernadorea be. Deituten deutsie tribunaletara, eta ingelesak dino hainbat arinen aske ipini daiela, bere herrira joan gura dauela-eta.

- Diru asko daukazu? -dinotse.

- Berrogeita hamar libra geratzen jataz -dino.

- Horreek ekatzuz ba, eta aske zagoz -dinotso epaileak.

Diru guztia Sevillan utzi, eta azkenean dator bere herrira, eta heltzen denean dino han ez dagoela lotsarik, ez justiziarik, ez indarrik. Hango gizonak denak epel batzuk direla, eta «Gora Ingalaterra!» deiadar egiten dau. Eta antzokian dagozen guztiek erantzuten dabe: «Gora!».

Epeltzat badaukiez espainiarrak, eta honeen artean sartzen bagaitue euskotarrok be, nik esango dodana da Ibarrangelun gizon batek sardina zahar bat eskuan ebala hamalau ingeles aurrean arineketan eroan ebazala. Gaua zen, sardinak argi-birrist egiten eban, eta labana zelakoan ingeles gizajoeak hanka-joko galanta egin eben.

ERANDION

1914ko apirilaren 12an

Heldu gara aberrira azkenean be. Hemen gara, mutilok! Hainbat ordu lehenagotik genbiltzan begira non agertuko ete zen geure txoko kutuntxu hau, eta halako batean, horra non agertzen den Santoñako mendi tontorra! Ha zen poza! Barruko euskotar guztiok genbiltzan bata besteari erakusten herri zati hori. Eta gure ontzi eder honek esan eikean pertsona bizi batek legeztatu ikusi ebala, berehala ohartu genduen ba makina bere abiada handiagoz ebilela. Nire ustez ontziak berak be esaten eban; «ni hangoxea naiz, nik haraxe gura dot». Beti gengozen bost-sei orduan geure mendi alaiok ikusten... baina noizko heldu? Beti ibiltzen eta inoiz heldu ez. Ha zen lorra!

- Ez deritzozu, Batxi, guztizko zoragarriak direla horreek mendi ederrok euren gailur tontordunokin, aldatu gorak eta sakonuneekin eta hainbat zuhaitz orlegirekin?

- Bai, esan neutson. Nork euki leikean hitz-neurlari askok daukan hala, oraintxe bertotik ontziak abiatu atzetik dauen bitartean batetik ikusi, eta bes-

tetik horreek gure asabak landu eta ondu ebezan mendi jagiok, berton gagozen lekutik hitz-neurtu batzuekin abestuteko.

Baina ezin, ez dakigu-eta. Baina bihoz dunak bagara, gomutatu daigun zelan dagozen mendi horreen barru-aldeetik dagozen herriak. Edertasun hori bakarrik da ba guretzako urrunetik ikusten doguzelako, eta halako gure asaba kutunek utzi ebezan lako bardin-bardinak direlako urrunetik begiratuta. Baina barrurantz sartzen bagara, eta bertako jende asko ikusten bado-gu, bakarrik ikusten dogu hemendik, mendi hareek legez, herri eder baten adarrak, baina adarrok dagoz mendi horreek daukien mardultasunak ihes eginda. Mendiak bardinak ziren gu aske ginenean, baina jendearen ekanduak... Ai!, honeek ez dira lehenak.

Honetara hizketan gengozela eta Galea itsas-muturraren aurrera gentozela inostan neure adiskideak:

- Ez ete gara helduko ba geure sendi kutunengana besarkada bat emoteko geure laztantxuei?

Ha hori holan balitz!

Heldu ginen Bilbaoko ibai aurrera, eta adierazo euskuen ezin gindekezela sartu ibaian gora. Agur gure ahaleginak eta gure egun hartako pozak! Beste egun

bat gehiago egon behar geure maiteen ondotxura heldu barik.

Ontziburuak berehala agindu eban bere ahots lodi ben-benagaz:

– Jaurti atxurra!

Eta agintza-ahotsagaz batera joan zen atxurra urpera, eta geratu ginen bere pentsutan hurrengo goizeko laurak arte.

Lauetan edo zerbait lehentxuago hasi zen manio-bra, eta berehala sartu ginen Bizkaiko Labegaraietako nasara, bertan geure zama hutsituteko.

Halako batean bere amak eskutik dauela heltzen da ume eder bat, eta dinotso aitari ontziaren ertzetik:

– Aita, bizi zara?

– Bai, bizi naiz, laztana.

– Ezer badakarstazu Ingalaterratik?

– Bai, oinetako barri batzuk.

– Ez jataz niri ahaztu ba, aitatxo, zuk erakutsi zeustazan kantuak. Gura dozuz abestutea?

– Bai.

Eta berehala hasten da ume ederra:

Euskaldun jaio nintzan

Euskalduna hazi,

Euskara hutsik amak

*eustan erakutsi,
Euskara maite-maite
zabilz neugaz beti,
Euskara hilez gero
ez dot gura bizi.*

Hemen gara ba, neure bihotzeko Kirikiño. Ez dau
ardurarik aurpegiz ezagututen ez banozu, eta biho-
tzez ezagutu, neuk zeu legez.

Gora Euzkadi!

CARDIFF ETA BARRY DOCK-ETIK

1914ko maiatzaren 13, 15 eta 18an

Gogoia ilun, bihotza samintasunez beterik, zuek hor itxialdian bihotzean egin jatan barru-barruko zauria ondo osatu barik heltzen naiz hona, eta uste izan zeinkiez zelako aldia eukiko neban.

Hartzen dot neure ondotik morroi bat, eta han noa herrira. Hemengo kale nagusira helduaz batera ikusten dot etxe bat, espainiarren ikurrin zahar bat ate-buruan daukana. Oraindino goiz da, denda guztiak dagoz itxita, ikurrindun etxea be bai.

«Itxaron egin beharko joagu» dinotsot morroiari, eta han geratzen gara, garbitzaileak zelan kaleak garbitzen dabezen adi... Ni isilik, morroia isilik, ni neure pentsakizunetan, eta morroia ez dakit... Zortziak dira... Nor edo nor jagi da ikurrin-etxean, hurrengo kantu hau dantzut-eta:

– ¡Ay!... er que tiene penitas no duerme y yo siempre estoy durmiendo... mardita sea la hora...

- Demonioñe! Txo, aditu dok ezer? -dinotsat muti-lari.

- Bai, beti dagoela lo.

Edegiten dabe leiho bat berehala, eta ikusten nau etxeko gizon horrek ate aurrean nagoela, eta deituten deutso bere emazte edo dena delakoari:

- Vaite abaixo e ábrele a porta a ese maordomo e a mais o rapaz.

Eta baderantzutso barrutik atsoak:

- E logo, ¿porque ti non vais?

Halan eta guzti be, handik gerotxuago edegiten deusku galiziar andaluz kantuak ederto dakitzan horrek, baita be badamosku kafe bero-beroa, eta harik eta dendak zabaldu arte barriketan lagundu be.

Galiziarren ele edo berbetatik ahalik ondoen euskaratuta hor doa ba berak esan deustana:

- Hara, adiskidea. Hemen Ingalaterran ezin gara bizi ezertara be, eta diru apur bat batu arte egoteko ustean gagoz gero Espainiara joateko. Etxeak guztiz garestitu dabez lehendik hona, eta honeek legez, beste gauza guztiak. Ezin leikio oratu ez okelari, ez arrainari, ez azukreari, ez kafeari, ez teari, ez ezeri. Dena garesti, eta etorriak geroago eta urriagoak. Nik uste neban hau beste gauzaren bat zela, baina kala-

baza zahar bat! Hau askozaz be txarragoa da Espainia baino.

Lehen neukan gogoia ilun, eta galiziar arrano honek oraindino itunago ipinten nau.... Edegi dabez denda-ateak, eta erosirik hiru edo lau aza eta abar, han nator neure ontzirantz, eta horra non aurkitzen dodan Saponarru okina zorro handi bete ogi lepoan daroala. Jaurtiten dau lurrera zorro hori eta han dator:

- Kaixo, Batxi, aspaldikoa! Zelan habil edo? Hemen jakart ogia nahi badok, ederra gero! Nahikoa barre be egiten joagu hik *Euzkadin* ipinten dokazen arranokeriekin...

- Barre? Eure amaginarrabari egiok... Zaputzeko bat emon ez daikadan gera... eta hartu badaitak hartu... Ahoko haginok guztiok joakizak hor aurreko policemanarengana...

- Hiri zer edo zer jazo jak nor edo nogaz, eta ni nok orain ordaindu behar joadazana inoren erruak... Hor daukak ogi hori... Banoak, agur.

Gogaldi oso txarra daukat, Kirikiño. Ezin ahaztu jataz hor aberri eder horretan egin nebazan egun-txuak, beti norberenen ondoan, norberen senditxuaz jolastu, lantzean barriketaldi bat egin zeugaz... Eta orain, barriz, horko nasan utzi norberen emazte eta

umeak, aberria be hainbat metro atzetik, eta zu be utzi hor txapalketan... Eta ni hemen... urrun... eta hurrengo horrantz noiz joango naizen ez dakidala.

Samintasuna dago bakarrik neure bihotzean!

Apurtxu bat konortera natorrenean bidaliko deusuedaz albiste hutsezko idazkiak, baina gaur hauxe bakarrik, neure bihotzeko adiskide Kirikiño.

OPORKETAREN ZORITXARRAK

Hemen dagoz lotuta Mar Rojo, Olabarria, Salvadora, Pagasarri, Mar Cantabrico eta ez dakit zein gehiago. Cardiffen, Newporten eta hortik dagoz hogeai baino gehiago, denak lotuta. Errukarria da ikustea hemen bertan behera hainbeste balio daben honeek, edozein zirkulutzutan sartuta, inork ikusi gura ez legez. Honeexek dira oporketaren zoritxarrak.

ATSO BATEK HAIZEA HARTU GURA

Sufragistek Londresen erosi dabez haize-ontzi batzuk, eta euretariko bati otu jakon lehengo egunean igon behar zela gora, gizonak egiten dabena berak be egitearren. Igon zen, baina atzera berehala jaitsi zen, ezin zen ba egon luzaro airean. Orain dinoe gizonek, atsoek ez dabela balio haize-ontzietan ibilteko, eta ba-

rriz atsook ei dinoe, haize-tramankulu horreei maki-
nan zer edo zer egin deutsela gizonak eurak zirikatu-
tearren.

CARDIFF ZELANGOA DEN

Guxtiz herri ederra da alboetarantz, kale ederrak
daukaz eta zabalak. Guxtietatik tranbia igaroten da;
zuhaizti, zumardi eta beste gauza asko daukaz alboe-
tarantz. Barriz Cardiff sarrerara etorritz gero, hau herri
guztiau da erdaraz esan ohi den cosmopolita, hemen
ba dena dago nahaste: espainiarrak, euskotarrak, ita-
liarrak, greziarrak eta abar. Barriz txinatarrek kale bi-
osoak eurenak daukiez. Honeek gizonok hain dira
emakume antzekoak, eze soinekoak garbituten ekiten
deutse horko atsoen antzera.

Ingelesak ondo dabilta honeek hona agertu zire-
netik, guxtiz merke garbitzen dabazelako soinekoak,
eta emakume askok baino hobeto. Etxe guxtietan dau-
kie idatzita 'Chiness Laundry', honek esan gura dau
txinatar ikuztailea edo soineko-garbitzailea. Hahor ba,
Kirikiño, honeexek be ederto bizimodua ateraten
dabe, behinik behin idiak apaxkada emoten dauen to-
kian, gu barriz hemen itsaso gainean beti geure bizia
haritxu batean dogula.

Txinatarrak be gu baino gehiago ete diren nago, baina niri honeek ez deuste adarrik joko, ba gaurtik hil gitxi barru horra noatsuenean agertuko naiz txinata-
rrez jantzita lau kanako bizarragaz eta kopeta handi bat buruan, eta hor Plaza Barrian ipiniko dot etxe bat ate-buruan 'Lavandero Chino' idatzita, eta gero dirua nahikoa daukadanean, etxe barritxu bat eginda eder-
to igaro zahartzaroa neure atso motzaren ondoan.

OPORKETA

Albisteak badagoz jakingarriak izango litzateze-
nak, edo askori jagokezenak, baina ez noa bidaltzen ez dodalako gura elkar ikusiezinik. Hahor ba, honeek barriok dira oporketaz.

Badakizue oporraren lehenengo sustraiak hemen urten ebala, eta geure ondotxuan dago lehenengo bertan-behera utzi zen ontzia; eta beste biak be, hur samartxu. Badakie ba *Euzkadi*-ko irakurleek hiru ontzi Maritima Nervion-ekoetan jaio zela gaur itsaso guztian zabaldu den oporketa hori, eta hirurok dagoz hemen-txe.

Zenbat eratara eginiko hitzak entzuten diren, eta pentsatuleike denak dagozela zuzen-zuzen eta, nor-

bera norengana jausi? Nik ez dakit. Behinik behinean hemen asko entzuten da.

Oporketa honetaz asko esan leike, baina neu uzten noa beste batentzako, beste batek egin daiela.

Nik dinodana ez da besterik euskotar onagan ez dagoela opor egitea, ez ugazaben aurka joatea, bake-tsuak eta beharginak garelako, ondo begiratuak izaten garelako munduko toki guztietan.

INGALATERRAKO LARUNBATAK

Joan nintzen lebatza erosten eta urten jatan bidera gizon ondojantzi bat, eta txanpon bat eskatu eustan katilu-bete salda hartzeko.

- Baina gizontxua, zergatik ez dozu lan egiten eta irabazten? -esan neutson neuk.

- Gizona, ba -erantzun eustan-, hemen Barry Dock honetan guztiz dago urri lana, eta ez dago non irabazi txiki bat be.

Errukituta emon neutsozen penny bi, eta kale-musturtxu batetik geratu nintzen begira ea nora joian. Nora joango zen ba? Zuzen-zuzen garagardotegira.

Honelakoxeak dira honeek ingeles gehienok. Ontzia nasa ondoan dago larunbat batean, ehun baino gehiago etorten dira, batzuk alkondarekin, beste ba-

tzuk jaka edo beste jantzi batzuekin, edozein salneurritan saldu gurarik, eta ezer erosten bajake, han doaz diruagaz edaten. Hau tamala! Hain jausita egotea gizonak edarira!

Balitzake hau beharginekin bakarrik, ez leike ikaratu, baina bardin ikusiko dozuez kapela eta makiladun gizonak be, eurak behar daben lebatza aldian dabela larunbata helduz gero.

Eta emakumeak? Honeek arrantotxuok barriz gizonak baino handiagoak oraindino hartu ohi dabez dirua euren senarrei harrapatu ahal deusieenak.

Jakin daizuen zelango edari zaleak diren, hara neuri atzo jazo jatana: banentorren lebatz handi bat lepoan nebala (uretakoa baina), eta nasan egoan neu ontziratu behar ninduen baporetzua, eta bere burua eta makinista, biak egozan lo mozkortuta. Deituten deusot bati, eta jaramonik ez. Besteari, eta bardin. «Demoniñie!, neuk arin bizkortuko zaituet» esanda jaurti neutsen harri handi bat, eta atera eban zarata handira itzartu ziren, eta hasi ziren aharrausika. «Tirozue arin» ninotsen, baina eurak jaramonik be ez. Han datoz gero karabinero bi be. Honeek be hasi ziren zarataka eta halakoren batean jagi ziren, eta urten ginen ontzirantz. Bidean haserretzen dira karabinero biok,

eta ontziburu eta makanista, laurak. Ha zelakoak esan eutsezan elkarri! Laurak egozan sabel-zitela ondo ipi-nita garagardoz, eta ez eutsen ardura ezergatik.

Batak eukan abizena Jones, beste batek Smith, besteak Richardson, eta besteak Ward. Han jakin neban Jones daukiela abizena Londresen esnea saltzen daben guztiek, Smith guztiak kirtenak direla, eta abar. Nik uste neban elkar joko ebela. Bai zera, jo! Ezta! Denak adiskidetu ziren nire ontzira heldu orduko.

Ordaindu behar neutsenean ni ekartea, esan eustan ontziburuak dirua emon beharrean emoteko edontzi bete ardao, eta alaiago zen ardao horregaz munduko diru guztiagaz baino. Horregatino ez dot uste on handirik egin deutsonik garagardoaren gainetik nire ardaoak, ba gaur begia baltzituta daukala ikusi dot. Ha zelango ukabilkada emon deutson nor edo nork! Ez al da izan bere atsoa? Ezetz ez neuke ezer jokatuko, hemengo atsoek ukabilak eurenak dabezelako batzuetan.

Karabinero biak be geure barrura etorri ziren ardaoa edaten, eta azunbre erditxu garbitu eta gero hasten jataz hitz-neurtuak abestuten, bata besteari ontziburuaren jateko gelan, eta azkenean be gura-

nahi-gura-ez atera behar izan doguz. Osterantzean oraindino han dagoz.

Eibarko Garagotxi, inoiz Ingalaterrara bazatoz, larunbatean etorri.

OPORKETAREN ARAZOAK

Lantzean ontzi bateko lagunak urteten dira horrantz trenez. Ontzijaubeek ordainduten deutsie dena, bi Galiziako baporeak, baina hasi zenean zirkia egiten hango harriaren harriak ez eukan amairik, eta ez zen ausartu urteten beldurrez.

Mar Rojo, Olazarri, eta beste batzuk urten dira agintari eta makinista ingelesekin. Baina horregatik gehienak hiru gizon edo barruan hemen dagoz lotuta, askatuteko antz asko barik.

Sota-ren etxeko ontzietan gabiltzanoi deuskue gorroto handia. Kirten batzuk ei gara gu, halan dinoe eurek. Zer egin geinkio ba!

INGALATERRATIK ALBISTEAK

1914ko maiatzaren 21ean

BILBOKO ITSASONTZI BI SALDUTA

Mar Cantabrico eta Mar Baltico deritzen ontziak saldu dira hemen eta ingelesek erosi dabez. Oporketa-
ren zoritxarratik dagoz oraingoan Bilbaon ontzi bi
gitxiago.

ITSASTARREN ASMOAK

Ingalaterrako itsastar elkarte guztiek hartu dabe
asmoa dei bat egitea Europako beste guztiei, eta
denen artean eskatu daiela estatu guztietako itsasta-
rren alogerak bardinak izan daitezela; mundu guztiko
gizonak bardinak direla, eta irabazi be bardin egin
behar dabela.

Oporra iragarrita daukie hemen be itsastarrek
ekainaren azkenetarako, diru gehiago gura dabela-
eta... Eskatzen dabez sugileentzat zazpi libra eta le-
marientzat sei. Eta honez gainera, txinatar gizonik ez
hartzeko ontzietan, edo bestela egin daiela horretari-

ko batek europar batek egin ahal dauen lana, eta orduan irabazi be bardin.

NEURE USTEA

Hemengo itsastarrek dinoe txinatarrok egin daiela eurak adina behar edo lan, bardin irabazteko. Zelan egingo dabe ba balde-bete ur eroateko behar badira lau gizon horreetarikoak? Honez gainera, errua daukie hain makalak jaio direlako? Eta, ontzijaubeak ez dagoz zuzen lauri emoteaz hemengo gizon baten alogera, beharra be batena lauk egiten badabe? Ene demoniñie! Nori nago ni itauntzen honeek kirtenkeriok?

Hara, Kirikiño; Txina aldera doazen ontziak, hara helduaz jaurtiten dabez amuak eta amuzkia, eta han dakarrez txinatarrak inurria baino ugariago ontzira. Banana gordinekin eta nabo-orriekin elikatzeko morroiak diren legez, ez daukie txepetxek beste indar. Berehala emoten deutse askatxuetan arroza egosita uragaz bakarrik, eta eurentzat hori banketea da. Hilerokoa be emoten deutse libra bat, eta eurak han dabil-tza, niri aitaren praka zaharrekin amak barriak egiten eustazanean baino pozago. Soka batetik tiratu behar bada, han datoz ehun eta hamabost gizon, eta hantxe egiten dabe hemengo hogeita bostek egiten dabena.

Eta kitu. Oherik be ez dabe behar, soinekorik be ez, jateko barriz arroz egosia. Non honeek baino gizon merkeagorik? Ostikada bat emonda han doa txinatar bat airean, jausten da lurrera, hilten da, hartu eta itsasora. Eta ez dago inori haren barri zertan emon.

EZKONDU ETA HEGAZ

Burtisland-en neska-mutil bik egin dabe eroan aeroplanoa eliza atera, eta bertan jarrita dagozela ezkondu, eta gero hegaz ihes egin. Batek baleki nora! Eta neska-mutilon aita-amak larri dabilta non ete diren.

VENEZIA-TIK

1914ko maiatzaren 19an

Arraiz baporeagaz heldu ginen Venezia deritzon Italiako hura, eta asko gure anaien artean egongo diren legez huri hori entzutez baino ez dakienak zelan-go den, hara ba. Herri bat da kalebakoa, kaleak euki behar leukezan tokian daukaz ibaiak, eta bertatik tranbiak eta kotxeak ibili beharrean dabilta ingelesek ferryboat deritzen ontzi txikitxuak. Etxeak denak dagoz ur ondoan, eta etxerik ez dago bere atean gondola edo txanela ez daukanik. Kipula baten bila joan behar badabe, indarrez txanelean joan behar da. Guztizko jauregi ederrak dagoz, eta guztiz jende asko urrunetatik etorten da antzinako arte gauza ederrak bertan dagozenak ikusten.

Huriak daukan tokirik ederrena Piazza di San Marco da, guztizko plaza ederra. Bertan da La Chiessa di San Marco, oso eliza ederra eta gelgarria; hainbat uso dagoz bertan eta ibilten dira oinez plazan bertan eta inork be ez deuse ezer egiten. Askok eguna igaroten dau txakur-handi batzuen alea edo garauna erosi eta usoei jaten emoten, eta jatearren norberen

eskuraino etorten dira. Hurizainak barriz zuhur egoten dira, osterantzean erraz-erraz uste dot granujaren batek egingo ebala usotxu bigunekin afaria.

Hantxe bertan egoan eta bizi zen Karlos jauna, erreketeroen Jaimeren aita. Larri egoan gizajoa jakin arte zenbat karlista egoan gure ontzian. Eta bidali geuntson albistea denok ginela karlistak. Hori jakin ebanean gaztigatu euskun joateko bere etxera, eta han goaz gu. Bere alabak emon euskun kopa bana jerez, barriketaldi bat egin eta gero. Etxe bat ederragoa eukan... Mutilak, ha zuan etxea! Atezain bi egozan, biak gipuzkoarrak. Txapel gorriak eukezen buroan eta soineko azulak. Bapore txikitxu bi atean lotuta espainiar ikurrinez beterik; jauregiko leiho guztiak itxita, eta hantxe egoan Karlos bere aberritik urrun... eta bakarrik. Berrogeita hamar puru bidali euskuzan ontziko denentzat urten ginenean, eta honez gainera bere idazkaria bidali euskun eskerrak egiten, ikurrinagaz agur egin geuntsolako geure albotik igaro zenean igande batean beren ontzitxuagaz egurastuten ebilela. Puruek gomutatu eragiten euskuen ba gizajo handia lantzean bat erreten genduenean. Goian bego.

SFAZ-ETIK

1914ko maiatzaren 19an

Utzi genduen atzetik ba Venezia eder hori eta, badakizue nora etorri ginen? Sfazera. Ete dakizue non dagon herri arrano hau? Uste dot ezetz; baina ez da ardura, neuk esango deusuet. Herri hau dago Afrika-ko Aljeriako itsasertzean.

Heldu ginenean ontzia lotu, eta gauean han goaz zelango morroiak han bizi diren jakitearren, hartu genduen Ali eritzon baltz bat lagun, eta erakutsi euskun herri guztia. Kale batetik ginoazela entzun genduen musika mota eta abesti inork aditu ezin ebazanak. Itaundu geuntson Aliri ea zer zen, eta erantzun euskun moroen kafetegia zela eta ezin eitekela europarrik hara sartu, galerazota egoela-eta. «Ondo dago», esan eban nigaz egoan Gorlizko batek, eta saria emon beharrean, horixe berorregatik okotzeko bat emoten deutso Aliri, eta han doa hankaz gora. Han utzi Ali negarrez, eta bagatoz ontzirantz, eta sartzen gara bar batean, eta ordu erdi inguruan egon be bai bertako ugazabagaz hizketan. Honeetakoan guk ikusten genduen jende asko etxe aurrean baina ez ginen ohartzen

hareek guri itxaroten egozanik. Baegozan han gitxie-
nez ehun moro, gertu geu hilteko, eta gu han gengo-
zan ben-ben ezer ez balitz legez, eta halako batean
badinosku etxeko-andreak:

- Mutilak, galduak zarie.
- Ez dago beldurrik -inoan gorliztarrak.

Geroago eta jende gehiago egoan etxe aurrean.
Halako batean han goaz gu kortara. Moro guztiak or-
duan korta ateetara joan ziren. Ikusten doguz kortako
untze batzuetatik eskegita egozala moro jantzi ba-
tzuk, ipinten dogu bana, eta han goaz kalera bar ate-
tik. Moro guztiak egozan korta ateetan zain handik ur-
tengo ginelakoan; euren artetik sartu ginen, eta inork
ezagutu be ez.

Ederto gengozan jantzita, inork ez ginduen ezagu-
tzen, eta dino gorliztarrak: «orain kafetegira goazen»,
eta ben-ben sartu ginen moro-etxe horretan, eta jarri
be bai eurak legez zabal-zabal lurrean. Eskatu gen-
duen kafea euren hizkeran, eta hartu be bai. Halako
batean ezagututen gaitue, eta han datoz lau baltz geu
joten. Ibarrangelutar batek jaurti eutsen eskuan eukan
edontzia aurpegira, berehala beste batek kurtzulu
guztiak jaurti ebazan leihotik. Ha zen zalaparta! Agur
hango moro guztiak, denon jabe egin ginen eta goize-

ko ordu bietan heldu ontzira txakur-txiki bat barik, baina moroen kafetegiko kurtzulu eta edontzi guztiak apurtuta.

Biharamunean be joan ginen aurreko egunean legez jantzita, eta inork ez euskun jaramonik egin. Zer ba? Beldurra sartuta geunkezan-eta.

Sfaz herri guztiz txiroa da. Han ez dago ezer be; bertara etorrita dagozenek nasako fosfatoaren gainean lo egiten dabe, eta gehienek soinekorik bat be barik ibili ohi dira kalerik kale, bakar-bakarrik ontziren batean osturiko zorro zahar-zaharren bategaz atze-aurreak estalita.

Herri bi dagoz, bata europarrena eta bestea bertako semeena. Bigarren honetan hainbat lantegi dagoz behar politak egiten dabezenak, bai burdinagaz eta bai egurragaz, baina dena behean jarrita. Errementariak, esaterako, jarrita hauspoari eragin, jarrita galda atera, eta jarrita mailuketan egin. Halakoxeak dira arranook.

Europarren herrian bizi dira moro aberatsak, launa eta bosna emazte daukiezenak, eta batzuk zortzi be bai. Lau baeukazen guk okotzekoa emon geuntson Alik be, berak esan euskunez.

Moroak ez dira urdai-zaleak, baina behin harrapatu genduen baltz handi bati jan eragin geuntson zati galanta lau euskaldunen artean. Onak ipinten ebazan berak ezpainak!

Hantxe bertan utzi genduen hobiratuta Atxurra eritzon abertzale lekeitiar zintzoa, gaixo zoritxarreko bategaz hilda. Goian bego.

GENOA-TIK

1914ko maiatzaren 31n eta ekainaren 3an

Heldu gara kai zorioneko honetara denok osasun ederragaz, eta baita be etorri jakuz betiko ikurtzaleak helduaz batera: oinetakogileak, jostunak, bizarkentzaileak eta abar. Batzuei herri-agintariak heltzen ei jakez musika eta guzti ontzira, baina guri begiratu eizue zelango zarrapazteria.

HOR DAGOZEN LEGEZ HEMEN BE

Ehun eta berrogeita zazpi bapore italiar dagoz kai honetan lotuta, euren jende guztiak lehorrean dabela. Itsastarrek ba hemen be oporra egin dabe, ontzizau-beek agindu eta emon ez egin deutsieelako antzina-txoago eskatu ebezan hobekun batzuk.

TXIROTASUNA LEHORREAN

Hainbeste ontzi lotuta dagozen lege, hartu-emo-nik gehienak be geldi dagoz, eta salerostea geldituz gero dirurik ez dago, eta horrek darabiltza larri he-mengo dendari asko. Miseria handia dago ba oraingo-an herri eder honetan.

HEGAZKINETIK URETARA

Angostenelli eritzon hegalaria bat bere tramankuluaz haizean ebilela jausi zen itsasora hegazkin eta guzti. Arin joan ziren jausi tokira, baina bera ezin izan eben idoro, bakarrik tramankulua.

ARRANOKERIAK

Viarreggio-ra heldu da atzo Amerikan hamalau urte eginda Francesco Paracini, eta etxera heldu zene-ko egin eban lehenengo beharra izan zen lau tiro emon bere amaginarrebari. Hara joan zenean haserre-tuta joan ei zen, eta zin egin ei eban ez zela inoiz eto-rriko, baina hamalau urte igarota gogait egin dau morroi horrek Amerikan eta bidean hartu dau asmoa amaginarreba erahilteko. Eta etorri denean, dinbi-danba han joiak atso hori lurrera luze.

Egunkarietan bere izena argitaratzearen ez al dau egin gero?

Ba, gure herrian holantxe heldu zen behin Ameri-kan hainbat urte eginda eta guztiz aberastuta morroi bat, eta helduaz batera Bilbaoko kale guztietan ibili zen bere burua erakusten; jateko be sartu zen jetetxe-rik ederrenetara, eta gero kafetegi onetara. Azkenean

heldu zen Atxurira puru handi bat musturrean ebala, eta han doa lehenengotariko bagoian. Hurrengo egunean erosi ebazan egunkari guztiak ea bera aitatuten ete eben... Eta ezer be ez! Han dator atzera Bilbaora, gaixo-etxean eta hortik-hemendik bananduten dau hainbat diru, erosten dau automobil bat, geldituten da egunkari guztien ateetan ikusi daien, badoa Gernikara, erosten ditu egunkariak... Eta bardin! Jaungoikoak bakarrik daki zenbat ahalegin egin eban gizajo horrek bere izena egunkarietan ikusteko, baina dena alferrik. Azkenean otu jakon gogait bat, eta baita lortu be bere guraria: eroan etxe aurrera bere amaginarreba, zigor bategaz estu, eta urkatu eban intxaur zuhaitzetik eskegita.

Biharamunean egunkari guztiek ekarren bere izena eta abizena, eta beste zertzelada.

ESPOSIZIONE INTERNAZIONALE DE MARINA E IGIENE

Via XX Settembre, hemengo kalerik nagusienetik aurrera joanda dagoen zelai batean, Vittorio Emanuele Italiako erregeak edegi dau lehengo egunean erakusketa hau.

Erromatar erara egindako hormadun ate handi eder batetik sartzen da eta hara, barruan zelango edertasunak dagozen. Sartuta eskumatara dago etxe luze oin bidun eder bat, eta bertan lehenengo sarre-ran dagoz agerian Italiako eta beste herri askotako ar-tisten beharrak marmol-harrian eginak. Han ageri dira behar ederrak.

Hara neuri zeintzuk gehien begia bete deusten: ama on eder bat dago bere umeari txera egiten, eta beronek ahotxua biribilduta mosu opaten deutso amari, eta honek aurpegiari alde eraginda irribarreka ez deutso uzten. Beste bat: «Aberriaren maitetasuna» deritzona deiez dago lagunari ikurrina bular gainean ondo estututa. Beste bat: umetxu polita beldurtuta aulki gainean aulkipean katua olgetan dabilelako. Beste bat: ume bat itsasertzean arrantzuan dabilela karramarro batek oinetik oratu deutso eta negar ba-tean dago. Beste bat: «Itsastarren agurra» deritzona, gizona mosu egiten bere umetxu bati, emaztea eta ama negarrez alboan dagozela... Ene, amaitu be ezin leikez han dagozen irudi artistikoak.

Bazoaz aurrera eta ikusten dozuz antzinako kutxa zaharra eta aulki balio handikoak eta maitegarriak ja-kitedun jendearentzat. Han dagoz orain berrehun ur-

teko arma eta guda-tresna guztiak. Alderdi askotatik ikusten dira arabiarren lan asko, eta bertakoen soineko, jantzi, kapela, oski, eta holako gauzak; eta bestetik hemengo denda guztiak han erakusteko daukiezen ohe, mahai, eta beste etxe-erredizak, eta denak bakoitza bere gelatan, goiko aldean dabela idazkuna norena den adirazoteko. Hantxe dago Austriako enperadorearen gela be orain ehun urte berak eukan legez, tresna bat be falta ez dela.

Aurrengo dagoz Afrika aldeetako arraza guztien aurpegikerak eta euren janzkerak eta euren ekanduak idatzita, eta euren herri guztien planoak paper handietan ipinita. Gero eskailera batetik igoten da gora, eta munduko toki gehienetako jakite-gauzen edo jauregi edo irudi edo holakoen irudiak dagoz. Honetan Alemaniak daroa txapela, honexek daukazelako irudirik gehien. Espainiakoak bakarrik dagoz antzinako hiru soldaduren soinekoen irudia, Zaragozako Pilar deritzon eliza, San Ildefonso, Escorial, eta Madrideko erregearen etxe eta zumardiak, eta kitu. Denak daukie Espainiak baino gehiago (hau ez dinot Espainaren txarrik esatearren, egi-egia da). Portugalek be askozaz irudi gehiago daukaz.

Handik urtenda sartzen gara itsastar gauzak dagozen gelara. Han ikusten dira gudontziak, bidai-ontziak, itsasertzetako argiak, ontzi-makinak, arma handi edo kanoiak, turbina deritzen makinak, dinamoak, eta azkenez itsasoan behar diren gauza guztiak. Italiako ontzigintza guztiek daukie euren gela, eta hantxe daukiez erakusten euren aurrerakuntza guztiak. Bertan dagozen ontzi-makina eta enparau guztiak dira behar den legez eginak, eredu txikietan egon arren. Itsasertzetako argiak denak dabilta txirtadaka aldirik aldi, euren tokietan balebiltza legez; makinatxuak be badabilta handiak edo benetakoak legez. Ha da ikustekoa!

Berton dagoz oraintsuengo erara egindako kanoiak, ipinita behar den legez eta 15 metro baino luzeagoak direnak. Baita be inon diren galdara, makina eta guda-tramankulurik ederrenak eta barrienak.

Handik urtenda sartzen da bat beste etxe batean, eta han dena da barriz alde batetik Afrika aldekoen beharrak galtzuagaz, linabatzagaz eta holan. Bertan ikusten dira egurki klase guztiak Afrikakoak; honez gainera, beste aldetik ontzietan jatekoa egiteko lapiko, azpil eta tresneria guztia, baita bertan dagoz gela batean hemengo okin bikain batek erakusten dabezen

opilgogor edo galletak urrun doazen ontzietarako. Han ez dago ezeren hutsik; guztirik dago.

Han dago Via XX Setembre eskumako aldetik, eta barriz ezkerretik dagoz antzokia eta beste holako kirol toki batzuk. Nahi dauenak kafea edo garagardoa hartu, nahiz jaten edo edaten ondo jardun, bertan dagoz kafetegi eta jetetxerik ederrenak. Zeu jaten zaigozen artean musikak alaituten deusue gogoa munduko samintasunak alde batera utzita. Han-hortik ja-tortzuz neskatilak usain gozodun urak saltzen, lorak eta abar. Iturriak guztiz ugari bertako erdi-unetan, hor-hemen ur-txorroak gora-goraka urteten direla txiri-txirika; zuhaitz ugari mardo ederrak, azpian aulkiak dabezela, bertan aldia igaroteko. Haxe bai dela Zarrontzalek esango leuken «paradisu terrenala!».

Itsasontzietan lata-pote edo honelako asko edegi behar izaten da, eta hemen dagoz aizto batzuk kir-kir edozein tokitik ebagiten dabenak, baita badagoz tramankuluak patatak alde batetik sartu eta bestetik zurituta eta txikituta ateraten dabezenak. Lukainkak egiteko be guztizko tramankulu ederrak dagoz.

SAGUNTO-TIK

1914ko ekainaren 21ean

Ostera be kai zorioneko honetan gagoz, bertara jo dogu hainbeste itsaso igaro eta hainbeste tokitatik ibilita.

Herri hau, Euzkadiren zati txikitxu bat legez da, ba hemen dagoen guztia euskotarrena da, eta nire ustez zatirik txikienik be ez daukie beste inongo tokikoek.

Valentziarren batzuk, beharbada, oraingo esan dabe: «horreek morroiok kezkaz ibili ohi dira atzerritarak euren herrira joan ohi direlako, eta barriz eurok hemen datoz geure herrira bizibide bila». Arranoa! Hori egia da, baina euren bizibidea atereaz batera inork ez deust ukatuko hainbat laguni jaten emoten deutsenik.

Hemengo Cendoya plazan atzo txerpolari batzuk egin ebezan kirimilkeria batzuk. Han egoan emakume eta umekeriak azkenik ez eukan; neure lagun Omarrementariak bainostan:

- Batxi, hamaikatxu elikatuten jok horregatio meatz-konpainiak.

- Bai -erantzun neutson-, mordo ona jagok hor.

Eta berehala hasi nintzen gogoraketan neure artean, badagozela munduan gizonak mun eginda hartu behar leukiezanak, herrietara daroezelako bizia, ogia, lana eta hainbat sendi txirok euren umeak elikatzeko era.

* * *

Albisteak? Ez jakiat, heldu baino egin ez dogun legez oraindino ez dot ezer sumatu hemendik. Dena dago lehenago legez, etxeak lehengoak, ke-zuloak lehengoak, kafetegiak eta abar asko gehitu dira, ba orain atean bat dago ia.

Txerpolariak zuek be sarritan ikusiko zenduezen, ezta? Ba, lehen esan deutsuedan legez, nik be ikusi dodaz hemen eta ez uste izan gitxi zirenik; hamabiren bat baziren eta upielako antzoki funtzioak emon dabez bart, pozik egoan jendea ikusten *La niña perdida en el mar*, lehenengo zatia eginda gaztigatu ebe-nean atabaka igaroko eutsela aurretik: «Ene, hau du-barik ezta ba?» elkarri esanda, jezarlekuak hartuta denak abiatu ziren arin etxerantz, hasten da zarataka txerpolari-burua: «Respetable público», baina inork jaramonik be ez.

Mutilok, gauza estimatua dok dirua toki guztietan! Hiru txakur-txiki ez ebazan batu gizajoak. Eskerrak gero oilar argal zahar bat zotz egiteko ipini ebala, txakur-txiki baten txartela, eta atso baltz ipiski bati urten jakon. Berak esan eban gaur gauerako arrozagaz ipini-ko ebala, baina ez jakiat! Ha jateko hagin erreskada on bi beharko dauela-eta nago.

Nere bizi guztian ez dot uste idazki tentelagorik egin dodanik, ez daukat lanerako gogorik eta. Bero handia egiten jok hemen eta, hor eguerdi ingurura ez-kero txakur zuria aldean dau batek, eta ezin gero zir-kinik egin.

Hauxe berau jazo jakon gure herriko Petornille Tri-perreren emazteari be. Beti egoan bere agureari esaten noiz utziko eutsan egun bat aske, señorak lege-egoteko. Urteak joan urteak etorri, egun batean Tripe-rrieri burutik ia eragin eutsan atsoak beti bat esaten eta otu jakon Petornilleri egun bat señora uztea.

Jagi zen Triperre ohetik eta han ebilen katiluak gar-bitu, eskaratza itsuskitu eta abar egiten. Zortzietan jagi zen Petornille ohetik eta jezarleku handi batean jezarri zen, eta han egoan abaniko bategaz haize eta haize: «ekartzu txokolatea» inotsan senarrari. Bien bi-tartean han ebilen gizajoa, esnea erazten joan eta sua

amatatu jakon. Esnea egosten ipinita joan zen txerriari jaten emoteko uretan eta han doa esnea gainez. Taloa erreten ipinita badoa abereei jaten emoten, eta talo hori kakarraldoa baino baltzago. Bat be ez eban gosaldur, eta han doa bedar ebaten eta etorri zenean, atsoak oraindino txokolatea eta txokolatea eskatzen eutsan.

«Bai? Oraintxe ikusiko dozu eginda», gorosti adakiaz emon-ahalak emon eutsozan. «Neuk aterako deusudaz zuri señorakeriak» inotsan. Eta jipoia bero-beroe gin ondoren, beretzat gosaria ipini eragin.

Horixe egiten ez badeuste neuri be apurtxu bat bizkortuteko, ez jakiat, idazkiak egiten ahaztutera edo joat-eta.

DURBAN-GO EKANDUAK

1914ko uztailen

Behin joan ginen Afrikako Durban deritzon herrira be. Ontziak atxurrak hondoratuta gero heldu jatan ship chandler portugaldar bat eta badinost ia herrira joan-etorri bat egin nahi neban. Baietz esan neutson, eta han goaz itsasontziño batean sei baltz arraunlari-gaz. Ia nasara heldu ginenean hasten naiz adi, bazen han zarata, eta nire lagunak inostanez, neuri deiadarez ebiltzan.

Ni heldu eta behingoan batak kendu eustan otzara, beste batek hartzen nau arrelepo eta han naroa burdira. Joten nau ni arretxiko naroana musturretan beste batek, eta hartzen nau gero lepoan eta banaroa bere burdira. Han nenbilen ni burdi batetik bestera, eta guztiz nengoen ikaraz hainbeste baltzen artean. Hau igarri eban ingeles agintari batek han egoanak, eta berehala deitu eutson bere ezagun burdidun bati, eta harexegaz azkenean be joan nintzen.

Irakurle askok esango dau beharbada: «a zelako gauza egingo zenduen burdian joateaz». Ba ez uste han zaldiekin dabiltzanik burdiak, oker egongo zarie-

eta. Han zaldi orde gizonak ibiltzen dira aurretik, eta norberari emoten deustie eskua latigoa atzetik di-da emoteko arin egiten ez dabenean.

Ni banindoan neure burdian azokara, eta ez nintzen heltzen. Nire albotik igaro zen frantses ontzi batego hornikaria oinestua baino arinago, eta neure zaldiari itaundu neutson ia zergatik ez doan ha legezt, eta erantzun eustan emoteko sei penny gehiago, eta gero aske utziko deustala latigoa erabilten.

Bai? Eutsok ba... Hasten naiz emoten, nongo frantsesa? Laster geratu zen atzetik, baina ha ez zen abia-da. Oinestua baino arinago ginoazen.

Heltzen gara plazara, erosten doguz janari batzuk, zamatuten dogu burdi hori goraino, jarri zen zaldia aurretik, hartzen dot uhala... Nork ikusi gu? Ez dago automobilik munduan gu beste ibilteko.

Heltzen naiz neure aza eta abarrekin nasara, eta han egozan txaneleko sei baltzok gertu. Sartu eta jertzaren naiz txanelean... baina ibili? Hareek eukin galbana!

Handik gerotxuago hara non ikusten dodan herri-rantz etorrela ontziburua beste sei baltzekin, baina tximista baizen arin. Begiratuten dot ondo, eta upiela-ko zapladak eragoion emoten ezker-eskumatara.

Arraiaetan! Hemen be latigoa behar da? Hasten naiz zartadaka eta beldurrez-edo han joak baltz bat uretara. Gura nabere atera, baina besteok esan eusten uzteko, ondo dagoela eta ez zela itoko. Arin heldu nintzen ontzira.

Ikarateko herria da ha, gizonak soinekoekin ibili beharrean, gorputzak pintatuta daukiez hainbat koloregaz, eta emakumeek barriz lepoen gainetik emon ohi deutesie umeei bularra, eta gehienak ibili ohi dira bilutsik, sudur mintzetan uztai handiak sartuta dabezela, gure aldeko idisko gaiztoen antzera. Etxeak euki beharrean zuhaitz abarrezko eskepeak daukiez, eta frutekin eta gauza gordinekin elikatu ohi dira.

Noizik noizera puskat harrotuta zeozertan hasten badira ingelesak aurka, berehala jaurtiten dabez han dagoen gudontziek hiru edo lau putz, hil baltz pilo bat, eta gero dena isil-isilik.

Hango errege Ingalaterra da. Baltzei lana ziper eragin eta ezebez bat ordaindu, eta dirua nahikoa ipini eurek Londresko banketxeetan.

Inork ez leuke sinestuko zelan bizi den han jendea. Ikusten dozuez txakurrak zelan joan ohi diren denak elkarren gainera hazur bat edo beste baten batek jaurtiz gero, ba halantxe joan ohi dira hango behargi-

nak be ontziaren albotik ogi-hondakintxu bat inork botaten dauenean. Hareek bai direla errukarriak!

NIRE LEHENENGOZ BUENOS AIRES-ERA JOATEA

1914ko abuztuan

Ni lehenengoz Amerikara joan nintzenean, ontzian euskaldunik lau edo bost genbiltzan bakarrik: bat Txapel ibarrangeluarra, izan daitekeen gizonik kirtenena eta bekaiztiena, beti uste eban beratzaz esan ahalak esaten egozela. Begibakarra zen, eta behin Liverpoolen txapela ahaztu jakolako garagardotegi batean Txapel ezizena ezarri eutsen.

Ontzia zama hartzen egoan, eta hainbat ingeles egozan barriketan han egoan eliza zahar bat dela eta ez dela. Ingeleraz elizari *chapel* esan ohi deutsie, ia jausian egoan legez ha eliza, eurek esaten jarduen txarto egoela eta hau eta bestea. Txapel eskaratz aurrean egoan, jotzen azpila eskuan ebala eta zuhur ia beratzaz esaten ebiltzan hareek hizketan. Eliza edo chapel-tzaz bai eragoioen morroiak txarra zela esaten, eta hau adierazten dabe *very bad* hitzekin. *Chapel* eta *very bad* entzun ebazan ondo Txapelek, eta joan zen behingoan Paskasi bigarren agintariarengana itaundu-

ten ia zer esan gura dabenhitz hareek. Eta honek, zirikatzearren badinotso Txapelek begi bat daukala esan dabela.

Emon ebazan zartadekin eskua zulatu jakon Txapeli, eta ontziburuak bidali ninduen osagile batengana ia ireki ahal eutsan. Sartu ginen osagi-gelan eta han gengozen itxaroten. Halako batean badator osagilea eta, hau ikusiz batera, hasten da Txapel alarauka. Baina gizona, oraindik ez badeutsu oratu? Halako batean oratu eutsan gaineko zapia kentzeko, baina Txapelen zaratekin uste eikian txarriren bat hiltzen egoela, eta hau ikusirik eta zaratara hurreratuta hainbat jende atean egoela, osagileak ireki barik etxetik atera ginduzen.

Han ginoazen eta bidean topo egin genduen zaldun bat hiru bizitzako kapelagaz. Ha atzerritarrak gixela ezaguturik, begiagaz keinu egin euskun. Ikusten dau Txapelek, joten dau kapelan eta sartu eutsan belarrietaraino. Badatoz beste hiru edo lau eta denekin ebilen ukabilka. Ederto ireki jakon eskua, baita espetxera eroan be, eta han egon zen harik eta ontziburua bere bila joan arte.

Hogeita hamar egunean heldu ginen Argentinara. Ikatzaren bila be joan ginen San Vicente deritzon por-

tugaldarren herrira. Inoiz ez dot ikusi herri ha baino txiroagorik. Bertako biztanleak baltzak dira eta gehienak biluzik dabilta. Uharteak da zuhaitz bat bakoa, bedar bat be ez da ageri, ez dago urik be, hau beste uharte batetik ekarten dabe berarizko ontzi batean. Dena da txirotasuna, dena gosea. Zazpi edo zortzi ingelesez eskuetan dago hango saleroste guztia.

Argentina! herri zabal handia. Egun inon ez dot ikusi han beste gosekil, euskaldunak be zenbait. Neure otzariagaz herrira urten baino ez neban egin, hainbat ezagun ikusi nebazan. Errukarriak! Euretariko batzuk egozan hainbat egunean gauza berorik irentsi barik. Berehala bik eskatu eusten ia jateko pixka baten bila etorriko ziren. Baietz esan neutsen, eta etorri ziren ontzi barrura. Errukarria zen hareen historia: bata Kortezubikoa zen eta bestea Lekeitiokoa. Honeek esan eutsien euren lagunei nire ontzian jaten ebela, eta hurrengo egunean han datoz lau gehiago, eta honetara egunik egunera gehitzen joan gosekil kopurua, eta azkenean hainbati ezin emonik, denekin haserretu eta ontzitik atera genduzen.

Bertan egun batean aurkitu neban Lankara eritzon adiskide bat, neugaz ibiliriko agintaria. Nik entzutea neukan ontziburu han ebilela, baina zelakoa izan zen

nire ikara goseak hilik eta zorritzurik ikusi nebanean. «Batxi, errukitu zakidaz» inostan, eta bere negarrak ikusirik hartu neban morroitzat ontzi barruan, eta eka- rri genduen honantz nik aberastuta egoela uste neban Lankara. Urtebetean ibili zen kanpoan lo egiten, eta ontzietatik jaurtitzen eben jatekoa hartzen, arranoke- riak be noizik noizera egiten ebazan espetxera eroan eien, baina han be jatekorik emon barik atzera atera- tzen eben.

Euskaldunak, ez egin hara joateko biderik, ha gal- duta dagoelako turkiarrei bideak edegi deusieezene- tik hona. Argentina guztia bete da honelako jendemo- duz, ezer txarrik egiten dabenean, idiskoak basoan legez atrapatzen dabez lazoaz fabriketako ateetan. Goizetan kaleak garbitzeko ur-mangaz uxatu behar izaten dabez, eta edozein bazterretan lo egiten dabe, eta edozein sarigatik behar.

Argentinako huriak galduta dagoz. Han ez da erli- jiorik ezagutzen, han ez da inor ezkontzen elizaz, eta errukarriak hara otsein izateko doazen neskatilak!

Horratio hantxe be guk euskotarrok badaukagu etxea, gure ekanduen usaina sumatzen dena, hemen- go neskatoak etxe honetara bidaltzen dabezena, he- mengo dantza garbiak egiten direna eta hemengo

abestiak entzuten direna. Berau da Euzko-Gaztedija deritzon etxea Venezuela kalean.

Hemengo jendea be berehala ohitu ohi da bertako ekanduekin, batez be emakumeak; mate-ontzia ezpainan beti dabela alfer-alferrak egin ohi dira hara doazenak.

MIDDLESBROUGH-ETIK

1914ko irailaren 11 eta 13an

Hilaren zazpian heldu ginen Ushant deritzon Frantziako uhartera, frantziar gudontzi handi batek gelditu ginduenean gure agiriak eta abar ikusteko. Berak adierazi euskun egun bat lehenago ingeles gudontzi handi bat joan zela alemaniarrek ipiniriko mina bat jota: hirurehun baino gehiago ito ziren. Goian begoz errukarriok.

Lehengo egun batean ingelesek gelditu eben alemaniar arrantzuko ontzi bat frantziar ikurrina adarkian jarrita ifar itsasoan ebilena minak ipintzen: 300 baino gehiago dira eurak jaurti dabezen minak eta salerosle-ontziak guztizko arrisku handietan dabilta. Ontzi guztiak itsaskatuten dabe txanelak gertuta badaezpada. Negargarria da itsasoan ibiltzea.

Itsasertzetako argi guztiak dagoz amatatuta eta bakarrik egunez itsaskatzen dogu. Ingalaterrako arrantzuko ontzirik gehienak dabilta atzetik sare handiak dandarrez dabezela minak atrapatzen, eta sarritan eurak atrapatu ohi dabez tramankulu itzel horreek.

Hasi Dover-en eta harik eta Middlesbrougheraino, erreskadan dagoz berrogei gudontzi baino gehiago, denak bata besteen hur samartxu, eta gertu su egiteko, behar balitzake igarotzen diren ontzi guztiei agiriak eskatzen deusieezela.

Azukrea, koipea eta beste gauza asko, Ingalaterrara inondik ekarri behar dabezenak, guztiz dagoz garesti: inork ezin leikie oratu. Baina, barriz, patata eta beste gauzak, berton dagozenak inoiz baino merkeago.

Kale guztiak dagoz ikurrinez beterik eta ez dago ingelesik txartesen alozan orratzik ez dabilenik lehen esan dodazan koloreekin. Denda guztiak dagoz ateak ikurrinez beterik, eta kalerik kale dabilta mutil txikiak errege, gudontzi eta guda-agintarien irudiak saltzen. Lehen esan dodan dendetan zer edo zer erosiz gero, idazki-azalak emoten dabez Ingalaterraren oroigarritzat erosleak euki daizan.

Lantegiek behar egiten dabe, ontziak badabiltza, salerostea bere bidean dabil, baina begiratzen badeutsozu edozein ingeles aurpegira, berehala igarriko deutsozu bere bihotzaren barru-barruan daukan samintasuna.

Ingalaterrak badauka itxaropena, baina Ingalaterra itun dago. Eta egoteko be bada, hainbat seme ederrren odola ibaiak legez jausten ikusita.

ABERTZALETASUNA

Antzoki guztietan gauero egiten diren antzezkie-tan eta zine, music-hall, eta beste enparauetan, ez da besterik ikusten Ingalaterran dagoen abertzaletasun zintzoa baino. Antzezki guztiak dira aberkoiak, eta eurok amaitukeran erregearen irudia agertuta *God save the King* abestukeran igarten da Ingalaterrako gizasemeen zintzotasuna.

GOMUTAGARRIA

Ingelesak *God save the King* abestukeran zutunik eta txapelak kenduta, gogoko begiak bihurtuta zerurantz eta euren bihotzak aberrirantz, gomutatu naiz neure urruneko anaiekin, zeuekin euskal abertzale laz-tanokin, *Euzko Abendaren Ereserkija* abestu ohi dozuenean bardin egoten zarielako.

ZER DINOEN

Itaundurik hemengo edonori albiste onak ala txarrak daukiezen, beti dinoe albisteak onak direla.

Egunkari guztiek ez dabe egiten besterik Ingalaterra goratu baino.

Itxaropen handia dabe garaipena euren izango dela.

Denek dinoe oraingoan alemaniar bat be ez dela geldituko bizirik.

GURUTZE GORRIKOAK

Honeek atzo egin eben bilketa bat, txakur bategatik saltzen eben ikurrin txikitxu bat, alde batetik *God save the King* eta bestetik estatu-koloreak eukezana.

Hainbat batu eben, eta txanponok ziren gudako zaurituak osatzeko.

GAUZAK ALDATUTA

Lehenago itsastarrak noiz edo noiz Espainiako hongerleko bat nahi gendunean trukatu, bertoko diruagatik ez euskuen emon nahi txilin bi eta hamaika penny baino. Baina orain pozik emoten dabez lau txilin eta penny bi be. Orain horko txanponagaz gabiltzanean esan daikegu dirua daukagula sakelean be.

Harro gagoz.

CARGO FLECT-ETIK

1914ko irailaren 15ean

Atzo guztiz ikaratu nintzen gauza bategaz. Antzoki guztietan antzerki aberkoiak egiten dabez eta, jakina!, zati bakoitzaren amaitzean erregearen irudia edo ingeles ikurrina edo holakoren bat erakutsi ohi dabe, aberriaganako sua edo garra ikusleoi sartzeko. Eta nork esango leuke!, erregearen irudia bakarrik denean, sendo txalokatzen dabe, eta barriz, guda-koloretako Ingalaterrako ikurrin berarizkoa erakusten badabe, zirkiluren bateko erdikirtenen batek baino ez dau txalotzen. Hauxe zergatik ete den gogoratu ezinik egon naiz. Eta zuen iritzian utzi arren be, neurea baztertxu esango deusuet.

Empire antzokian atzo egin eben antzezkiak aberkoi polita. Amaitutean, neska-mutilok dantza ederak egin ebezen. Ingalaterran ikurrin bi erabili ohi dabe: bata salerosterako eta bestea gudarako. Gudarakoak ziren mutil-neskak erabilezenak. Eurok dantzarik onenak egiten jarduenean agertu ziren beste lau neskatil, Errusia, Frantzia, Belgika eta Serbiako ikurrin banagaz, eta berehala hasi ziren abesti aberkoiak egi-

ten. Hau ikusita, hiru edo lau espainiar ontzi-agintarien jezarlekuetan jarrita egozenak txaloka hasi ziren. Barriz, ingelesek txalo bat be ez eben egin. Ez zen entzun antzoki guztian halako isil edo motela baino, zirkiluren bat izan ezik.

Amaitu zen hori eta berehala agertu zen George-ren irudia, eta orduan ingelesen bihotzak, berotasun handian, abestu eben *God save the King*. Zer deritzozue horri?

Hara nire iritzia. Nik uste dot hemengo semeek ez dabela nahi gudarik. Bakea eginda belego, nahiago leukie. Eta ezagutzen dabe ez dela euren erregea hainbat odol galtze horren erruduna.

Ingelesak gizon baketsuak, salerostetsuak, bihotz ondunak dira, nonahi ogia zabaltzen dabenak, lana egiten dauenari alogera ona emoten deutsienak, atzeritar beharginari edozein bizimodu lortuten lagun-egiten deutsienak, inoiz zirikatu eta atzipetuten ez dakienak. Baina ez dira gudatiak, ez odolzaleak, ezta be maurotxinarrak legez gudara doazenak.

Hahor ba, nire ustea.

MIDDLESBROUGH-ETIK

1914ko irailaren 18 eta 22an

Lehengo eguastenean joan nintzen Market-era. Hartu mutil bi, oiloak erosteko ustean, eta merke egoan legez kaja bi eta gehiago bete nebazan.

Atzo baserrirantz nindoan kaja biak euren jaubea-ri emoteko inorenak zirelako, eta bide erdian gelditua izan nintzen. Gudari batzuek eroan ninduen Police Court-era eta ordu bi igaro ostean askatu ninduen igarri ebenean alemaniarra ez nintzela. Konta neutson neure ontziburuari zer jazo jatan, eta esan eustan hurrengoan inora noanean agiri edo dokumentuak aldean eroateko. Halan beharrean be: gaur Newcastlea joan behar izan dot, eta urten naizenean oraindino goiz izan den legez, nire ontziburua lo egoan, eta hor noa neu «Jaungoikoak gura dauena izan bedi» esanda. Harantz inork jaramonik be ez, baina honantz, Tyne Dock-eko ateetan, han gelditu nau policeman batek.

- Agiriak badaukazuz?
- Ez, jauna.
- Ba orduan gelditua zara.

Alferrik izan dira nire ahaleginak harik eta neure ezagun bat handik igaro artean. Utzi nabe aske, baina heldu naizenean geltokira, zaust!, ostera be oratuten nabe policemanek.

- Nongoa zara? Nondik zatoz? Badaukazu agiririk?

Ezetz esan deutsedanean espetxera naroe. Krinkron egin giltza handi bati eta han sartzen nabe.

- Baina gizona, ni naiz ontzietako hornikaria! Hemen badaukadaz gauzak erosita barruan jateko, eta hemen agiriak zein dendatan erosi eta ordaindu dodazan!

Bai zera... inork ezer ez deust adituten. Halakoren batean han dator policemana, neu gelditu nauena. Ordurako joan dira ordu bi eta gehiago; han naroe Customs House-ra, karabineroen etxera. Han topo egiten dot beste ezagun bategaz, Shieldsko bateleroa bera. Handik gerotxuagoan emon deuste baimena eta etorri naiz ontzira. Egun guztia galduta atzera eta aurrera. Aurrerantzean ez jat jazoko hortarikorik, neure agiri eta abar neugaz eroango dodaz-eta.

* * *

Ipar Itsasoan, eta Hull eta West Hardpool bitartean dago herri handi hau, Tess ibaia igaroten da erditik,

merkatari bideak zabal mundu guztiarentzat. Saleros-
te gehiena da meatza Espainia, Suedia eta Greziatik,
eta lingotea bertatik harantz.

Ibai hasieran dago South Bank deritzon herritxua,
labe garai handi bat dago bertan, 10.000 lagun baino
gehiago bizi direla bertako lanagaz. Jarraitu aurrerantz
eta aurkituten da Normanby Wart fabrika. Ez dot uste
munduan handiagorik egongo denik. Ibaiaren ezkerre-
tik dago Normanby, eta eskumatik barriz dago beste
fabrika bat. Ikaragarria!

Jarraitu ibaian zehar ontzi artetik eta dago Midd-
lesbrough herria, Bilbao baino birritan handiagoa, bur-
dinazko zubi eskegia erdian duela, dena lan!

Jarrai aurrera eta aurkituten da Newport izena
dauen herria labe garai ikaragarriagaz eta nasa han-
diagaz meadun ontziak hustuteko. Oraindino aurrera-
go dago Stockton on Tees, Middlesbrough lakoxe herri
handia, nasa ederragaz ontzientzat eta bertako ontzi-
ginak direla Ingalaterran entzute handia dabenak.
Hemen eguastenetan egiten da feria bat, eta hasi
abelgorriak eta etxeko ohe, mahai zahar eta jezarle-
kuak be saltzen dira. Ez dago han saltzen ez den gau-
zarik. Itsaskarientzat hemen amaitzen da ibai hau,

baina oraindino askozaz aurrerago egon ohi dira motorbako ontzi zapalak.

Ene! Ez deusuet esan matxinsaltoak baino salto handiagoekin Middlesbrough eta albo herrien izakera. Bai ba! Hasi banintz zertzelada guztiak esaten, idazkia egin beharrean barrabaskeria egin beharko nebalako.

Ingalaterran be herritik herrira guztizko gora-beherak daude jendearekin. Cardiff aldetik guztizko troskuak dira, eta horrez gainera, handik huri handietan lapurretak eta abar hemen baino gehiago ikusi ohi dira. Barriz hemen, jendea da guztiz leuna, merkatariak guztiz ondraduak. Cardiff aldeko aurpegikerak dira hemengoak baino itsusiagoak, hemengoak barriz guztiz galantak.

Londresen egin zen 'concurso de belleza' erdaldunek esaten dabena, hamarretik hamalau urteko neskatilekin, eta Sunderlandeko neskatila txiro batek ipini eban *The Times* egunkariaren saria 100 esterlina.

Middlesbroughko udaletxeak idegita dauka orain be beste lau urtetik beherako umeentzako sariketa bat, eta ikusgarriak dira bertan erakusgarri dagozen ume irudiak.

Huri honetan hainbat eliza dagoz, eta hainbat koloretakoak. Katolikoak be ez gagoz txarto, ba esan

deustenez, katedral bat ederra eta hiru eliza txikiagoak daukaguzelako. Ontzitik urtenda bide-bidean dago Ama Birjina zaindari dauena, eta aurrean idatzita daukaz hitz honeek: «Urrunetik zatozen itsastar atzerritarra: deiez daukazue Josu. Ikertu eizue egiazko erlijio bakarra erakusten den etxe santu hau».

Agur abertzaleak. Arrisku handietan gabiltza itsastarrok, ba ez dago egunik ontziren bat hondora ez donik, alemaniarrek ipiniriko mina batek jota. Otoi eizue ba Ama Birjinari itsasoan gabiltzan gizon txiroen aldez.

LISBOA-TIK

1914ko urriaren 10ean

ALBISTE TXARRAK

Gaur heldu gara kai honetara eta berehala jaitsi gara ontziburua eta neu lurrera, geure eta besteen sendiei gaztigatzeko telefonoz heldu garela, eta bide batez hark bere arazoak eta nik neureak egiteko. Heldu gara huri barrura eta, zer izan da gure ikara daunbada handi-handia entzun dogunean? Geure hurrean berehala ikusi doguz arin-arinka hainbat lagun eta suhiltzaleek txilin-hots garratzak jotzen izan dabez bidea aske utzi daien.

Hurreratu gara eta su eta garra baino ez da ageri izan hemengo gas-fabrikan. Bertako gas-ontzirik handienak eztanda egin dau. Hur samartxu egon diren pertsona denak hil dira, eta urruntxuago egon direnak, batzuk begirik gabe, eskurik gabe, oinik gabe, eta holan asko lotu dira. Samingarria!

Une hartan igarorik tranbia bat bertatik, gainean joiaz denak, bat ezik, hilda gelditu dira. Kalerik kale dabilta emakumeak umeak lepoan dabezela, bihotza

hautsi eragiteko beste negar egiten. Asko gelditu dira senar, seme edo seniderik gabe.

ONTZI ALEMANAK

Hogeita hamabi ontzi aleman dagoz kai honetan, gudagatik lotuta, itsasora urtenez gero ingelesek eskua ezarriko leuskioe-eta. Kalerik kale ez da ikusten besterik alemaniar ontziburua baino.

AZOKA MERKEA

Hauxe bai dela azoka merkea! Okela dago garestitxu, osterantzean arraina, barazkiak eta zirripa, ia du-barik. Kirikiño: ikusiko bezenduz hiru laurlekotan nik gaur erosi dodazan sei lebatzak, ikaratuta, harrituta lotuko zintzakez.

EUSKAL IDAZLEEN BAZKARIRAKO

Berrogeita hamar puru *Isabela* Filipinetakoak daukadaz gordeta. Egon ardura barik, laster naiz hor. Neuk gaztigatuko deusuet egun hori.

ZARRONTZALE-RI

Gure bazkaria euskal idazleena da. Zuk be ederto idazten dozu euskaraz. Nik atseginez irakurri ohi do-

dazan legez idazki guztiak euskaraz izanez gero, horregatik erosi neban zure gramatika bat be. Erdu, erdu! Sendo besarkatuko zaitue zure anaia euskotarrrek-eta.

ANBERES-TIK

1914ko urriaren 14an

Egunkariak darabile izen hau gora eta behera, bertan Kaiser-aren gudariak sartu direlako. Hainbat bider egon naiz huri eder horretan eta baita hainbat adiskide bertan euki dodaz. Gaur Jaungoikoak bakarrik daki nondik nora ibiliko diren.

Atzeritik datozen eleetan Anvers, Anversa, Amberes, eta honelakoak dira bere izenak. Flandieraz eta honen antzekoetan barriz Antwerpen esaten deutesie.

Bertako gizonak dira guztizko beharginak eta emakumeak guztizko garbiak. Ikustekoak dira garbien garbiz hango kale eta etxaurreak. Ibai eder baten alboan dago, laua edo zelaia dela guztiz. Eskalda deritzo ibai horri eta gaur munduan dagozen ontzirik handienak ibili daitekez bertan. Itsasotik Antwerpenera zortzi ordu emoten dira joaten gure ontziekin, eta zortzietatik sei orduko bidean itsasotik hasita. Holandakoak ibai-ertz biak. Beraz, itsasotik nahiz itsasora joateko Holandatik igaro behar.

Garbiak izan arren estu-estuak dira huri zaharreko kaleak, baina huri barrikoak dira zabalak eta ederrak.

Kaleen izenak ele bietan idatzita dagoz, frantsesez eta flandieraz. Egunkariak dagoz hiru edo lau frantsesez ekiten deutsienak; enparau guztiek barriz aberriko elez.

Guxtizko zuhurak dira bertako biztanleak, eta erraztasun handia daukie atzerriko eleak ikasteko. Ez dago saleroste, kafetegi edo jatetxe edo abar daukanik frantsesez, ingelesez eta alemanez ez dakienik bere aberriko hizkeraz gainera; eta ondo jakin be. Gazteleraz be askok eta askok daki.

Huri honek eukiko ditu bostehun bat mila biztanle, baina guztiak ez dira bertakoak, Frantzia, Italia, Errusia, Ingalaterra eta Alemaniak eurretariako asko dabe han. Kataluniarrak be badira bost mila inguru. Ez edo dago munduan bere kaia baino asko ederragorik. Oraindino oraintsu eginda daukaz doek eder handi bi, hamabi kilometro karratu baino gorago dabezenak; Doek Asia eta Doek Siberia daukiez izenak. Doek ikaragarritzko osin handia da, ur handiz beterik egoan, eta Siberia Doek izena daukan osinaren ondoan hasten da kanoi errestada bat zenbatu ezina. Beraritzko horma sendo baten gainean doaz denak. Hara joaten ez dabe uzten, hormatzar horren kanpo-aldeetik ikaragarritzko

karkabastoak egozela, lurpetik ateak dabezela, arris-
kurik egonez gero berehala urez beteteko (nire ustez).

Nasa ertzetan ontzi-zamak eta abar sartzeko bera-
rizko biltoki ederrak dagoz, eta guztien gainetik be bi-
deak dagoz, lupetza behetik badago, pertsonak goitik
ibili daitezen.

Eskalda ibaia toki batzuetan estua izan arren Ant-
werpen aurrean guztiz da zabala. Bata besteagaz jote-
ko beldur бага ibili leikez ontzirik handienak atzera
eta aurrera.

Urrunetik ageri da eliza ederra, Katedral deritzona,
zenbatu ezin leikezan bere dorre txikiekin eta hiru edo
lau handiekin. Bere dorre nagusitik ikuskizun eder-
ederra ageri ei da. Asko igoten dira horrexegatik baka-
rrik, eta laurleko bat utzi behar da igotearren.

Badagoz jauregi eder asko, geltokia, polizia-etxea,
itsastarren ikastola eta abar. Parke zuhaitzetsu eder
bat be baegoan hainbat abere arrazagaz. Batez be txi-
minotan berrehun baino gehiago dagoz.

Aldi batean Euzkadik hartu-emon handiak ebazan
Anberesegaz. Antzina baziren itsastar asko han emaz-
tegaiak eukiten ebezanak eta ezkondu be asko egiten
zirenak, eta hau dela eta ba ezagutu dodaz han eus-
kal abizen asko. Baina hara joiazen itsastarrik gehie-

nak emaztegaien aitzakian diru guztiak bertan utzi ohi ebezan eta Euzkadir a heldzen zirenean urteetan atze-
rrietatik ibilita esan ohi eben: «Anberes, Anberes!»,
eta sakelera begituta: «Hemenberez, Hemenberez!». Beste itsastar askoren artean barriz zabal zen esakun hau:

*Bazoaz Anberesera
Eta hiru zubiak pasa,
Diru zuriak gasta
Eta gero, ez Anberes,
Ez Hemenberez.*

BARAKALDON

1914ko azaroaren 10ean

Neure atsoagaz eztabaida aldi bat egin ondoren, bateko non diren nire prakak, besteko jaka, azkenean be noiz edo noiz jantzi naiz, hartu luma eta liburua neure sakelean, honez gainera hiru-lau puru eta hor noa Barakaldora. Sartzen naiz Batzokian, eta ikaratu-ta geratzen da bertako kontserjea neu ikusita.

- Batxi! Zu hemendik? Ez zinen joan ba hiru urterako?

- Bai, joan nintzen eta atzera be etorri naiz; hiru urterako agur egin neutsun baina bi inguru da ordutik hona.

- Honeek... zeure sendia izango dira, ezta?

- Bai, neure atso zimela eta Josune txapalduna eta abar.

Jarten naiz aulki bigun-bigunean... Berehala hasten dira mutilak etorten, eta banan-banan damoste eskua ezagunek.

Neuk: Mutilak, ba, idazki bat egiteko ustean natork eta gainera Erandion emon neutsuen hitza betetearren.

Eurak: Ba, 215 bazkide gara. Urte honetan 53 barri sartu dira eta 23 joan dira, eta gehienak gaur beste batzoki batzuetako bazkideak dira. Bakarrik hiru edo lau kirtenek esan dabe: «me doy de baja». Herrian indar handia daukagun? Nahikoa. Udaletxean daukaguz lau abertzale zintzo-zintzoak, eta beste zazpi be... badakizu ba... honeen beste ez baina, nahikoa gure alde ez egiten dabenak.

Neuk: ...!

Eurak: Bai, guztizko egia da hori tamalez. Zorioneko fabrika! Zorioneko ogi barrabana! Horixe egin ohi deuskue: hauteskundeetan, ogia esku bategaz erakutsi eta besteagaz txartela, kandidatura, eta horra!... gu gehienak kontserbadoreengana joan behar nahi-taez, goseak hiltzen geure sendia ikusi nahi ez badogu.

Neuk: Nekatxin zotz!

Eurak: Hemengo kontserbadoreen batzokiko gehienak dira abertzaleak bihotzez, baina...

Neuk: Bai, mutilak, badakit zer esan nahi dozuen. Eta erreketeroak?

Eurak: Horreek ezebez.

Honetara hizketan eta puru tokorak mihazketan gagozela sartzen da Jauregizar bikaina. Eskua damost. Ilun nago, zergatik ez dakidala. Lo dago nire Josune,

eta burukada batean joten dau nire kopa, eta han doa akilen-buztan pattar eta guzti. Begiratzan dot horma-
ra eta Sabin maitearen irudia neuri adi dago eta nega-
rez dagoela iruditzen jat. Begiratu beste aldera eta
Pio X.aren irudia be neuri adi dagoela uste dot. Beste
aldean Ama Birjina dakust eta bere aurpegian irribar-
retxua legez deritzot ikusi dodala. Pixka batean holan
egonda jasoten dot neure burua eta begiratzan dot
atzerantz eta, zer da nire atsegina!, batzoki guztia
bete da neska-mutilez eta dena da zarata, denak gaz-
tetasunak eragiten dauen barre eta poza.

Berehala hasten dira denak euskal abesti alaiak
abestuten. Honen hurrengo, neska txikiak zeruratzen
gaitue euren *Txeru, Ai ene ama!* eta horretariko abes-
ti politekin. Gero jezarten da mutil gazte bat pianoan
eta bere alboan uzaia eginik jarten dira handi eta
txiki denak.

Lau dabilta ziper musean... badoa Jauregizar bi-
kaina eta dinotse: «Edo zeuen egipidea bete, edo
hona bape etorri ez». Hori, hori! Horixe dinot neuk be.
Edo izan onak, edo ezer izan ez. Ume abeslariak ba-
rreka eta abar zarataka daragoie, baina gure Jauregi-
zarrek erremuskada bategaz isiltzen ditu. Han inork ez
dau egiten txistik, aginduten jakona egin baino.

Ez dago Euzkadin batzokirik Barakaldokoaren baino errespeto gehiago dagoenik. Ha dok lotsa! Ha dok aberriaganako maitasuna anaien bihotzean sartu gura.

Azkenengo abestu eben *Gora Euzkadi bizi bedi*, eta Sabin izena esaten ebenean txapela kentzen eben mutilek eta barriz burua makurtu neskatilek. Ha da lotsa!

Adurra dariola nengoen gauza honeek ikusten, eta ustez uste barik lepoan jota badinost mutil zintzo neure adiskide batek erdaraz, ia pozik nengoen.

Neuk: Bai gizona, bai, baina... zuek hain ederto abestu arren, badakizue gero zer esaten dozuen?

Berak: Ez, Batxi. Beti gabiltza euskarazko ikastola ipinteko, baina ez daukagu maisurik, eta Alderdiak ahaztuta gaukaz. Beti irakasle eske eta jaramonik ez deuskue egiten. Erandiora joan ginen handiko idazkiak euskaraz ikusi genduzanean, ha idazlaria bera hona ekarteko, eta horra nondik jakin dogun hango idazlari Batxi hori dela Gernikako Batxi eta Ingalaterrako Batxi berbera... Eta zuk, badakigu egun gitxi barru zeure ontziagaz urrunera joan behar dozula.

Neuk: Samintasuna badaroat neure bihotzean, baina joan behar zuei igandean zuzendu barik agindu

neutsuen hitzaldia. Tira ba, mutilak, orain banoa, eta agur !

Denek: Agur, Batxi, eskerrik asko zeure puruengatik eta ondo ibili.

CARDIFF-ETIK

1914ko azaroaren 22 eta 23an

BELDURRA

Guxtiz dabilta beldurrez ingelesak aspalditxuon. Alemaniar gudontzi handi bat dabil hemen hur samartxu, eta lantzean ingeles gudontzi bat botaten dau hondora, eta inork ez ikustea nahi dabenean urpera sartzen da eta kitu. Ikaratuta dagoz honeek hain ontzi handia behin urpera eta behin azalera ibili ahal izatea-gaz, ba orain arte itsasoetan ibili diren urpekoak hor ehun tonelada ingurukoak baino ez dira izan.

ARRANOKERIA

Gaur Cardiffera joan gara lau hornikari, eta honantz, ez gara ba galdu?... Hor goaz Grecian deritzon herri bateraino ezer pentsatu barik, eta han eskerrak txartel-zulatzailari, osterantzean han goaz Londrese-raino. Arratsalde guztian ibilirik trenean eta oraindino txilin bana zigorkada ordaindu. Eta hor etorri gara gure ontzietara arratsaldeko seietan.

BELGIARRAK

Hainbat aberats belgiar dagoz hemen inguruan. Ihesita dagoz euren aberritik. Eta umetxuak be asko dagoz aita-amarik ez dabenak zabaldua Ingalaterra guztian.

ONTZIAK

Ederto ei dabiltza oraingoan ontzijaubeak, ba guztiz diru asko damotse zama hara-horra eroateagatik. Upomendi ontzia Argentinara doa, eta beste asko doaz Italiara, harako ontzi joan-etorriak be guztiz goitik dabiltza. Biejondaiela.

HILTEKO TRAMANKULUAK

Lehengo egun batean heldu da hona Marte deritzon ontzia eta harriturik dagoz hango lagun denak ikusi dabenagaz. Minak ur-azalean ikusi dabez eta eurenekin ez topo egiteko hainbat ahalegin eginik, azkenean be lortu dabe Rotterdametik hona etortea ezer jazo baga. Horregatik ba, alemaniarrek mina klase bi darabilez: ikusten ez direnak eta ur-azalean uren abia da nora-hara dabiltzanak. Hareek dinoenez, samingarria da Rotterdameko kaia ikustea ontzi bat baga eta kale guztiak gosekilez beterik.

IDAZKI EDERRAK

Gogoetetz neure burua bete deuste gaur han-hor ikusi dodazan idazki aberkoiek. Holako batzuk ipini behar litzatez Euzkadiko basetxeetako hormetan eta tantaidietako zuhaitzetan anaia denek irakurri daiezen. «Aberria maite ez daben ingelesa, ingeles salkorra da». «Ingelesak... ez ahaztu inoiz zeuen asabekin». «Ingelesa: gogoratu zaitez zelan zure anaia dagoen borrokan aberriaren garaipenarengatik». «Maite izan egizu aberria delako zeure amaren herria», eta abar eta abar. Idazki honeek ingelesez dagoz eta neuk euskaratu dodaz, honeek baino gehiago be badagoz, baina... hurrengoan esango deusuedaz. Neuk be orain azkenez dinotsuet.

Maite neure anaiak

Euskal aberria

Delako asabaren...

Herri txit alaia.

BELDURRA

Zeppelin deritzen haize-ontziak etorriko ez ete diren beldur dira gure ingelesak. Gauetan trenak nondik nora dabiltzan igarri ez daien alemaniarrek, hara zer dagoen bagoi guztietan idatzita: «Bidaztiak, ikusirik gauetan etorri leikezela arerioak goitik, eta trenbi-

de, zubi, eta abar apurtu, agintzen deutsegu denei gauetan euki daiezela leihoak gortinekin itxita, argia ikusi ez dadin».

Eta horretaraxe dabilta oraingoan hemengo trenak, gauetan nondik dabiltazan igartzen ez deusela.

DENA GARESTI

Aspalditxuon bertan behera utzita daukaz ingeles gobernuak bere menpekoak. Salneurriak larregi jaso ez daizen, une batean burukomin haundiak daukazan baina aspalditxuon txitean-pitean jaso eta jaso ekin deusie salerosteak. Orain bake aldietan baino birritan garestiago jarri dira elikadurak, eta kezka asko ego-teagatik biztanleen artean jaramonik be ez dau egiten inork.

ERRENTARIK ORDAINDU EZ

Horixe berberori egiten dau hemengo emakume andaluziar batek, zer oraingoan Ingalaterran, guda dela eta ez dela, zorrarentzat tribunalak itxita dagoz. Ezin ugazabak maizterra behartu leike etxetik urteten, ez badauka zegaz ordaindu. Eta honek barriz eukita be, badino ez daukala, ezin leikio Police Court-era deitu ugazabak. Etxetik urten nahi ez badau maizte-

rrak aitzakia emonik beste etxe bat ezin dabela idoro, ez dau urteten, eta hahor nondik dubarik nasai zelan bizi leiken Ingalaterran!

USOAK KONTRABANDOAN

Ontzi guztiak dira oso arakatuak hona heltzen direnean usorik egon ez dagoen ikusteko. Honeek guztiz dira hemen kontrabandoa. Albiste ekarle eta eroa-le direlako mensajerak deritzenak.

HITZ EDERRAK

Atzo bidali neutsuezanen gainera hara zelango hitzak dagozen kaleetako hormetan idatzita. «Goiko Jauna, zeure eskuetan Ingalaterra ipinten dogu». «Zeure beharrean gagoz. Salba gaizuz zeruko Aita betikoa». «Jauna, errukitu Frantzian dagozen gure anaiekin». «Jauna maitatu gaizuz guk aberria maite dogun legez» eta abar eta abar.

Hurrengoan esangotsuedaz gehiago. Orain neuk be esatea Zeruko Aitari: «Zain eizu gure Euzkadi».

BARRY DOCK-ETIK

1914ko azaroaren 26an

ONTZI BATEN IHESA

Abertzaleak dabiltzan tokian beti dira ezagun. Lehengo egun batean urten zen hemendik ontzi bilbao-tar bat ikatzez zamatuta. Urtekeran maniobra hasi zenean, hara zer atseginez entzuten neutsazan ontziburu bikainari hurrengo hitzok:

«Kepa, ezkerreko lokarriak ekarritzak lehenengo barrura, gero geldi-geldiro atxur biak jaso egitzak gora, estuntza morapiloak zuloan gora igaroten direnean joaleaz gaztiga eitzak banan-banan... Ondo dau... Makina abiada hartzen doanean bidali egik le-mari bat lemara... Sugileari esan egiok hautsa jaurti-ten denean ondo busti daiela, ontzi-koloreak lohitzen direla eta... Lehenengo makinistari esan egiozu eragin daiola pixka bat ur-ateratzaileari garbitzen hasi gaizan ontzigaina».

Honeek bai direla gizon zintzoak. Pozik esango neuskizue bere izena berak txartzat hartuko ez daue-la baneki.

Gu be, idazkitxu hauxe egiten dogun orduan gagoz urteten Lisboarako, baina hemengo maniobran euskarazko hitzen ordeztu gehienez entzun ohi da, «vira el cabo», «arría el ancla», eta berau arin egin ezik, birao ikaragarri batzuk honeen atzetik. Zelango aldea batagandik bestera! Abertzaletasun kutuna! Zenbat euskotar atera dozun galbidetik zeure irakaste ederrekin!

LISBOA-TIK

1914ko abenduaren 4an

Ene Kirikiño kutun.

Apurtxo bategatik ez nauzu gehiago ikusten. Samintasunez betea da gure bizikera. Urten ginen Ingalaterratik honantz, eta Bizkaiko Itsasora helduaz batera ekaitz gogor batek harrapatu ginduzen. Hamazazpi urte daroadaz ur gainean, baina gogorragorik ez dot gomuta inoiz ikusi dodan.

Uhinak gure ontzi txatxar hori intxaur mazala legez erabilen. Ontzi-zubia gehiena apurtu euskun uhin ikaragarri batek. Leman be apurketa handiak egin euskuzan. Halako baten jotzen nau ni be uhin handi batek, eta han naroa ontzi ertzera. Han sendo oraturik eskutokiari gelditzen naiz, baina itsas indarrak bere gainetik jaurtiten nau ontziaren atzeko kajara: han sei segundu inguru dardarrez ni erabili, eta badoa uhin hori atzera bere tokira. Jagi nahi dot gero, baina ezin. Oin biak zaurituta daukadaz. Sartzen naiz makina-gelan narrazka, eta banaroa arretxiko neure gelara zahagia legez neure gorputza dodala. Eta hemen nago orain. Pixkat hobetotxuago nago. Uhinak

barrurantz jaurti ninduen legez aterantz jaurti banindu, agur ni orduan!

Itsaskide denak goizero ikertzen izan nabe. Gaur goizean kopa bete pattar edateko gogoa heldu jat. Arakatu ditu morroiak gela bazterrean egon diren bonbila denak... baina hutsik. Nire ikertzaileak, ni bazterrera begira egoten izan naizen artean denak garbitu deustez.

Oraindino etxeko barri barik gara denok. Hortik da ezagun txarto dabiltzala Bilbao-Falmouth-eko ontzi bidari horreek, ba geure ustez oraindino beharbada gure sendiek ez dabez hartu izango guk Ingalaterratik bidalitako idazkiak, gero guri erantzunak egiteko.

DANUBIO-TIK

1914ko abenduan

Egunkariak irakurtzen dabezenek oraingo igarri dabe Errumania aldi gitxi barru gudan sartuko dela elkartuen aldez.

Errumaniako herri guztia ei dago gudarako gertu, eta gogo bizi bategaz lehenengo deian gorputz bat eginik denak gudarostera joateko. Arma gainean dagozen mutil denak euren eginbeharrak eta abar ondo ikasita dagoz, baita badakie euren etsairik handiena Austria dela. Austriarren aurka izanez gero edozein ordutan dagoz gertu basora urteteko.

Batzuek dinoe: zertarako ez da sartzen Errumania hainbat arinen gudan? Erantzupena erraza da ikusiz gero zintzoro aspalditxuon estatuak dabiltzan gorabeherak.

Gaurko egunean denok dakigu elkartuen aldez dagozela bihotzez munduko estatutik gehienak. Elkartuak ba erakutsirik euren zintzotasuna eureganandu dabez, eta honeek okasio on baten begira dagoz lehenegoko eupadan urteteko. Honeek gudan sartzeagaz

batera badakigu guztizko negargarria izan behar dauela alemaniarrentzat.

Errumania da ba horreetariko estatatu bat, aspal-ditxuon guztiz ondo gertatua, eta garaipenagaz amestetan beti dabilena. Hemengo gudarostea, bikaintasunez inori zorrik ez deitsona da aurrerapide guztietan, eta horra zergatik daukan herriak beregan itxarokun ikaragarria. Baten batek esan leike: zelan daki Bartzik kirten horrek zelakoa den hango gudarostea? Ez harritu, ene maiteok, esango deusuet zelan dakidana eta.

Lau bider egon naiz Braila deritzon Errumaniako portuan, eta beste lau bider Sulina eta Galati estatu hartako kaietan. Hirugarrenez han egon nintzanean Bartzelonan Ferrer fusilatu eben. Jakina! Sozialista aldrak hasi ziren gora-goraka. Berehala urten zen gudarostea kalera, eta zer? Zarata asko bai etxe-ateetatik edo holan, baina zaldi gaineko bat ikusten zenean berehala barrura.

Gure ontzia, badakizue, espainiarra zen, eta berehala hurreratu ziren kirten pilo bat (geuk errua izan bagendu legez), lokarriak ebaki eta ibaian behera gu jaurtiteko usteaz. Baina, bai zera! Agertu ziren hama-

biren bat soldadu agintari gazte bategaz, eta ha zen hanka-jokua egin eustena nire sozialistek!

Hortik dinot nik gudaroste guztiz ondo erakutsi dagoela han. Esan gura dot euren beharkuna ondo dakiela, eta oraindino kuarteletan ez direla zabaldu ikurriña edozelako zapi bat dela esaten daben irakaskunak. Abertzaletasuna bai dagoela.

Danubio ibai ederrean ez dago ez itsas-gora ez itsas-beherarik. Ur joana beti doa alde baterantz, ura gazia da eta horregatik neguan ez da itsasketuten ibai hartan, izotzagaz gogortuta egon ohi delako.

Braila, Sulina eta Galati dira herri batzuk oso politak udan, Danubio ibaia ondoan dabela ontziz beterik. Etxeak guztiak turkiar, grekar, rumeliar eta armeniarrez beterik. Italiarrak be egon ohi dira batzuk, gehien honeek itsastarrak. Genoa eta Italiako kai askotatik joaten dira udarako bakarrik euren atoiuntzi txikitxuekin ibaiko joan-etorriari aurpegi emoteko, ba han udan bakarrik itsasketu leike, eta neguan inurriek egiten dabena egin.

Udan bertako saleroste guztia da ikatza erosi, eta gari, arto, garagar eta indibaba saldu. Urteten dira urteoro Danubio ibaitik 960.000 tona inguru gari, 847.000 inguru arto, 750.000 inguru garagar, 25.000

inguru indibaba. Sartu ohi dira hor 2.000.000 tona inguru ikatz, bertako tren, makina eta enparauak euren zerean ekin daien.

Bertako biztanleak hor italiarren antzekoak dira, hizketa barriz latinetik datorren nahaste bat. Egunean-egunean erosi ohi neban *Rumanesti* egunkaria, eta nik behintzat dena adituten neban. Erlijioa da erdaraz cismatico griego deritzona. Katoliko antzera egiten da, baina Aita Santuaren menpean ez dago. Abadeak soineko baltzak daukiez, eta okozpean bizar luzea. Erlijio horren elizetan, guretan legez, irudiak eta abar dagoz. Goizero esan ohi da meza be, baina nik ez dakit zelakoa den.

Lehen esan deustuet armeniarrek joan ohi direla udaldian hara lanean. Ba... badakizue hareexei eusko baserritarren antza hartu neutsena? Ez ete dauka arraza harek zerikusirik eusko arrazagaz? Aurpegikeran dira gure baserritar gehienak legez aurpegi ihar sudurluzeak. Janzkiak be bardinak dabez, amantaldun prakak, kirruzko alkondarak harizko aleekin. Abarka artulezko txapinekin, eta honeek praka gainetik. Euren hizkera guztiz da azalekoa edo erraz egiten dena, guztia ahoagaz esan ohi dena, eta ez samagaz eta sudurragaz eta abar ingelesek eta alemanek

legez. Nik behinik behinean gure arrazaren antz handia hartu neutsen armeniarrei.

Hiru edo lau dendarigaz adiskidetu nintzen, hemen euren izenak: Kutika bat, Reabeka beste bat, Ostarka beste bat... Orain ez jatortaz gogora beste batzuen izenak.

Brailako herria guztiz da ederra eta barria. Hainbat egurastoki zuhaitzez beteak daukaz. Janariak oso merke dagoz, okela sei txakur kiloa, eta oilasko ederrek laurleko baten. Galati txikitxuagoa da, eta Sulina oraindino txikiagoa.

Braila eta Galatira joateko hamabi ordutan ibili behar da Danubion gora itsasotik hasita. Brailatik ordu batzuk trenean joanez gero joten da Errumaniako hurrigoren Bukarest deritzonera, Bukuresti eurek esaten deutsena, huri handi eta ederra zelai-zelaian.

Gu han egon ginenean kontsula alde batera utzita, sendi bat bakarrik bizi zen Bukurestin espainiarra. Andere alargun bat alaba kaskondotxu bategaz bera.

1915

GENOA-TIK

1915eko urtarrilaren 29an

Lehenagoko egun bateko idazkian adierazi neutsuen zelango kaia den hauxe, zelangoak diren hemengo beharginak eta abar.

Ontzijaubeak ba, hona ontziak bidali baino lehenago ondo begiratu behar dabe nora bidaltzen dabezen, ez bakarrik zama hutsituten aldi askoan egon ohi direlako, baita be hona datozen ontziak ordu seguruan inoiz ez dagozelako, ez dago ba kai honetan ez poliziarik ez Jaungoikoaren eskerrik.

Poliziak egon badagoz baina... Nik ez dakit non sartzten diren euren beharra dagoenean.

Oraintxe dira urte bi Astarloa ontziari ostu eutsezan bere atzeko biltokitik hor mila laurleko ingururen janariak edo elikadurak. Bere albotxuan egoan Askarai Mendi, eta hemengo hornikariak harroarren inotsan Astarloa-koari oskilkeria bakarrik ostu ei deusiela, eta hurrengo egunean 24 oilo eta ez dakit zer gehiago berari ostu eutsen. Nerau Arraiz ontziagaz hemen behin nengoela gau batean ate guztiak apurtu ondoren, la-

purrak ihesi eben ezer ostu baga. Eskerrak zuhur egon ginela.

Beste hainbat ontziri be egin deutsiez hemen lapurretak Bizkaya Mendi, Mendibil eta Josu ontziei, nik dakit zenbat...

Oraintsuengo hemen egon nitzenean bapore Upo Mendi-gaz, Noviembre ontziko hornikariari ostu eutsezan 700 lira, makinistari be bai pixkatxu bat. Urrunago joan barik, atzo Astarloari osterara be biltokiko ateguztiak apurtu ondoren, bertan egon diren janaririk gehienak ostu deutsiez.

Samingarriena da ontziburuak daukan atsekabea. Beren biltokiko elikadurak ostuta, eta oraindino mugazainei zigorkada ordaindu behar, eurek eginiko sello edo trastea lapurrek apurtu dabelako, bertako gauzak ostutzeko. Lehenengo elikaduraren balioa sakelean falta, eta oraindino zigorkada ordaindu behar, selloa apurtuta dagoelako.

Ez da hau negargarria? Gitxienez emon beharko ditu 1.000 lira sello horren gorabeherak bakeagaz atondu nahi baditu, eta txarrean hasiko balitz mugazainek daukie eskubidea hamar mila lirarainoko zigorkada ontziburuari ipinteko.

Hara zelango egunak daukazan Astarloako ontzi-buruak Genoara bere ontzijaubeak bidali dauelako, ba gixajoa lapurretan ebiltzan arte lo egongo zen berera beren ontzizainekin fiatuta.

Ontzizainak be bi eukazan gau horretan; bat herriko janzki eta guztikoa, eta bestea barrukoa.

Baten batek esan leike, zer egiten eban ba uniformedun guardia horrek beste barruko hori lo egon bazen be? Zer egingo eban ba? Lo... eta batek daki guardia horrek eta lapurrok elkar hartuta baeuken be.

Behinik behinean lapurrok eta kai ateetako poliziak elkar hartuta egon behar, osterantzean Genoako hurira ezin leike kaitik ezer eroan, han-hor ate handiak daukazelako eurretan hainbat polizigaz. Ez da lotsagarria Genoa lako huri batean ontziak herriko guardia euki beharra, eta hau eukita be egiten diren lapurretak egitea?

Hori bakarrik Italian jazoten da.

AGUILAS-KO HORNILLO-TIK

1915eko otsailaren 9an

Behin batean, oraintxe gomutetan naiz Kirikiñok zelan destainaz esan eustan Andaluziara heldu baino arinago andaluztu nintzela, eta ordutik hona beti egoten izan naiz pentsatzen noiz demonino etorriko garen herri zorioneko honetara.

Hahor nondik, behingo batean etorri beharra euki dogun.

Geure ontziagaz sartu ginenean hemengo kaian esan eikean sartu zela herri honetako salbatzailea edo... berehala bete ziren ontzi-ertzak txanelez, batzuek eskuekin seinak egiten gose zirela, beste batzuek lan eske hiru ontzako bizarra aurpegian, eta besteak urtebetean ebagibako ulea buruan dabela.

- Zeñó capitán tiene uzté una plazica pamí, mire uzté que jaze veinte días que no he cenao.

Harik eta itsas-osagilea etorri arte ontzi-ertzean egozan, baina gero, zer zen ha! Barruratu ziren hor berrogeita hamarren bat, berehala garbitu ebezen ontziko hegaletan egozen ogi urdin txatal denak.

Ontziburuak dino:

- Bihar neure ontzi-zereginetarako hor hamarren bat gizon behar dodaz.

Han ikusiko zenduen barrabaskeria euren artean, argi egoen! Denek nahi eben etorri, eta gure buruak hamar baino behar ez.

Oraindino itxaropenik galdu barik egozan gazte-txuak, edo hor hamazortzi urte ingururantz joiazanak, baekien niri be morroi bat falta jatena. Ikusten nabe, eta han datoz hor hamar edo hamaika...

- Hornikaria, zeuk behar dozun morroia hautestuz gure artean, zeure amaxuren osasunagatik («por la salusita de su mare») hor hilabete inguru da gauza berorik gure ahoetan sartu ez dela-eta.

Jarri nintzen eurori begira, bai!, edozeinek sartzen jok honelako morroi bat norberen gelan, zorritz bete deioezan bati norberen ohe eta enpaiduak. Bilbaoko ontzi batean jazo zen oraindino ez antzina, ontziratu ziren hemengo hiru edo lau, eta Ingalaterrara heldu zirenean hango itsas-osagileak lau librako zigorkada ipini eutsan ontzi horri zorritz apestatuta joialako zirki-lu guztietatik.

Sukaldina ba hemengoa hartu eben, eta indiaba orde... badakizue.

Ez dago herri honetan inor begietan piztak ez daukazenik, eta gorputzean hor atzamar bete kana inguru ez dauenik, eta ez da harritzekoa, gogoratzen bagara zelan bizi diren hemengo biztanlerik gehienak.

Gaur goizean plazarantz noala, ez deust urten satorra legez lurpetik atso batek? Honen hurrengo non ikusten dodazen hiru-lau umetxu kedarra baino balzagoak, eta ni ikusiaz batera, klask, han doaz lurpera zohi baten azpitik.

Hau ikusirik, neure lehenengo hitza izan da, nekatxin zotz!, hemen lurpean be biztanleak jagozak, hor Euzkadin be badagoz baina. Horkoak satorrak, saguak, zapuak, harrak dira, baina hemen pertsonak.

Eta gero, zelango bizitokia lurpe horretan etzuteko ahartxo narru batzuk zirkilu batean, jatekoa egoteko hiru makilagaz eginiko tramankulu bat, baina traman-kulu hori gehienez hutsik egon ohi da, hemengoak kipula erdi, laranja bat eta tomate gordin bat eukiez gero, gertu dagozelako.

Lanerako? Bai zera, horretarako guztizko alferrak dira, baina guajirak abesteko... horretan dozak ba mutilak.

Ezjakintasuna non hemen beste?

Gero esango dabe hor Euzkadin gagozela guztiz atzera jakiturian, baina egingo neuke hor ez dagoela hamar urteko umerik bere abizena ez dakienik, denik eta basomortukoena bada be.

Hemen? Hara... gaur goizean itaundu deusat hor hamabi urte inguruko mutiltxu bati kalean...

- Txo, zelan dozu izena?

- Pue mi uzté, me yamo Paquito...

- ¿Y tu pare como ze yama? -izan da nire bigarren itauna.

- Pue mi pare ze yama Paco.

Abizena zelan daben aitag, ez amak ez ezer ez ekien mutil horrek. Ene!, barriz oraindino asko dagoz hemen Espainian erregerik badagoen be ez dakienak. Eta Madrilen estatuko hartu-emonak atonduteko toki bi, Senado eta Congreso dagozenik, ez entzuterik be, ez daukienak.

Eliza txirotxu bat dago Aguilasko huriari, eta huriatik ate, hor jendea lurpean bizi den tokian, basotxu ñotxu bat, ber-bertara heldu artean ikusten ez dena.

Honeekin gauzokin atzera egon arren, zezen-plaza ederra dauka herri honek hur samartxu, horixegaz hornituta dagoz.

Circulo Maurista, Sociedad de Comercio y Artes
eta Casinoa dira herriko etxerik ederrenak. Baina
eurok be ez daukie zer ikusi handirik.

CARDIFF-ETIK

1915eko otsailaren 24an eta
martxoaren 8, 11 eta 13an

Hornilloko Comandancia Marinaran atean josita ipini eben paper handi bat hil honen 18rako iragarrita egoan alemaniarren iragarkiagaz. Berehala ihesi eben herrira barruan geunkezan lemari eta sugile denek. Hurrengo egunean etorri ziren barriak, baina gaua heldu zeneko nork edo nork esan eutsen euren emazte, arreba eta enparauei zelako iragarkia egoan Comandanciako atean josita, eta hor aramaritekuetan datoz hor hamabosten bat atso besoetako zain baltzak erakusten ebezela, ontziburua jo gurarik, euren gizonak engainatuta eroan nahi izan dabezela-eta.

- Baina ene emakumetxuak, neuk be eurek lez arriskuan ibili behar badot -inotsen buruak...

Baina honeek ezer ez eben aditzen:

- Venga los papele de nuestro marío.
- Ez emakumetxuak, paperak eta dirua bihar goizean zeuen gizonen emongo jakoz.

Ka... bakea izango bazen eurei emon behar jaken diru hori, eta gau hartan bertan osteria be geratu ginen ez lemari eta sugile barik.

Ontzia ia zamatuta egoan, eta gizonik ez itsasora urteteko. Gurago eban hango jende-moduak gosez hil euren etxeetan itsasora joan baino.

Urten ginen itsasora eta, ikaragarritzko eguraldiak atrapatu ondoren, hamabigarren egunean sartu gara hona. Larri gengozen jakin arte zelango albisteak ziren hemendik, eta hain zoritxarrez guztizko samingarriak dira.

Ingalaterrako uretara heldu ginenean lehenengo topo egin genduzenak Bristol-go gidalari edo praktikokoak izan ziren, eta itaundurik urpekorik ikusi den hemengo itsas barrenetan, erantzun euskuen halan beharrean be, hil honen 19an euren haize-ontziaren aurretuan zelan urten eutsien urpeko aleman handi batek. Honeek, jakina!, urpeko hori ikusi ebenean belurtu ziren, eta haize-oihalak zabaldua ihes hasi ziren, baina alemanek berehala atrapaturik esan eutsien:

- Mutilak: oraindino ez gara hasi ikatzontziak ez zuek lakoak hondora jaurtitzen. Zoazte ardura barik eta esan zeuen aberkideei geure torpedoak daukagu-

zela gordeta beste ontzi batzuentzat, eta ez zuentzat txiroentzat.

Hau esanagaz batera urperatu ziren, eta inork ez daki urpetik norantz joango ziren morroiok.

Hau jazo zen Nash Point deritzon lurmuturrean. Pentsatu zenkie, Bristol Chanel deritzon itsasoaren barru-barruan.

Urruntxutik haize handia egoelako joian greziar ontzi eder bat bere herrirantz. Ingalaterrak besteren bat zelakoan kanoikada bategaz trimindu eutsen gaina, eta honez gainera itsaskide bat hil. Hemengo Cardiff alboko Gaztelutik jaurti eutsen dunbadi hori.

Bakean dagozen estatuetako ontzietan ziper daragoie ontzi-hegalean hizki handiekin ontzi-izenak idazten, eta honen gainera izenaren alboan margotuten dabez euren ikurrinen koloreok, urrunetik igarri daien nongoa den ontzi hori.

Geure honi eta beste hemen dagozen Bilbao ontzi guztiei be ipini deutsieez hor kana eta erdi luzerako hizki zuriak eta ikurrin koloreak.

Gaur oster, guk hizki handiekin izenak ipinten daragoigun artean ingelesek euren ontziei kezulo, txanelak eta enpaiduak baltzez margotzen daragoie. Honez gainera, izenak borratu inork jakin ez daian zelan de-

ritzon ontzi horiei. Honengatik askok dino kirtenkeria hutsa dela, ze, urpeko alemanek seguruago jauttiko dabe hondora izenbako ontzi bat beste enpaiduak baino.

Orain pentsatu dau Ontzijaubeen Elkarateak ametralladorak ipintea ontzi denei, eta honeek urten daielela hiru edo lau elkarregaz bata bestea jagoteko, eta urpekoei aparetako ahal badabe.

Italiar ontziburu batek esan deusku gaur, hainbat ontzi ikusi dabezela itsasoan berak italiar ikurrinagaz, eta seguru dakiela ingelesak zirela, Italiako ontzi denak berak ezagutzen dabezela-eta.

Ingalaterraren ospea euki dauen estatu batentzat nahikoa beratasun da beren ontziak lapur-ontziak antzina ibiltzen ziren legez izenik barik ibiltea, eta euren ikurrina hainbat bider goraldua kendutea, eta honen ordeztu beste edozein tokitakoa erabiltea.

Honeetariko ontzi batek lainoagaz edo jota, hondora botako baginduz, nori erreklamatuko leuskio gure ontzijaubeak ontzi honen balioa? Zeuen bularretan ipini egizue eskua, irakurleak, eta pentsatu zertara gabiltzan itsasoan gabiltzanok.

Mari Eperdiren kafetegiaren albotxuan ipini dabe beste bat. Joan naiz gaur ikusten, eta ikaratu naiz ikusirik bere jaubea dela Malen Ipiski mundakarra, hiru bider ezkontua berau, eta azkenengo senarra manilarra dauena. Azkenengo erara zabaldu dau kafetegi hori, hara zelan: atletik sartukeran ikusten dira lau mahai kedarra baino baltzagoak, launa kilo koipe babilak euren hegaletan. Bederatzi katilu, beste hainbeste untzetik eskegita, topin baltz bat beti irekiten, eta topin horren alboan dago ben-ben Ipiski amantal goitik beherakoagaz. Amantal horrek argi egiten dau koipearen koipeagaz, esan leike alpaka dela.

Kafea hartzen zagozen artean gura badozu alaitxuago egon, emon egiozuz Ipiskiri sei penny, eta berehala hasiko da orkestra han alboko aldean dagoen gela batean.

Kantualdi aukerakoak jo be egiten ditu piano zahar hark zuloak batetik penny bat jaurtita, eta bien bitartean Ipiskik ekiten deutso dantza alaietan, erakutsi nahirik bere atorrak Mundakatik urten dauenik hona jaboia txistilik ikusi ez dabenak.

EZIN GAITUEZ IKUSI GU

Mari Eperdiren kafetegian lehengo egun batean jazo jakunagaz pixka bat beragaz haserretuta gabil-tza. Horregatik entzutea euki doguneko beste kafete-gi bat edegi dabela, oinestua baino arinago joan gara bertara lau euskaldun. Halan beharrean be bertako mahai batean egozan galiziar bi gugaz lehengo egu-nean borroka euki ebenak Eperdiren etxean.

Isilik egozan morroiok. Ipiski bera be geure albo-txuan jarri zen. Halakoren batean gure lagun bati otu jako kitarra jota kantu batzuk egitea.

*Neure nobiaren ama
asto baten jaube dana
astoak ekartzen deutso
etxean behar dan dana.*

Hau entzunik, galiziarrek badinosku:

- ¿A quen le chamais astoa?

Kantu horretan astoa hitza aditu eben, edo behinik behinean berehala hasi jakuzen jo goiak jo beheak eurei astoak direla esan deutsegula, eta abar. Alferrik ziren Ipiski eta senarraren ahaleginak bakea ipinteko. Eta zenbat eta bigunago guk erantzun, eurak gogorra-go etozen gure gainera. Azkenean nire lagun aulestia-rrak gehiago iraun ezinda, galiziar bat jo eban kitarra-

gaz buru-buruan, eta samaraino sarturik utzi eutsan tramankulu hori. Beste galiziar horrek berehala egin eban ihesi, osterantzean Ipiskiren katilu denak aurpegi-
gian eukazan.

Txarrena izango zen urre gorridun topina. Eskuan neukan neuk ba hau be kolkotik zehar jartzeko ahal nebanari.

MARI EPERDI-REN ESKARIAK

Espetxean sartu barik uzteko guri, edo uztea nahi badogu Mari Eperdik esan deusku isil-isilik ordaintzeko beherago doazen trasteak, lehengo egunean geuk apurtu genduzela-eta.

Burduntzali bi, zazpi katilu, kafe-ontzi bi, hiru bon-bila, mahai bi osoroztu, neskameari txartes bat erosi, eta beren betondokoa osatzeagatik medikuari bost hogerleko ordaindu. Isilik egotearren berehala emon deutseguz, baina halan eta guztiz be, haserreturik dabil, euskaldunik ez dauela etxean ikusi nahi ei dino.

Nahi ez badu ez gara joan be egingo, joan ez arren be ez geunkelako galduko ehuneko lau. Baina mutilak, tamainako atsoak urteten dabe Almoike-tik eta Mundaka aldetik behinik behinean... Malen Ipiski eta Mari Eperdi esposizidora eroateko modukoak dira.

ONTZI BAT GITXIAGO

Bilbaoko Uriarte n.º 4 izan da saldua ingelesei 18.000 libra esterlinan. Diru mortxakada ederra, ezta? Beren 24 lagunak hemen geratu dira, ogipide barik.

KANOIAK ONTZIEI

Ziper daragoie ingelesek kanoiak ipinten euren ontziei. Oraingoan larri behar dabe alemanen urpekoek. Bikainetarikoak ei dira morroiak baina daukiezen etsaiak be asko dira.

BELDURTIENTZAT ZIRIKADAK

Empire antzokian ederrak emon deutsez artista batek hemengo baten batzuei.

- Ez dozue joan nahi Frantziako zuen anaien ondora?

- Ez.

- Orduan zoaze zeuen etxeetara eta zeuen prakak kenduta ipini egizuez atorra zahar batzuk, epel arranoak.

Honelakoak esan ondoren ondo lotsatuta utzi eban asko eta asko. Azkenean, lore eder bat aterata, soldadu bati damotso, eta epel guztiei kakazotz egiten

deutse barre karkaxada artean. Hahori dok ederra! Kiri-
rikiño, badakizu zer den kakazotz?

EKAU DIRU GEHIAGO!

Horixegaz urteera horregaz etorri jakoz gaur gure
ontziburuari sugile eta lemari eta enpaiduak.

- Gizonak, ez zineten geratu ba konforme Horni-
llon damatsuedan alogeragaz, eta horren gainera ez
zenduen firmatu paper bat Comandanciako agintaria-
ren aurrean? -dinotse buruak.

- Bai baina...

- Hemen ez dago bai bainarik, holakoxeak zarie
zuok, etxean zagozenez hilean hogerleko bategatik
be gertu, eta gero sabelak beteten dozuezenean
oraindino gehiago nahi. Idatziko deusak neure ontzi-
jaubeari, ia emon ahal leikezuen gehiago. Osteran-
tzean denok zoaze herrira -berresan deutse.

- Pue no vamo todo a tierra -esanda ihesi dabe,
eta batek be ez dauka txiki bat irabazita.

Honeek dozak morroiak!

ONTZI GUZTIETAN BARDIN

Irabazten daben alogeran gainera, ehuneko 35 es-
katu dabe hemen dagozen ontzi gehienetako itsaski-

deek. Ontziburuak telefonoz esan deutse jaubeei ia zer egingo daben. Batzuei erantzun deutse emoteko ehuneko 25, beste batzuei oraindino ezebez. Behinik behinean honeek ez dagoz itsasora urteteko diru gehiago ez badamotse.

Gogor jagozak honeek morroiok. Txiki bat barik be, han doaz herrira, lebatz ederrak atrapatu ondoren eurari deritzanean datoz barrura. Nik ez dakit nork damotsen edaria dubarik.

BARREGARRI

Guxtizko barregarri erabili dabe Cartagenako ontziburu bat beren azpikoek. Diru gehiago nahi eben eta jaubeak emon nahi ez. Azkenean telefonoz hartzen dau albiste hau: «Darles todo lo que quieran y además un jamón». Menpekook jakin dabenean albiste horren barri esan deutsie buruari bete daiela agindua, jaubeak agindu dauen legeaz. Ontziburu horrek ez dau euki beste urteerarik joan hornikariagaz eta jamoi bana beren menpekoentzat ekarri beharra baino. Urten eban herenegun itsasora. Baina tripa onak daroaz, Cartagenara heltzen den ordu hartan bertan doaz morroiok herrira. Gero han ibiliko dira hogerleko biga-

tik be ontziratu gurarik. Bai ba, holakoxea dok hau mundu arrano hau-eta.

AURRERA DOAZ GUDAREN SAMINTASUNAK

Herenegun joan ziren hondora ontzi bi urpeko alemanek torpedeatuta, eta atzo joan zen beste bat 37 gizonekin, honeek denok itorik. Atzo urten ziren Frantziarantz hor 5 mila soldadu inguru South Walesko herri guztietatik.

Lehengo egun batean, ingeles gudontzi batek jaurti eban hondora urpeko aleman bat, gizon denak salbatu ondoren.

Hemengo egunkari denak hor ibili dira Dardaneloak gora eta Dardaneloak behera. Orain barriz berehala isildu dira, ez dinoe ezebe Dardaneloengatik; ez daki inork ba ezebe han zer jazoten den.

Egunero dakarre egunkariak zeozar hizki handiekin idatzita irakurleari irakurteko su gehiago sartzeko. Bien bitartean honeek, odol hotzezko biztanleok, nahiz albiste txar nahiz on, bardin irakurten dabez erakutsi gabe samintasunen txistilik euren aurpegietan. Beti itxaropen sendoa dabela euren gudontzietan, euren soldaduengan eta euren armetan. Gobernuaren erabakiak herri guztiak hartzen ditu ontzat, hortik da

ezagun hemengo gobernuak direla herri guztiaren bai-
menagaz ipiniak, herri osoaren hautarkiagaz atereak.

Honetaraxe daroa ba Ingalaterrak bere arloa, gel-
diroka eta itzel, albiste txar eta onari begirakun bardi-
nagaz begiratzuz, denok elkarregana ondo baturik, zein
gobernu zein herri, elkarregaz ondo adituta, ingelesak
bakarrik direla pentsatuta.

Honetara doaz hilabeteak, honetara igaroko dira
urteak, baina Ingalaterrak ezin leike galdu itxaropena
eta gitxiago eroapena. Honek beti dino «Nik ez daukat
presarik», «Nor edo nor nekatuko da ni baino arina-
go»... eta nik be uste dot baietz.

Ez uste izan, irakurle euskalduna, behingo-behin-
go batean Ingalaterrak esango dauela izpisaturik:
«Egin dodaz nahiak». Ez anaiak, ez, honeek oraindino
Kirikiño berbera baino gibel handiagoko gizonak dira.
Baina eurei be irabazten deutsiee andaluziarrek:

Behin batean sevillatar bi etorri ziren Londresera,
eta halako batean ikusi eben idatzita ingelesez 'Gibe-
landidunen Batzokia', eta morroi honeei otu jake ber-
tan sartzea. Han doaz, jotzen dabe tirrintina, eta han-
dik orduerdigarrenean agertzen jake gizon bat, eta di-
notse: «Nor da hain presan deitzen dauena?». Hau
esanda, ordubetegarrenean edegiten deutsiee atea

haserreka hain presaz ebiltzalako, sartzen ditu gela batean, eta beste ordubete han itxaroten euki ondoren doa eurengana batzokiko lehendakari hori haserreka eta puzka. Andaluziar bioi bardin eutsen, nahiz lau orduan itxaron nahiz seian itxaron, hareek eukezan gibelak!

Lehendakari horrek itaundu eutsen ba zer nahi daben andaluziar bioi eta, jakina!, bertako bazkideak nahi eben izan.

Lehedakariak abizena idatzita bidaltzeko agindu eutsen morroi horreei. Handik seigarren hilean idatzi eben, eta urtebete eta erdigarrenean erantzupena hartu eben.

Joan ziren atzera Londresera erantzupena hartuta zortzigarren hilabetea, eta lehendakariaren aurrera heldu zirenean, honek itaundu eutsen ia zeintzuk ziren euren biziko eginkizunik gomutagarrienak.

- Ba... jauna -inoan bata-, Txinako estatuaren himnoa berrogeita hamalau liburu dira, zazpiehun paporekoa bakoitza.

- Eta zer? -dinotso lehendakariak.

- Ba... bost urtean egon naiz neure gelatik urten barik himno hori irakurtzen.

- Txineraz be badakizu zuk ala? -dinotso lehendakariak.

- Ez, jauna, ez dakit hitz erditxu bat be.

Orduan jezarrita egoan tokitik jagirik, beste andaluziarrak dinotso lehendakariari:

- Jauna, hori irakurten egon den aldi guztian, bere alboan egon naiz ni horrek irakurten izan dauena entzuten.

- Entzuten? Bost urtean?

- Bai, jauna.

- Baina zuk jakingo dozu txineraz hizketan?

- Ez, jauna. Ez dakit hitz laurdentxu bat be.

Ikaratuta geratu zen gure lehendakaria andaluziarrak eukien gibelagaz, eta berehala bazkide izendatu zituzen Joselito eta Paquito.

«A todo hay quien gane» esan daroe gaztelarrek, eta zuzen dagoz.

KAFETEGI BARRIAK

Malen Ipiski eta Mari Eperdiren albotxuan ipini dau Zorrontzako emakume batek kafetegia. Ipiniagaz batera bidali euskun txartela bere etxearen iragarkiagaz.

Gauean otu jakun joan-etorri bat egitea, eta zaust!, han goaz Zapasto-ren etxera (halan jako izena

ba zorrontzar honi), Centro Naval jako izena kafetegi horri, eta guztiz ikurrinez beterik dago alderdi guztietatik, espaniar kolorez beterik dago etxe dena hori.

Aurre aldean dagoz lau mahai zahar, eta goiko aldeko utxabalda hautsez betetako batean, hiru edo lau bonbila huts, eta euli-kakaz beteriko zazpi edo zortzi katilu baltz eskegita.

Gu sartu garenean, Zapasto amantal zuri plantxatu ederragaz edontziak garbitzen daragoio. Eskatzen deutsagu garagardo pixka bat, eta atzamarrekin moakoak zintz egin ondoren, han doa bila. Arraioetan, hau dok atsoaren garbia! Edontzi bat pixka bat horbanduta dago-eta, kendu ezinik horban hori bere amantal horregaz, berehala jaurtitzen deutso txistua eta gero lehortu pixka bat eta han dakarkuz, geure ondotxuan osterara be turrun!, han doaz mokook.

- Zorrontzarra dinok, Batxi, dela hau patariau? -itauntzen deuste lagunek.

- Bai, ene adiskidea -aitortu beharrean gagoz-, holakoxe atsoak be badaukaguz geure aberrian.

Garagardoa ekarri ondoren, irribarreka ihesi diosku atso horrek, eta hor nondik barrabaskeria! Bere amantal zuri hori katigatuten jako untze batean, eta han doa behera. Orduan agertzen jakoz azpi-gona

satsa baino baltzagoak zatia dariola, eta birrist egiten dauela alpaka legez koipearen koipez.

- Ene, ez dakizue hemen zer daukadan -dinosku ate bat berehala edegita-. Han ikusten? Hautsez beteko kankanarru zahar bat dago gela horretan. Kankanarru horrek zulotxu batetik txakur-handi bat botata inon diren pasodoble eta barrabaskeriak jotzen ditu.

Otuten jat neuri txakur-handi-zulotik sakelean neukan arandela bat jaurtitea eta, arraioetan!, bardin-bardin daragoio beren arloan txakur-handia balitz legez.

Gure barruko algortar batek gaur egun guztian ez dau beste beharrik egin txakur-handiaren neurriko burdina zatitxu biribilak egin baino. Zapasto barriz, adurra dariola dago. Algortarrari kafea eta enpaiduak dubarik damotsoz uste izanik hainbat txanpon jaurtitzeko dauela piano horren barrura.

Hor hamar-hamabi biko dabilta dantzaz, eta honek hartzen dabezen kafeak eta limonadak ez daukie amairik. Ha dok barrabaskeria!

Baina hurrengo idazkian ipiniko deusuet Zapastok zelango aurpegia ipiniko dauen bihar goizean kankanarruaren kutxa edegiten dauenean txanponak hartzeko.

ITSASOAN

1915eko martxoaren 23an

Uste neban baino gehiago neure idazkiak irakurten dira. Horixe da niretzako alaitasunik handiena. Lehen beharbada jaramonik egiten ez eustienak «kaixo Batxi» esanda, edozein tokitan besarkatuten nabe, eta barriz lehen adiskidetzat nebazan askok, «Ala por ahí, bizkaitarrón!» esanda nire ondotik alden-duten dira.

Oraindino ez da aldi asko, hor hamar-hamabi elkartu ginen Cardiffeke etxe batean, jazarrita gengoan denok aulki bigunetan geure eustorraziok kontatzen. Halako batean nire adiskide edo adiskidetzako kirten bati otu jakon pianoa jotea. Berehala hasi zen hor Granada aldeko musikak jotzen, eta noizik noizera niri begiratuta egiten eustan, «Fastidiarse!». Zegatik nire adiskidetzako txoriburua, inostan niri «fastidiarse»? Uste zenduen zuk, bihotz gitxidun gizon zengel horrek, nik Andaluzia aldeko denari ikaragarritzko amorrua neutsala, ezta? A gixajoa! Neure aitorten hau luzeegia izan ez daiten ba ez noa hemen ipinten beste gauza asko honetatik urrunetatik jazo ohi jatazanak.

Urrunago joan barik, nabilen ontzian, jakin ebenetik gora abertzalea nintzela, berehala hasi jatazan ulea hartzen, bateko hau eta besteko bestea. Bateko guk uste dogula 'raza privilegiada' garela, besteko gaztelarrak basoan perretxikoak legez jaioak direla uste dogula, besteko ez dagoela inon ezer idatzita euskaldunen historiaz, eta besteko astaburu handi batzuk garela Sabin-en bideak dabiltzagunok eta abar...

Honeek hitzok ez deustez esaten Hornillon etorri ziren sugile eta enpaidu gizajoeak, ezpabe honeek baino aginpide gehiago daukienek. Gaur izan naiz deitua neure beharlekuetan nabilela.

- Zer nahi dau berorrek? -esan deusat apaltasunik handienagaz deitu deustanari.

- Ipini belarria hor, ea -esan deust.

Ipini dot, Frasquito andaluziarra ibili da su eta gar bere herriko kantu batzuk abesten.

- Honetarako deitu deustazu?

- Ez jazak gustetan, ezta? Ba, adi, horreek baino politagorik ez jagok mundu guztian be, eta Andaluziaren zatitxu batek gehiago balio jok Euskal Herri guztiak baino. Hango emakumeak, hango eguraldia... Hara, Batxi, ezkongez bazengoz, eta ipiniko baleutsuez

aurrean emakume bi, biak bardin-bardinak, zuzen dakit esango zeunkela «niri ekatzu andaluziarra».

Holako gauzak esan eta kantuak entzuten deitu deustena ez uste izan cadiztarren bat dela, ba oker za-goze. Bizkaiko herri barru-barrukoa da, euskaldun hutsa.

Urten banaiz ni esaten noiz edo noiz Euzkadin be badagozela mediku bikainak, inginariak eta abar, nire hitza berehala estaltzen da honegaz: «Euskal Herrian ez bajagok gizon bat zuhurrik, gu ez bagozak inoiz izan ezebe», eta holakoak.

Honeek gauza denok eta enparauak ezin aditurik zergatik diren, hahor ba ni nor naizen.

Ez daukiet ezertariko amorrurik nik Espainiako biz-tanleei, euren kantuak musika onagaz joak izanez gero, atsegin jataz. Euren hizkerari be ez deusat amorrurik, ostean ikusi zaitez nire gelan espainierazko hiz-tegi ederrak ikasteko ahalik ondoen hizkera hori. Sarri-tan egon ohi naiz, eta zuek be ikusten nozue hizketan anaiak balira legez barruko andaluz, gailego eta enpa-rauekin, eta itaundu eurei, eurak baino lekuko hoberik ez dozue idoroko-eta zelangoa naizen eurekin.

Ni naizen legez dira abertzaleak bihotzez diren denak. Guk ez deusogu amorrurik inori, eta esaten

badabe gure etsaiek guk amorrua deusegula, hahor argi zelan eurak geuri deuskuen.

Gu ez gara izango arraza berarizko edo privilegiada. Gure herri denak be ez dau balioko Andaluziako zatitxu batek beste. Gure emakumeek ez dabe eukiko hangoek beste gatz. Gure abestiak ez dira izango hangoak lako gozoak. Eta azkenez, euskotar denok izango gara tentel batzuk... Egi-egia izango da hori denaori... baina orain itaun bat... Ondo deritzazue hortik zehar zabiltzan ardi galduak, ekinean ibiltea norberaren amagatik seme bat, edo norberen arrebagatik neba bat, edo norberen emazteagatik senar bat? Ez, ezta? Ez litzakizue atsegin izango zeuen emazte edo hurko batek zeuen zapitxuak eguzkitara ateratea.

Horixe baino min handiagoa damotsezue ba zuek zeuen ama aberri eder honi, izanik beronen zati txikitxu bat Andaluzia beren zezenlari guztiekin baino hobe, nire ustez.

Gure herria izan behar dau ba euskaldun on baten ahoan, ona. Gure emakumeak ez dira izango hain zoliak, baina bai onak. Zantarrerirako ez gara izango andaluziarrak lako zoliak, baina bai onak. Gure abestiak ez dira izango hain alaiak, baina bai onak.

Azkenez gure aberri hau dena da ona biztanleen bihotzean hasita zoluetako lurraren bihotzeraino. Erbestezaleak, agur!

GENOA-TIK

1915eko martxoaren 29an

Banekien... Gaur goizean ohetik jagiagaz batera badinost neure ontziburuak:

- Batxi, zenbat diru beharko dozu hemen?
- Ba, Don Rikardo, ez dakit. Ez dakigu zenbat egunean berton egongo garen be-eta.
- A, oraingoan guztiz arin urtengo dogu hemendik eguraldi onak egiten baditu -dinost berak.

Hau entzunik guztiz alai joan naiz herrira Joselito bigarren sukaldina atzetik dodala (zer hainbat gitxien bertora etorteko herri egokiagoa da herri hau, sarri etorteko baino, guretzat hornikarientzat).

Handik lastertxoan badinost neure lagun Joselitok:

- Jozú!, ¿qué é lo que se ve allí?
- «Nekatxin el amuzki!», dinot neure artean. «Zer dok hori?». Hor berrehunen bat gizon etozen kantu ikaragarrietan, eta '¡Viva el Sciopero! Gora oporketa!', deiadarrez.

Kaian egon diren italiar ontzi guztietara joanik hairetako itsaskide guztiek urtetan izan dabe 'Gora oporra!' zarataka, eta honetara berehala aldra hori hasi

da, eta eurenagaz urten dabela uste izan dabenean, denok urten dabe Milano kalera handik manifestazio-
ne edo arranoan joateko Genoako gobernadorearen-
gana.

Aldra horren aurretik joiazan janzki baltz eder, bonbin, erloju-kate eta eraztun ederrak atzamarretan eroazan morroi bi. Bata zen itsas-beharginen lehenda-
karia, bestea lehendakari-ordea. Honeek morroiok ziren horko Tejero eta enpaiduak legez, beharginen bi-
rrerosleak, eurok eraztun urrebitxizkoekin eta bien bi-
tartean atzetik ekarren gizagia barru-prakak apurtuta haragiak agerian. Honeek dira morroiak inor ondo ipinteko burua gertu ipini ohi dabena, inor txarto ikusteak zeregin handia emoten deutesenak, baina behinik behinean lehenengo euren opilari sua ezar-
tzen deutesenak. Eurok behinik behinean janzki ede-
rrak eta dirua ugari sakelean, eta bardintasuna predi-
ku, eta ederki euren jarraileei izerdia edan.

Gizon aldratik urtenda, neu egon naizen dendara sartu da lemari bat. Itsastar bikainen antza dauka be-
ronek. Txakur-handi baten ogia eskatu dau, eta denda-morroiak damotson arte itauntzen deutsat neuk:

- Zer jazo jatze holan ustez uste barik itsastarrok oporketara joateko?

- Hara, neure adiskidea -dinost-, hamabi urte da-roadaz Carmen ontzian. Guztiz ondo nabil barruan, gaur ontziburuak txanela margotzen agindu deust, eta etorri dira lagunak, pintura-ontzi eta itsuskia ure-tara jaurti ondoren dinoste: «Tira geugaz», eta bultza-ka atera nabe eta ez dakit ez zer eskatzen daben nire lagunok, ez nora goazen orain.

- Orduan zuk ez dakizu zer erantzun, edozeinek zoezer itauntzen badeutsu...

- Ez nik, ene gizontxoa, hareek gure aurretik doa-zenek jakingo dabe.

Bertara dendara berehala etorri da emakume ez txiro ez aberats antzeko bat, eta gizon aldrari begira jarriarik dino: 'Ancora esta salvata la Italia'. Lehen ezin ginen elikatu janarien salneurria hodoietan egoelako, hemen gagoz aspalditxuon erdia gari-uruna eta erdia arroz-uruna daben ogia irentsi ezinik, eta berau be 60 centessimi kiloa, eta oraintxe gagoz ondo, oraintxe salbatu da gure aberria! Ontzi-barruetan gari zama-kuntza osoak usteltzen nork hutsitu ez da-eta

Ekarten badira baserrietatik pozik behar eginda berehala ontziok hutsituko leukiezan gizonak... opo-

rra... ontziok aire batean hutsitutea nahi izanik, zama jaubeari otuten bajako makina elektrikoekin hutsitutea... oporketa... hau esanda negar anpulu zoliak begietatik jaurti ondoren, emakumetxu horrek dino:

- Eta barriz gehien jasan edo sufritzen dogunok geu, erdikook gara. Gu, ez garelako besteok legeaz auzartzen horma ertz batean limosna bat eskatzen, ez gaixotzen garenean gaixo-etxe batera joaten.

Halantxe da, ene irakurle kutuna. Orain 50 egun urten ginen hemendik, eta hor hirurogei ontzi inguru egozan garidunak hutsituten hasi gabe. Euretarik gehienak oraindino hemen dira.

Behinik behinean iraun duen hile bian hemen dagoz Castaño, Asuarca eta Otañez, horko Bilbaoko ontziak be. Zer balio dau flete edo eroan-ekarri sariak goitik ibiltea, ontziok hemen utzi behar badituez euren irabazi guztiak?

Bilbaoko ontzijaube abertzaleak, pentsatu ondo nora botaten dozuezan ontziok.

Hemen gaur itsastarrak dira oporkariak, eta honeei laguntzeko egun gitxi barru hor dira besteok be... eta salerostea lupuak jo daiela.

ALMERIA-TIK

1915eko apirilaren 14an

Heldu ginen atzo hemengo portura, eta helduagaz batera, ikusirik ontzi honek bere atzean espaniar ikurrina ebala, bete zen gure ertza mutil eta neska kaskonduz, gehienok erdi-biluzik, euren gorputzak hautsez beterik dabezela, inon diren dantzak egiten.

Ezbeharrari barre egitea atsegin izan ohi jake askori, eta hori jazo zen atzo be. Batzuk lantzean ogi txatal bat, besteak txakur-txiki bat jaurtiten eutsien, eta honen ordeztu inon diren gorabeherak eragiten eutsien gorputzei.

Ez ziren mutil kaskonduak bakarrik, baita baziren emakume eta gizonak be. Ni be eurei begira nengoen, eta egia esateko, alde batetik euren txirotasunak errukitu ninduen, eta bestetik higuin hartu neban, ikusita hau moro nahasteko arraza hau hain ustelduta, hain atsituta. Euskotar emakumea, nahi gizona, nahi umea, goseak lehenago hilko litzake zirkilu batean, ontzi-ertzera etorrita hareek egin ebezan dantza zikinak egin baino.

Negargarrizko herria deitu lekio herri honi beste alderdi batetik, itsastarrak herrietara heltzen garenean, egun itzelak itsasoan igaro ondoren, herrira joan ohi gara atsegin bila geure bideak pixka bat haitzetuten geure ontzi-barruko gela estuetatik urtenda. Baina honako herrietan, zelan atsegindu? Jezarten zara kefetegi batean, han jatortzuz hamar itsu, sei mantxo, lau betoker, hamazortzi atso ume txikiak lepoan dabezela. Honen hurrengo han jatortzu hamar hamaika herren eta abar oinak dardarrez dabezela. Beharbada han jatortzu goizero kafea hartzen zagozela morroi bat bere zauriak erakusten, gero beste bat pattar usaindun arnasa atsituaz zeure aho-ahora limosna eske, eta ez daukazu beste urteerarik, edo ok egin higuinaren higuinaz, edo jagi eta aldegin beste toki batera. Bazoaz beste kafetegi batera, eta han jatortzuz osterara be, «baina, gizona, lehen eman badeutsut...», ez dabe ezer adituten, «socorro, cabayero, que estoy desfallecido».

Niri neuri, atzo behinik behinean, edan nebazan kafea, gargardo eta enparauak, ozpin bihurtu jatazan ontzi barrura etorri orduko. Ez noa gehiago herrira.

LAPURRETAN... BAINA, ZEIN POLITO!

Atzo gure ontzi gainean egozan bertako lanetara-ko hor hogeiren bat zorro harrietzaz. Bere albotxuan egoan jezarrita gizon bat, beti herrira adi. Halakoren batean, han dator mutil kozkor bat, eta dinotso:

- Pare, ha dicho la mare que se vaya.

- Dile a la mare que no voy -esanda, hasten jako mutiltxu horri ikatz-harriak jaurtiten haserre bizian.

Eta seme horrek kinuka inon diren barrabaskeriak egiten eutsazan aitari. Honek barriz besterik ez eban egiten harrika egin bere semeari baino, biraoka eta arramuskadaka. Denok gengoan ikaratuta ume hain lotsabakoa ikusita. Baina, bai lotsabakoa! Handik gerotxuago, mutilak berehala bete eban harri-ikatzez zorro handi bat aitik jaurti ebazan harriekin, eta etxera eroan eban. Aita-semeak elkar hartuta egozan.

IRLANDAKO ITSASOTIK

Itsas egunekotik hartua
1915eko apirilaren 24an

Urten ginen Almeriatik 4.000 tonelada meagaz hil honen hamabostean, eta gaur 22an heldu gara Wolf Rock deritzon lurmuturrera. Ordutik hona sei egun dira, eta sei egun honeetan itsaskatu dogu ezertariko ezbeharririk baga.

ZAZPIGARREN EGUNA

Egun honetan geunkan N.E.ko haize hotza, eta goizeko zortzietan, hartarako tramankuluekin jakin dogu non aurkitzen garen. Geure inguruan ikusten doguz ontzi asko; bi ezagunak, bata Wenceslao eta bestea Cartagenako Santa Florentina.

Berehala ontziburuaren aginduz ipinten dira txanelak eskegita, badaezpadan. Gudontzi bi igaroten dira gure aurretik, eta agur dagitsegu geure ikurrinagaz. Eta beste bagarik, amaitzen dogu gaurko eguna itsas-ertz ezagutuaren alboan gelditurik.

ZORTZIGARREN EGUNA

Aurre aldetiko haize motel eta euri lanparragaz emon geuntson hasiera gaurko egunari. Txanelak eskegita doaz, euren barruetan dabezela opil, ur eta eurak erabili edo atonduteko tramankulu denak.

Laino itzalez estalirik ortzea ilundu jaku eguna, inondik ageri ez dela argitasun izpirik. Noizik behin igaroten da gure albotik ontziren bat argirik baga, eta besteren bat argindarrez alboak argiztuta, bere hizki handidun izena agerian dauela, ezagutu daien bere albotik igaroten diren guztiak. Argibakoak zein herritakoak diren badakigu, eta argidunak barriz erraz dira ezagutzen.

Gure makinak bere burdinazko besoekin ezer ez balitz legez damotso betiko abiada ontziari, eta galدارا-irakinak urrumaka daragoie euren eginbeharra beteten. Sugileek euren aurrean dihardue euren lan neketsuan, kedarra bezain baltz dabezela aurpegi eta eskuak. Lantzean palakada bat ikatz jaurti, eta guajiratu bat abestu, eta gora urten eta ertzetara begiratu eta intziriz dino, «ay maresita de mi arma». Beste itsaskide guztiak kebide edo tximiniaren ondotxuan dagoz, denak ilun, esku bien artean burua dabela, Jaungoikoak daki zer gogoeta egiten.

Gau honetan inork ez dau lorik egiten. Itsasoaren gainean ikusten diren baltzune guztiek beldurra daramoskue. Ontziburua gau guztian dago oinen gainean, eta gertu makinako telegrafoa eskuan dauela, txistadarik txikienean makina gelditu, eta txanela batean itsaspekoaren albora joateko eta nondikoak garen jakinarazteko.

Daukaguzan soinekorik onenak doguz aldean, eta erloju edo diru edo balioko gauzaren jaube denak aldean darabiltza. Agintariak begirik kendu barik dagoz aurrera adi. Ontziburua ez da kentzen bere tokitik.

Goizeko ordubietan agertzen da hiru biztada daukazan itsasargi bat. Oraindino ez egun asko, hemen-txe joan zen hondora ontzi eder bat itsaspeko mina bat jota. Baina gu aurrera goaz, Ama Birjina dogu geure alde.

Lauretan agertzen da beste argi bat eskumako aldetik. Alaitasunez beteten da agintarien bihotza argi hori ikusiz, argi horren ingurua arrisku handia dagoen tokia delako.

Berehala ikusten da urpetik urteten legez argirik ederrena, bere urrezko argizpi ederrekin mundu guztia pozez beteten dauen eguzkia.

Alaige eta beldurkoi gaua igaro arren, han jatorku eguzki alaia geure gorputzak sendotu eta geure gogoa poztutzen. Betor bai argi eder maite hori!

Eguraldi ederragaz eta haize pixka bat aurre alde-tik dogula amaitu zen gaurko eguna, itsaskide denok lan baino lo beharrago dabela, denok aharrausika eta gogake.

BEDERATZIGARREN EGUNA

Eguzki epel ederragaz eta eskuma aldeko haize apurategaz emon geuntson hasiera gaurko egunari. Arratsalde guztian ez doguz ikusi ontzi txiki bi baino. Ikaratuta gagoz Liverpool ondoan hain itsasketa gitxi ikusteaz.

Beti gagoz dardargainean noiz joko ete gaituen mina edo torpedoren batek, baina horregatino heltzen gara gaueko zortzietan Island of Man deritzon uhartera. Bederatzietan utzi dogu eskuma aldean Chicken Rock haitz-mokileko itsasargia.

Hemendik oraindino 100 miliako bidea dago Ardrossan-era. Guztiok gagoz atzo baino pixka bat alaia-go, itsaso honetan ur lohi-lohiak dagozelako eta uste dogu hor lohian itsaspekoak ez direla ibiliko eurak nahi daben legez.

Heldu gara Ama Birjinari eskerrak gaur apirilaren 24an.

ARDROSSAN-DIK

1915eko apirilaren 26an

Ardrossan deritzon Eskoziako portu ederrean gagoz. Huri guztiz polita da berau, han-hor txaletez beterik, honek esan gura dauela jende aberats asko bizi dela.

Hemengo pertsonen berehala igarten jake ez direla ingelesaren arrazakoak, pixka bat laburtxuagoak eta baltzarantxuagoak direlako. Emakumeak barriz guztiz dira lodikoteak eta kolore gorridunak, ez Ingalaterran legez luzenga eta argalak eta kolore zurbildunak. Ele edo berbetea be, eura daukie ingelesaren antzik bape bakoa. Kantuak be bai.

Ikusgarria da hemengo jendeak daukan erraztasuna gaita joteko, baina zelango gaita! Barre egingo zeunkie ikusiko bazenduez zahagi handi bat galtzarpean sorbaldatik eskegita, eta hor hogei giltzadun txilibitu bat eskuan. Lehenengo putz eginda morroiok zahagia handituten dabe, eta gero zahagiak berak jotzen dau txilibitua norberak nahi daben legez. Putzak indartsu bage urtetea nahi denean, zahagiari sakatuten jako.

Hurrengo euskal idazleen batzarrerako badaroat horreetariko gaita bat Urni Durangokoarentzat.

BARRABASKERIAK

Heldu baino ez ginen egin, eta pozaren pozez gure morroiok garbitu ebezan hor ehunen bat kopako pattar. Gero gau aro oso ederra egoan legez, igon ontzi gainera eta han egin ebazan kitarra jotze itzelak.

Han baikotzak berea jaurtiten eban. Hogeita sei gizonetik bi ez gara herri batekoak, bata besteagandik urrunetakoak gara denok.

Horregatik, ene irakurle anaiak, holan pattar pixka bat edanda abestuten dabiltzanean itsastarrak, barreak egingo zeunkez eurori entzuten:

Batek: ¡Ay!... ¡ay!... ¡ay! Tres años de cárcel
y un día en capiya.

Besteak: Homes e mulheres, rapazes e tódo
poden ver á dote que o deu meu sogra.

Besteak: A Valensia m-han portal
em robaren els diners

Besteak: Aitite dala tutulunberde
amama dala mazusta.

Abesti guzti honeek eta beste asko nahastauta. Ez da nahaste barregarria?

GIZONAK BEHAR DIRA

Bi mila gizon behar dabezela esan dabe Ingalaterrako ontzijaubeek, ontziok behar den legez ibili daitezten. Estura garratzak igaroten ditu hemengo itsaske-tak gizonik ezagaz.

HIRU ONTZI LOTUTA

Ardrossanen dagoz lotuta hiru ontzi gizonik ez daukielako. Ontziburuak esan dwuskunez, pozik or-dainduko leukiez 46 laurleko. Baina ez daukie itxaro-penik, langilea urri ei da-eta.

HIRU ITSASPEKO

Hemen egon dira horretariko hiru, argindarra har-tzen. Indar hau jatorkie indarretxe handi batetik hari lodi batzuen bidez. Euren ontziak bete dabezenean, itsasora urten dira. Eurotarik bat gauean atzera etorri da.

SOLDADUAK

Asko dabilta hemen kalerik kale, eta portua barriz gudontziz beterik dago. Alaiak dira eurak goizetan jotzen dabezen musika-hotsak.

Gizonak gonekin eta emakumeak... Inoiz ez zeneduen ikusiko gizonik gonekin, ezta? Ba, hona etorriko bazintzakez ikusiko zeunkiez gizonak belaunetarainoko gona izurdunekin. Emakumeak, zuzen dakit gizonak gonak dabilezan tokian eurek prakak erabiliko dabezela. Hau dok arranokeria!

Oraintxe gomutatu naiz barriz neu be geure herriko Kirtengoiti-ko Merkurio-gaz. Honek ez eukezan praka batzuk baino, eta noizik behin Abarka bere atsoak garbitzen eutsazanean, harik eta gakoan lehortu edo higaitu arte, gona gorri atzetik irrikilu zabaldun bategaz ekiten eutsan koltzan artaburuak zuritzen. Behinola hauteskundeez hitz egiten etorri jakozan agenteak, hauek laster zirela-eta. Eta berak esaten eutsen hareei koltzako leihotik:

- Ez dau etxean Merkurio, Gernikara joan da.
- Baina, gizona, geuk badakigu zeu zarena, ezagutzen dogu zure hitza.
- Horra, ez naiz ba! -esanez etorri zen atera zapi handi bat buruan ipinita-. Soinekoetan ez deustazue igarten Abarka naizela?

GLASGOW-TIK

1915eko maiatzaren 11n

Gaur goizeko zortzietan urten gara Glasgowntik Gernarako. Agurka geratu jataz Jon, Anes, Kandika, neure adiskide zintzo Oriñon, Salvadora eta Pobeña ontzietan dabiltzanak. Ez dira bakarrik nire adiskideak, aberriarenak be badira zintzo-zintzoak, batez be Oriñon-go Jon bikaina. Agur ba, mutilak! Zuekin batera bardin agur dagitset hor Euzkadin milaka dagozen neure anaia kutunei. Jakingo dozue nire barri osterabe Jaungoikoak nahi badau.

Itsaso arriskuz betekotik goaz, baina Ama Birjina da gure alde, eta orain arte lege helduko gara gu osterabe goazen tokira beren eskerragaz batera.

Ibaian behera goaz, eta ibai ertzetako ontzigintzetan ez da besterik ageri gudontzi barria baino. John Brown and C.^o ontzigintzan dagoz oraindino uretara jaurti barik lau itsaspeko eta lau kanoiontzi, eta uretan akorazatu bat guztiz handi eta ederra, gertu noiznahi urteteko. Bere albotxuan beste 'dreadnought' bi, gitxi falta jakela amaitzeko. Honeez gainera dagoz lau kanoiontzi, eta bi itsaspeko gertu gudara joateko.

John B. C.^o ontzigintza baino itsasorago dago Deaslow deritzon beste ontzigintza bat, eta hemen dagoz ia amaituan lau kanoiontzi, akorazatu bat eta itsaspeko bat. Eta uretan, gudarako gertu, Dread-nought bat eta lantxa kanoidunak. Deaslow ontzigintza utzi atzetik eta berehala aurkitzen da Glasgow Corporation Bewage Purification Works deritzon fabrika handia. Hau utzi eta beste ontzigintza bat dago eskumatik; bertan lau zamaontzi egiten dihardue. Gero-txuago idoroten doguz ibai ertzean harri-mokil handi baten atzetxuan beste ontzigintza bi. Bertan ageri dira hor hamabiren bat ontzi barri, uretan eta lehorrean, seguru ez dakit gudontziak ala merkanteak diren.

Hau utzi atzetik eta agertzen jakuz hainbat baserrietxe, eta ibai-ertzean hainbat ardi, txahal, oilo eta faisan deritzen hegaztiak. Baserriok utziagaz batera agertzen dira huri alai eder bi ezkerretik eta eskumatik etxe eder eta zuhaitzez beteriko kaleekin.

Honeek atzetik doguz agertzen garenean osterabe hainbat ontzigintza eta fabrika dagoen herri eder batera. Bertan dakuskuz hainbat posta-ontzi eta osterantzekoak. Huri eder honetatik igarokaldian joale alaiek daragoie joten eliza denetan. Bederatzia dira.

Hamarretan urten gara itsaso zabalera, eta hantxe gelditurik utzi dogu praktikoa, berari emonik geure eskutitzak sendientzat, eta zuentzat, abertzale anaientzat Idazkitxu hau be berak daroa. Uste dot jaurtiko dauela idazki-kutxara.

Agur ba neure kutunak, Genoara arte, Jaungoikoak nahi badau.

Oraingoxe daroaguz eskegita geure txanelak, gertu ezer jazoko balitz.

GENOA-TIK

1915eko maiatzaren 23 eta 31n
eta ekainaren 3an

Bart gaueko hamabietan erregeak ipini zituen gu-
dapean Austria ondoan Italiak daukazan 10 probintzia.

Adriatiko itsasora emoten daben gaztelu denak
dagoz gertu etsaiari aurpegi emoteko.

Italia guztiko gudaroste eta gudontzi denak izan
dira gertuak, eta zaldiak eta burdiak batzen dabilta
gaur, gudaketara eroateko. Lehenengo eta bigarren
mailako gudalgai denek daukie ordena bihar goizeko
lehenengo orduan agertu daitezela bakoitza beren al-
dratara.

EGUNKARI GUZTIEN LANA

Egunkari guztiek dihardue herriari abertzaletasu-
na sartzen edo idazki aberkoiak idazten. Hara, honee-
tariko hitzak dinoez askok:

Italiako semeak, gaur deiez daukazue aberria, eta
ez eiozue belarririk itxi bere deiari, hornitu eizuez ez-
pataz zeuen eskuak eta zoaze zeuen erregeak dei egi-
ten deutsuen tokira. Zuek eskuan darabilzuen ezpatak

eragingo deutso behar den alderantz justiziaren balantzari. Geureak dira ba Austria pean aspalditxun dagozen herri zati bila goazenak, eta goazen bertara geure hiru kolorekoa bertako biztanleei erakusten, eta seguru dakigu besoak zabalik hartuko gaituezena, hareek geu legez bardin kanpotarrak edo geuk ikasi genduen hizkera bardina amauxuen altzoan ikasi eben anaiek.

FRANTZIAR GUDONTZI BAT

Dago Genoako kaiaren aurrean itxi eragiten hemen dagozan bidaiari-ontzi alemanei. Honeei esango deusiee bihar edo etzi, edo geratzen dira prisionero, edo osterantzean doazela beste kai batera eta, jakina!, urteten ausartuten badira berehala atrapatuko dabezela gudontzi handi horreek, eta urteten ez bada-be atrapatuta dagoz. Hainbat bidaiari-ontzi dagoz hemen, behinik behin 20 baino gehiago aleman eta austriar.

KONTRABANDOA AGERIAN

Espainiar ontzi batean atzo iharduen jaboï eta olio eta iko-pasa kajak hutsituten eta hareetariko kaja bat wagoi edo burdian ipinikeran apurtu zen eta 200 erre-

bolber browning urten ziren bertatik. Ontzi horrek eka-
rri ditu hor 250en bat kaja, eta dinoenez denetan ei
dagoz errebolberrak jaboï eta iko eta maspasekin na-
hastatuta. Suitzarako joiazen kajok, baina denok daki-
gu gero nora joango ziren Suitzatik.

TRIESTEKO ITALIARRAK

Guda usaina asmatuagaz batera Austriako gober-
nuak jaurti ditu hainbat sendi Trieste eta beste herrie-
tan egozenak. Dena bertan behera utzirik ihesi beha-
rra euki daben legez, askok guztizko negargarritzko ko-
adroak ikusten dira tren eta geltokietan, batez be txi-
roekin. Austriarrek agindu ei dabe ez katilu bete salda
emoteko hareei italiar gizajoei.

DENA ZARATA ETA ABARROTSA

Gaur besterik ez da entzuten Genoa guztian; kale-
rik kale jende aldra ikaragarriak, ikurrinak lepoan da-
bezela, *Gora Italia!* deiadarka. Goizeko seietatik eta
eguerdira, bost berarizko tren hogeita hamar etxetik
bakoitzak dabezela igaro dira soldaduz beterik. Burdi
guztiak ikurrin eta lorez beterik eroan dabez.

Ontzi hau be bete jaku berehala morroiz eta, jaki-
na!, hor zortzi laurleko balio dauen gauzak saltzen

izan dabez bostegatik, bihar gudara doazela esanda. Barregarriena izan da neuri jazo jatana. Han joian harakina txahal oso bategaz.

- Baina, gizona, zertarako horrenbeste okela, egiten dauen beroagaz?

- Hara, bihar ateak itxi behar dodaz eta zu heldu zarela jakin dodanean pentsatu dot zeuri emotea neuri kosta jaten salneurrian, eta hahor daukazu.

Handik gerotxuagoan han jatort arrautzeroa 24 oilo eta 800 arrautzagaz:

- Zertarako, arranoa, horrenbeste arrautza eta oilo?

- Merke dozak eta jango dozuez -dinost berak, eta han doa ben-ben herrira.

Gerotxuago non ikusten dodan okina hiru zorro ogigaz, gerotxuago Batxitxa oskilariaren burua burdi bete aza eta idar eta abarrakeriagaz.

- Hartuizuz -dinost berak-. Gure Batxitxa bihar doan lege, ateak ixten goaz.

Arranoa! Guda ikusi dabenean honeei jazo jake gure herriko txirloiar legez Halley kometa ikusi eban. Harek be seko traste guztiak edari truke saldu ondoren, azkenean salgai ipini ebazan atsoa eta amaginarreba, eta honeek inork ez ebazan erosi nahi. Az-

kenean burdi zahar batean erabili ebazan kalerik kale,
«nork gura ditu sardina freskoak?» deiadarka.

TRANBIAN

Hiru bidaiari-ontzi aleman dagoz hemen loturik guda hasi zenik eta hona. Antzinako sorginen ipuinak lakoak zabaldu dira eurretaz. Hainbat kanoi ei daukie bodegatan, haribako telefonoa kezuloaren barruan, dinamitagaz beteta ei daukiez ontziko zulo denak, ustetik gitxien denean uzten da eraginda Genoako huri dena apurtzeko. Horregatik hain daukotse beldur ikaragarria ontzioi, ze inor ez da bertaratuten ausartetan. Atzo otu jakon gure ontziko germanofilo bati ontzi horretako agintariari bostekoa estuten joan behar ebala. Baina zein txanelero eroan? Ez egoan Genoako kai guztian ontzi horren albora joan nahi ebanik.

Gaur goizean neure adiskide bat eta ni sartu gara piperra baino serioago tranbia batean, geure hartu-emonez gabiltzala hizketan euskaraz, badinost nire alboan joian zaldun batek:

- Jaunak, esango deustazue, arren, nondarrak zaren?

- Zer ba?

- Zeuen hizketaren tintitxu bat be ez dodalako aditzen.

- Ba, gu alemanak gara -dinotso nire lagunak mututu barik.

- Alemanak?

- Bai, ene gizontxua.

Honetan hasi dira burdian joiazan denak isilik natuetan eta isil-isilik lantzean batek urtetan. Hemengo Piazza Principe-ra heldu gareneko gure bagoi hori dena hutsitu da. Orduan dinost nire lagunak:

- Tira, Batxi, luzetu oinok -eta horrelaxe heldu gara etzunda tenpleu ontzi hegaleraino.

Jaitsi garenean dinosku txarteleroak:

- Adio, figli di cane.

Hahori dok hitza! Baina geurea errua guzurra esan dogulako.

ITALIA ETA GUDA

Genoako berrogei abadek eskatu dabe Austriaren aurka borroka joateko tokia. Erromako gobernuak eskerrak emon ondoren esan deutse doazela Gurutze Gorrira, eta bertan bete daiela euren eginkizun santua.

Eliza guztiak dagoz oraingoan beterik, euretan dagoen sartu-urtenak ez dauka neurririk, batez be soldadu asko santuaren aurrean belauniko otoi egiten.

Ehun mila laurleko agindu ditu hemengo aberats batek lehenengo austriarraren guda-ikurrina atrapatzen daben soldaduarentzat.

Torino deritzon hurian atrapatu eben atzo hogeituro urteko neskabila bat gudari jantzita bagoian beste gudari aldraren artean. Agertu zenean poliziburuaren aurrera, negarrez belaunikoturik eskatu eutsan utzi daio-la joaten bere bidean bere senargaia eta neba denak joan direla-eta. Ez eutsien utzi, eta gaur heldu da neskabila hori hona (ba hemengoa da) eta geltokian euki ditu bi mila lagun baino gehiago txalokatzeko utzi eragiten.

Euren burua erahilten dabenak asko dira aspalditxuon Italia guztian, batez be gudarien sendien artean. Hau ikusirik, erregeak errukiturik agindu deutse egunkari denei egin daiela ahalegina hainbat hitzik gozoenekin albisteak argitaltzea, sendien bihotzak nahigabetu beharrean poztu eta atsegintzeko.

Gudarien sendiei sorospena emoteko hemengo Udalak erakunde bat asmatu eban, eta gaur artean batu daben kopurua da laurlekuak 358.135.

Hemengo gotzai jaunari arrenez eskatu deutso Genoa-ko alkateak Korpus Kristiko prozesinoa ez daiela egin kalerik kale aurten, eguraldi ona egin arren be. Honek erantzun deutso berarizko eskutitz batean, eliza barruan egingo dela ateetatik ezertarako urten barik.

Atzo urten eben hemendik hainbat trenek traman-kulu eta gizonez beterik. Negar zoliak egiten ebezan Milano deritzon kaleko emakume eta neskatilek ikusirik geldiro-geldiro euren aurretik trenak joaten. Aberriak hor gure herrietan bagoian eroaten dabezen legez eroezen gudariok. Hirugarren klaseko burdirik be ez egoan hareentzat, zaldia eta txahalak eroaten diren bagoiak azpitik galtzuagaz baino. Denek iritzi eutsen txarto gudariak eroateko modu itsusi horri. Halan eta guztiz be, gehienak alai joiaz, batzuk «Gora!» deiadarka eta beste batzuk abesti aberkoiak kantuka. Bai, ene irakurle, italiarrak hor dira kantuka. Hara zelan:

*Trieste y Trentino
será italiano
per forza de cannon...*

Bien bitartean gu eusko-odoldunok adi gagoz munduko estatuek daroen bideari, bakoitza bere himnoak abesturik hor dabilta hiltzen gudan, eta guda hori noren erruz den inork ez daki, denok bata bestearen erru emoten dabelako.

Hortik da ezagun guda ona ez dena denok dakie-la, asmatu dabenak berberak be inori errua ezarririk eskuak garbitu nahi dabezelako.

Guda balitzate gauza on bat, denok ibiliko litzatez esaten elkarri «neu naiz hori asmatu dodana» eta abar, baina orain ezagun da asmatzailea bera be lotsatuta dagoela asmatu dauen horregaz.

Gu euskotarrok be, gomuta gaitezen eta ahalegin-du gaitezen be geure aberri ederra askatuten, baina kaiolekin ametsetarik egin barik, inor hiltea pentsatu barik, eta honetara lortuten badogu geure gura izana, ikasgai bat emongo deutsegu XX. gizaldian elkar erahilketa itzela asmatu dabenei eta ilustrazino eta aurrerapidean gorengo mailan egon direla uste izan daben estatu handiei.

MAZARRON-DIK

1915eko ekainaren 6an

Sarritan esan ohi eustan txikitxua nintzenean neure amak:

- Batxi, emoten deusudan sartadagaz, bazoaz Murtziaraino.

Nik orduan uste izaten neban guztizko urrun ego-ela herri arrano hau, eta pentsamendu garratzak egin be bai, zelango herriren bat ez ete den.

Horra nondik, handia hazi naizenean noizik behi-
nean ikusi beharra heldu jatan, baina behinik behi-
nean Murtzia guztia Mazarron lakoa bada, ez ikusteko hobia da.

Joan naiz gaur herrira eta atzetik izan dodaz hor ehunen bat mutil txiki ingelesa naizelakoan, «Johnny, givi guan penny» esaten. Arraioa!

- Ni ez banok ingelesa, ni euskalduna banok.
- ¿E usté basco? ¿Ese pueblo no é inglés? -dinost agure batek.

- Ez dozu ikusten ba gure ontziak ze ikurrin dau-kan atzean? Hortxe da ezagun ingelesak ez garela.

Karabinero batek dinost orduan:

- Aquí cuasi toda es gente que no sabe de letra y por eso no conoce la bandera.

Zeuen ikurrina be ez dozue ezagututen? Gero etorriko zarie gu ilustretan hara gure herrira zuen ikurrina larregi be bazter guztietan ezagutzen daben tokira.

Orain bederatzi hilabete geure ontzia zamatu zen meatzez hemen. Ordutik eta hona besterik ez da zamatu. Mutilak, hemen jagok gosea!

* * *

La Calera-tik eta Mazarrongo hurira hiru ordu baino gehiago dagoz oinez, eta, arranoa!, egun guztietan atzera eta aurrera oski guztiak apurtzen izan dodaz. Horra ba, atzo badakizue zer egin neban? Asto eder bat erosi sei hogەرleko eta erdigatik. Orain ederkі nabil eta inork atzera erosi nahi ez badeust, goazenean neugaz daroat, hahor nondik orduan izango garen barruan bat gehiago.

EKANDUAK

Adiskidetasuna harturik hemengo sendi batzuekin egun gitxian sumatu dodaz euren bizikeriaren zertzelada asko. Hemen ez dago hamasei urtetik gorako neskatilarik, ez egurastuten ez kalean zehar bakarrik

ibilten denik. Beti ibiltan da eurekin euren ama edo izeko edo beste pertsonaren bat, bertorako osoz itsusia delako neskatala bat bakarrik ikustea.

Senargaia agertzen jakonean, mutilak bati egiten dau hitz neskatalaren amagaz, eta inoiz be ez beragaz. Ikusi beleukez elkarregaz bakarrean zeresanak izango litzatezelako.

Mutil gazte gehienek dakie kitarra, mandurria edo laud deritzona jotzen, eta gauero joan ei dira euren maiteen etxera (lantzean batera) euren tramankuluekin euren bikaintasunak erakusten. Neskatalen etxekok jakiten dabe zer ordu inguruan etorriko diren, eta gertu egoten dira gazte aldra hori hartzeko. Mutil aldra jezarten da hartarako ipinita dagozen jarlekue-tan, eta berehala hasten da orkesta. Etxeko neskatalaren senargaia jezarten da bere aita-amen erdian, eta ahoz hitzik beren maiteari zuzendu ezin izan arren, beren musikagaz zuzentzen deutoz beren bihotzaren txatalak. Burua beraturik eta ezpainetan hainbat atse-gingarrizko amets dauzela eskertzen ditu harek bihar-etziko emazte zintzoak beren gogoaren barru-barruko-ak maitekiro zuzentzen deutezan tramankulu musi-kalariaren hari jakin eginiko hitzak.

Lau edo bost pieza joten dabezenean, agur eginda joaten dira mutilok beste adiskide baten emaztegaia-
ren etxera. Neskatiaren aita-amak laguntzen deutse ateraino, baina neskatilak ez. Harik eta ezkondu arte, ez ei ditu bertan behera uzten amak bere alabak, eta amarik ez daukanari egiten deutso zain, edo izeko edo aizta ezkondu, edo nor edo nork.

Gazteak ginenean, ene irakurlea, gu be sarritan jo-
aten ginen neskatiaren etxera, baina ez musika jotena, ezpabe ze haginei eragiten baino. Halakoak ginen gu, kendu neskatiaren aita-amari txitxi-koipetsu edo ahoz-
peko arrautzak eta katilukada esne garratzak eta, ipinten genduenean sabel zitala ondo, urten. Eta garratzena: gure herriko Trinkoniok bere emaztegai Mari Kontze Errotokerkoari hamazazpi afari garbitu ondoren, ezetza emon eutsan eta honez gainera, behera-
goko koplak abestu:

*Arratzu ta Mendata
alkarren onduan
bitarten Errotoker
hor beheko zuluan;
Mari Kontzen kontura
ai neure ahuan*

*hamaika kopau eder
sartun dot barruan.*

GLASGOW-TIK

1915eko ekainaren 26 eta 30ean
eta uztailaren 1 eta 4an

GUDA

Dabiltza borrokan elkarregaz bederatziehun milioi gizon, eta geldi eta bakean dagoz zazpiehun milioi, eta geldi dagozen asko be gertuten daragoie beren armak badaezpada bihar edo etzi borroka hasi behar badabe.

Azkenengo garaipena ez dakigu nork eroango daben. Behinik behinean ezkutapen itzelagaz ikusten doguzelako gauzak.

Behinik behinean garaile alemanak urtengo baleuke, be ezin esan geinke euren burutasunak ondo urten deutsenik, ze euren ustea zen behingo batean Parisen sartzea eta handik sakelkadak atera ondoren harro-harro euren etxera joatea. Baina zer! Danbadak arma atzetik urten deutsie gizagaixoei.

Bai, halan dira gauzak! Alemanek uste eben, sol-dadu bikainak-eta asko eukelako munduaren jaubeak zirela; ez ziren. Barriz horretara bardin pentsatu eban Ingalaterrak, bere itsas armada handiari begiraturik.

Horra ba, bioi tokatu jake elkarri oratutea, eta hor ba mutilok!

Sartu ziren Amerikako Estatu Batuak be alemanei agirika. Denok uste genduen barrabaskeriaren bat urten behar dauela honeen eta alemanen artean. Baina zer? Ezebez, estatubatuarrek gogor egin eutsen alemanei, honeek oraindino gogorrago egin eutsen eurei, eta kitu.

Behinik behinean inondik inora ezin dodaz aditu ez yankitarrok ez alemanok. Harrotasuna eta tema bada-go Washingtonen, tema eta harrotasuna Berlinen. Horixe baino ez!

Euren harrotasun guztiekin be joango balitzaz elkarren hagin artera, eta bata besteari zakatzak atera, ederki etorriko litzake zakatzak elkarri ateragaz guda arrano hau amaituko balitz. Baina ez jakiat!

Alemanen alde dabiltzanek dinoe Ingalaterra hasi dela ziper lanean bakea lortuteko hainbat arinen, eta horrez gainera jakia be urritzen doazela. Horrexegaz ez nago batera morroiokin, ba jatekoa ugari ageri da hemen. Orain bai, egia da asko garestitu dela.

Barriz Elkartuen alde dabiltzanak ez dira nekatuten esaten Alemanian goseak hiltzen dagozela denak eta abar. Eta gudariak be honezkero nekaturik tiro bat

jaurti nahi ezinik ei dira, eta argi dago! Han be bake eske ei dagoz denak.

Horra ba bake-eske direla eta bakerik ez da inondik ageri. Hau barrabaskeria!

Orain bai, egia da, Ingalaterra ez dabil ugaritasuneko itsasoan uger, eta hau holan ikusirik, ez da sinesgaitza egunkariek alemanengatik dinoena.

Honeek estatu biok, ba lur jota eta odol hutsituta geratu behar dabena badakigu arin-arin euren gora-beherak itunduten ez badituez.

Italiarrak barriz aurrera doaz Austriako herrietan, austriarrek egin ahal leikezen ahaleginak alferrak izango ei litzatez italiarrok atzera-morko eraginik handik aterateko. Behinik behinean hareek Triesterantz doaz eta hor konpon.

Errusiarrok barriz, honeei seboa emon deutse eta euren mugarriraino joan dira.

Dardaneloetan Elkartuak sendo ei dabiltza. Orain hiru hilabete hemen ogia merketu zen penny-erdi, bost egun barru edegita egozala Dardaneloak-eta. Baina ez jakiat noiz jango dogun handik ekarririko garriagaz eginiko ogia. Oraindino fresko jagok ha.

Frantzian eta Belgikan beti dagoz bardin. Agintariok hasi leikez honezkero negurako guda-etxeak egiten. Ze amaitu orduko etorriko jakelako negu itzela be.

EZIN LEIKE URDINA IZAN

Hemengo policemaneke ni alemana ez naizela ezin dabe sinetsi; aldi batean Newcastle deritzon Ingalaterrako hurian espetxeratu ninduten alemana nintzelakoan, eta larri ibili nintzen aske geratzeko.

Lehengoan ostera Ardrossan deritzon itsas hurira egin genduen, eta herri txiki horretan hainbat adiskide egin neban aldi gitxian. Sarritan joaten nintzen etxea zen Murray deritzon irlandar batena. Urten genduean handik euren gomuta euki daidan, sendi osoaren irudia emon eusten. Haren ordezkari nik neurea emonik urten nintzen itsasora.

Nik itsasora urten eta lasterrean, sendi guztia eroan eben Police Court edo polizi-etxera. Honek denek juramentupean erantzun eben espainiarra nintzela. Orduan poliziok esan eutsen emoteko nire irudia, eta irudi horregaz egin dabez hainbat, ni ezagutu naizen toki guztietan.

Lehengo egunean ni herritik naizela, etorri zen polizia bat gure ontzira nire izena jakiten, eta nire argita-

sunak ikusten. Ez eben sinetsi eta joan ziren Bautistaren ordez ipini ohi dodan Batxi ondo ala txarto idatzia den jakiten Santanderko ontzi batera.

Algortako katarrak 'holandesa' deitzen deust, baina holandesa barik alemana ete naizen nago, nik neuk ezebe jakinge.

ITXAROPEN OSOA

Elkartuek garaipenaz urtengo dabela itxaropen osoa dago hemen. Noizik noizera edo, hobeto esateko, egunero dakarrez egunkariek hiru-lau ontzi hondora joan direla eta holan, baina honegatik zirkinik be ez dau inork egiten. Urrunago joan barik, herenegun hemendixik urten eban ontzi eder bat galdu dela gaur etorri da albistea, baina barri hori herriak hartu dau ezertariko ikararik бага.

Lau aste barru turkiarrek larri ibili behar ei dabe. Hareek ez ei daukie honezkero ez gudaririk, ez jakirik. Gainera barriz Italiak be ontziak bidali ditu Dardanelo-etara, eta barriz Bulgaria be laster hasiko ei da jotzen. Irakurlea, noiz amaituko ez ete da guda ikaragarri hau?

BIARRITZEKO ONTZIBURUA

Atzo heldu zen hona Biarritz deritzon haize-ontzi handia. Hainbat euskotar dauka barruan, baina frantsesak direla esan deuste. Horra ba, ni jakingura naiz, eta gaur barruratu naiz, eta bai eztabaida itzelak euki be bertako ontziburuagaz eta agintariekin.

Esan deustenez, Frantziako Gobernuak agindu ebazan Bartzelonako fabrika batera hainbat mila oinetako soldaduentzat, eta atzera bidali beharra izan dabe kartoizko zola-eta txarto eginak izan direlako. Eta beste fabrika batzuetara be frantsesek eskariak egin ditue: uhalak, estalkiak, galtzerdiak, eta abar. Baina zer? Uhal orde zkatu-narruzko zintak bidali ei deutsez, estalki orde z edozer gauza, eta galtzerdi orde z barriz txarrikeria bat. Horra ba, orain Frantziako Gobernuak, haserreturik, Bartzelonako gauzei atea itxi deutsoz, eta bartzelonatarrak uliari tiraka ei dabil-tza. Baina, norena errua? Euren, erbi orde z katua sartu gura izan dabelako.

- Guk -esan deust- geure eskariak espainiarrei egin beharrean Ipar Amerikara egingo doguz, hareekin usterik egin ezin leikelako saldu-erosi arazoetan. Horregatik ez da jagiko Espainia, bere semeek hautsa begietara jaurtiten deusi-lako.

Ontziburuak inostan:

- Zuek beti izango zarie bardinak, ez zarielako inoiz eskarmentetan. Hartu-emonak txarto zeunkeze-lako Kuba galdu zenduen. Itunduten ez zarielako daukazue amai barik guda Marokon. Zuek betikoak zarie, inoiz ez zarie konturatzen ezegaz. Oraintxe era euki dozue pixka bat ondo geratzeko zeuen salerostea zabaldurik. Eta zer? Hegaz egin ezin dauen txori bat baino oraindino beherago gelditu zarie.

Zintzo-zintzoro hitz egiten izan deust ontziburu horrek, eta sinetsi dot esan dauena, eta zer erantzun be jakin ez dodan legez, neure ontzira etorri naiz go-goetez beterik...

HEGAZKINAK

Hemengo hegazkin etxetik gaur hiru txorigizon urten dira tramankuluetan eta kaian dagozen ontzien gainetik hegazkada ederrak egin dabez.

GUDONTZIAK

Hor lau oin inguru uretan sartzen diren gudontzi pilo bat egiten daragoie hemen. Zapalak eta zabalak eta osoz laburrak dira, eta euren makina petroliozko indarraz ibiliko da. Ez dakit norako izango diren on-

tziok, baina seguru esan leike Dardaneloetarako izango direla.

ITSASTARRAK

Mediterraneo itsasoko ontzietan sugile eta lema-riak lortu dabez. Goizean, kafea eta ogia; gosaritan, hiru jaki eta ardao eta ogia; eta bazkaritan, lau jaki, eta ardao eta ogia eta kafea; purorik ez dot uste damotsenik.

Hori hareek lortu dabenean Mediterraneo itsasoan hemengoak be txor-txor hasi dira, eta aldi gitxi barru hor joango dira oporrera beharbada.

Ia ba, ontzijaubeok, zabaldu sakelok, gitxienez behar direlako hiru laurleko morroiok elikatzeke (ba-koitzarentzat).

IRUDIAK

Hemengo *Sunday Pictorial* deritzon egunkariak gaur dakar daniar ontzi Thistleboork-eko itsastarren irudia. Ontzi horri bost minutuko epea emon eutsen alemanek, eta ontzikoak txaneletara atera ebezen elikadura apurrak, ez ekielako zenbat aldi itsasoan egin beharko eben. Itsaspeko mutilek guztiak ostu eutsiezen, eta eskerrak berehala ontzi batek harrapatu ebazana, osterantzean elikatubage larri behar eben.

SOLDADUSKARA

Hirurogei mila dira soldaduskan euren guraz egun gitxian barruan sartu direnak. Ikusirik hain abertzale-tasun handia beharginen artean, guztiz alaitu da Kit-chener.

Lloyd George barriz ez dago inori erantzunak emoteko. Lehengo egunean hurreratu jakozan batzuk itaunka eta koipekeriekin, eta hauxe izan zen bere erantzuna:

«Zuhaitz luze batetik bestera lotuta ikusiko bazen-due alanbre bat eta alanbre gainetik gizon bat doala igaro nahirik, bere ardura osoa horretan ipinita, zer egingo zeunkie? Ez da egia arnasa barik, bihotza dardarka egongo zintzakezela, harik eta gizon hori beste aldera igaro arte? Eta ez zintzakeze isil-isilik egongo, zeuen hitz zaratagaz bere zereginean aditasuna galduta, jausi eta hil ez dadin morroi hori? Ba, niri be utzi bakean alanbre hori igaroten oraintxe nabilelako».

ABERRITIK URRUN

Ikusten doguz euskotarrak munduko alde guztietan zabaldurik, euren lege zintzoari azkenengo aizkorakada emon eutsenik hona.

Lehen be zaleak ziren gure aberkideak herritik urrun ibiltzen, baina lege zaharraren azkenengo txatalla eroan euskuenean batez be, deritzotenez gure gurasoek aberria ez ikustearren zoritxarreen-edo, asko eta asko aldendu ziren Argentina eta Amerikako beste zoko askotara, aberrian ez eukena bilatzen.

Ikusten dira oraindik Karren Kuba eta Kalifornian eta abar gure aberkideak zabalduak, hegape batean jaieriko txitak kaskoduten direnean zabaltzen diren legeez, eta euren bekokiko izerdiagaz kale osoak ederturik eta salerosteari indarra emonik, herri osoak aberasturik, euskal abizendun fabrikak han-hor ageri direla; eta bakean hantxe bizi dira gure anaiak arrotz-gobernuen legeen menpean.

Euretariko askok lehenengoz mundu-argia ikusi ebenean aberritik urrun egozan, ezbehartsuak! Euren gurasoak legeez aberriko mendi-bitarteetan jaioteko atsegina izan ez ebelako, euskal odoldunak izan arren. Guraso horreek munduan zehar abiatu ziren, eta heldurik urrunetako herrietara euki ebezen umeak.

Zenbat nahigabe, zenbat samintasun eta zotin herriaren ama sendoak aho-bete jateko idoroteko, Pampa-ko amaibako zabaletan, bide-aldi itzelak egiten egun osoetan, eta beharbada horreetariko bide-

aldi batean Goikoak halan nahirik, sein eder bat munda. Jaio barriaren haragi samur bigunak zegaz estaldu ez! Sabela pixka bat berotzeko elikadurarik ez!

Gure herriko asabok heltzen ziren noiz edo noiz izendatu jaken lur zatira, eta gerriak ondo makurturik lortuten eben lehen sasiz eta bedarrez hornituriko lurrak atxurtuta solo eder mamitsu bihurtzea.

Hantxe be ezagunak izaten ziren; euren gorputzak lanen indarrez nekaturik jezarten zirenean zoiz egini-ko ei ziren etxe zantarretan, lurrean belaunikaturik euren otoiak egiten eutsien Euzkadi hainbat maite dauen Jaungoikoari.

Euzkadin jaioak izan ez arren, guraso honeen semeak euskaldunak ziren, egunero gomutatu eragiten eutsielako euren aita-amak, bateko han mendi tontor-txua, besteko han erreka-stoa, eta abar aberrian egoa-zanak.

Gogoan euken bai, eta ez ziren inoiz ahaztuten euren aberria bere buru izana zelaz, eta euren aldian ez zelako, ibiliak ziren mendirik mendi atzera lege zaharrak lortuteko uste guztiaz gudan, bata bestea erahilten! Baina zer? Lehen baino oraindino txartoago geratu ziren. Kortan abere barik, baso ederrak suak erreta, aurreztuta eukezen diru apurrak lege zaharra

ekarriko ebalak esaten ebanari dena emonik, geratuten ez jakela ez abererik, ez basorik, ez dirurik.

Holan ihesitakoak dira guk urrunetan ikusten doguzen aberkideak. Batzuk aberasturik dagoz, baina zenbat neke igarota!

Ahorik aho esanak izan diren legez gure asaben samintasunak, halantxe izan dira kontatuak gure antzinako legearen edertasunak. Horra ba hasi ginen edertasunok atzera lortuteko lanean ziper. Munduan beste herri batzuk be oraingoan ahalegin bardinak darrabilez. Herri batekoak ba estatu bat eurentzat nahi dabe, eta holan nahi izateaz Ingalaterrako gobernua alaitzen ei da. Horra belgiarrei euren aberria zapaldu eutsieelako joan zen berau gudara, eta irabazle urteten badau, zer esanik ez dago, belgiarrak euren aberriagaz (oso-osorik) geratuko dira. Serbiarrak be bai, eta Bulgaria, Errumania eta Italia be bardin. Munduko herri guztiak izango ei dira bakoitza bere legeekin erabiliak, guda hau ei da ba justiziazko guda Elkartuentzat. Italia Elkartuekin joan da, «Italia italiarrentzat» esanik. Bulgariak, Serbiak eta Belgikak be bardin.

Eta guk, euskotarrok, zer esan geinke ba? Guda amaieran jausiko ei da Justiziaren balantza behar den

aldera. Baina balantza hori eskuetan daukanean, gogomutatuko ete dira gugaz?

SAVONA-TIK

1915eko uztailaren 20 eta 21ean

Herri honeek ba txirotasunaz zapaldurik daukaz, ez da ikusten besterik gosekila elizarik-eliza baino. Samingarria da ikustea hainbeste emakume beharbada euretarik asko guduka itzelean gizonak hil jakezenak laguntza eske.

Gauetan kai eta huriko argiak, denak amataten dira, eta horra hor herri bat baserri mendiarteko bat baino itzalagoa. Baserriak ez dira hurien beste itzalak behinik behinean honeek argirik bage dagozenean.

Laguntza bila etorri jatan emakumetxu bati itaundurik bart ia zergatik ez dabezen argi banaka batzuk iziotuten, erantzun eustan hegazkinak hau herriau ikusita bonbardeatu ez daiten dela. Holan bizitekotan barriz -inostan-, hobe baten alemaniar eta austriarren tramankuluak etorriko balitzaz eta erre une baten, hasi alderdi baten eta bestera. Gero emakume honek esan eustan gizona bizi eta gudatean egoan arte eguneko 1'10 emoten eutsola gobernuak, eta oraintxe hilibete hartu zela hil-albistea, eta ordutik hona ez deutsola inork ezer emoten.

- Nire gizontxuak aberriagatik emon eban bere bizia -inostan negarrez-. Aberriak barriz saritu behar ninduke eroan eustalako betiko neure laguna, baina aberriak ezer be ez damost, eta ez dago beste urteerarik edo... edo laguntzatxu bat aterik ate eskatu.

Gaur oster a be 162 zauritu heldu dira. Savona guztiko emakumeak han izan dira ia euren kutuntxurik heldu bada ikusten. Hala beharrean be, gitxi izan dira bertoko semeak, baina izan direnak euren sendiekin topo eginez gero koadro laztangarriak ikusten izaten dira. Gomutetan naiz mutil eder bat bere amaren ahotsa ezagutu ondoren hau ikusi dauenean beroni besartetu jako pozezko malkoekin, eta inork ezin ekian kendu gitxienez bost minutuan.

Giovanni okina osoz da adiskidea neugaz, eta elkarregaz joan gara gaur bustialdi bana hartzen. Hone tan hondartzan jarrita ijiji eta ajaja ikusi doguz bederatzi andere moltzo. Euretarik batzuk agurka hasi jakuz eta eskukada hondarra geuri jaurtiten.

- Joaten banon horra, ha zer astinaldia emongo dunatan -esan deutso Giovannik.

Horra ba, amaitzeko, gehienok gizonak gudan eukezanak ziren, eta gomuta asko barik ebiltzan jolasean.

Beste atso motz asko ikusi oi dodaz goizero plazan otzaratxuak galtzarpean dabezela hiru kanako hagin-baltzak agirian barre zantzoak egiten. Honeek ba, jakina, mizketuta dabiltza, gizonen gomuta askoge.

Politena da barriz gure ontziaren aurre-aurrean dagoen ardanetxeko atsoa. Gizona joan jakonik eta hona, hasi goizean eta gaueraino amaibako lebatzagaz dabil. Gauean oheratzen da bere gizona baino maiteago dauen Don Ardao-gaz, eta goizean jagiten denean berehala hasten da mosuka bere adiskide kutuna Doña Txitxiparra-gaz. Hurrengoan argi-argi esango deusuet bere izena delako guztiz ezaguna eusko-tar itsastarren artean.

Ardanetxe horretara joan zen gure ontziko arotza atzo, eta hamar edontzikada ardao edan ondoren hiru txakur handigaz ordaindu nahi eban. Hau ikusirik, atsoak eukan lebatzagaz, bonbil bategaz apurtu eutsan burua. Arotz honek be sabel zitala eukan, eta jakina, han izan zan barrabaskeria itzela zen.

* * *

Savona da Genoako itsas bazterrean dagoen huri bat kai ederra dauena bere ertzean. Hor Bilbao baino zeozer txikiagoa izan bai, baina ez askorik.

Kai bi daukaz; bata da Porto Vecchio, eta bestea Porto Nuovo. Kai zaharrean haize-ontziak bakarrik ikusten dira antzinako urteetan legez, euren lokarriak emonik ertzero.

Ertzean barriz, ate guztiak dira ardanetxeak eta ontzitik jatsiez gero, oinkada baten dago bat barruan.

Ardanetxeok osoz dira etxe zahar apurtuak. Euren hormek hizketan balekie... hamaikatxu gauza kontatuko leukiez. Zenbatek eurretan utzirik euren maitea ihesiko eban ametseta gozoak egiten itsasoan zehar, eta barriro etorri zenean, beste bategaz ezkontuta behar bada aurkitu eben bere bihotzeko kutuna. Eta beste batzuk barriz, ardanetxe horreetan utzirik euren emazte eta amatuak, anpuluak lehortu ezineko negarrekin egingo eben agur eta, hau txarrena... betiko! Beste batzuk barriz urte osoetan irabazitako alogerak ardanetxe horreetan utzirik joango ziren Savonatik gehiago ez etorteko gogo barik... Ez noa egiten filosofia gehiago.

Kai barrian be badagoz ardanetxeak, baina hemengoak oiezko txoznak dira, eta gogait egiten dabenean, toki baten hartu dandarrez, eta eroaten dabez beste toki batera zahagi, upel, pitxer, emazte eta amaginarreba eta denak barruan direla. Eta barriz

holan txikitxua bada ardanetxeori, hartu sei-zazpiren artean, eta lepoan eroaten dabe, baserrietan gorpua eroaten daben legez, bardin.

Kai zaharraren ertzean dago torre bat antzinako itsastarrek eukena ikusteko zelan egoan itsasoa. Gaur itsas praktikoen bulegoa dago. Torre horren izena da 'La torre di Pancaldo'. Itsas aldetik dauka Ama Birjinaren irudi eder bat, baina osoz ederra. Irudi horren goiko aldean hauxe irakurgaiau:

Irato in mare da subita procella

Invocare a nostra benigna stella

Hemen beheko aldean dago koadro bat guztiz antzina egina. Ezin leikio igerri zer den estalduta dagoe-lako, baina halan eta guztiz be, igerten da margo ona daukala, ze Udalak agintzen ei dau urteoro estalgarri gehiago ipinteko, eta halan eta guztiz be, inoiz ez dago behar den legez estalduta. Beti urteten dau gainera koadro horrek.

Torreak huri aldetik dauka Ama Birjinaren beste irudi bat oraindino bestea baino ederragoa. Torre horren aurrean hasten da Via Paleocapa, guztizko kale ederra, alderdi bietatik arkuak daukazela Bilbaoko Plaza Barrian legez. Torre horren ezkerretara dago Savonako antzinako herri zaharra. Kale estu eta lohiak

dira bertan dagozen denak. Badira kaleak lagun bi ibili ezingo litzatekezenak elkarrekin.

Orain bai, ezagun da eurretan bizi ziren biztanleak euki eben sinesmen sutsua, ba ez dago elizarik hiru edo lau Ama Birjina irudi ez dabezenik ipinita kristalezko kutxa ederretan.

Honeetatik irudietatik Ama Birjina irudi ederrena da ardanetxe bateko horman dagoena. 'Madonna dil Carmine' da, eta beheko aldetxuan dauka idatzita jainkozalaren baten ezkila: *Salve, Salve, Salve*.

Etxeak be osoz zaharrak dira, eta gehienak dendak. Eta ez dago bat Ama Birjinaren irudia ez dauenik, bere argi eta guzti. Horra ba, denik eta txiroenak be argi egiten deutso hemen Ama Birjinaren irudiari.

Bachicha deritzon bat da hemengo patata saleroslea. Berau barriz erlijioaren etsai garratza, beronek esaten dauenez. Abade eta abar frijiduta esan leike jango leukezala morroi honek. Horra ba, gaur goizean joan naiz morroi honen dendara, eta non ikusten dodan marmolezko irudi eder bat kandela eder bat aurrean dauela iziotuta.

- Eta Bachicha, zer dok hori?

- Hara, neure amari emon neutsan hitza hil zenean ez zela inoiz irudi hori argi barik egongo, eta ho-

rregatik da. Osterantzean nik apaizak gosaltzeko, eta lekaideak bazkaltzeko, eta lekaimeak bitarterako gitxi dodaz. «Viva la Republica! Abasso il...».

– Isilik egon hadi, kirten asto handiori –esan deusat neuk–, hi langoak asko jagozak han gure herrialdean be.

Herriaren ezkerreko aldean itsasotik begiratuta dago gaztelu handi bat kanoiz ondo horniduta. Bere hegaltxu baten dauka idatzita italieraz: «Gaztelu honetan hasi eban Giuseppe Garibaldik Italia aske ipinteko lana».

Herri barria beste edozein huri legez da. Kale zabal eta ederrak, kafetegiak, jatexeak eta abar.

Paseo eder bat be badago zahaitz eta loraz beterik, eta baita plaia ederra be bustialdiak hartzeko. Itsas ertzean bertan dago barriz Teatro Vanda deritzon antzerkia. Gauero dago bertan zeozer bustialdiak hartzen dabezenei aldia igaro eragiteko.

GLASGOW-TIK

1915eko abuztuaren 25ean

BANANDU EZINDAKO ADISKIDE BI

Gaur egon naiz zinematografo batean, eta izen horixe dauen pelikula bat ikusi dot, eta azaldutera nator-tzue, hemengo jolasgaien barri izan daizuen.

Urteten da lehenengo Kaiserra, eta beste bide batetik datorkio Infernuko Satana, hiru horzdun sarda eta guzti, eta itsasoa erakutsirik, eta bertan ontzi bat, dinotso:

– Adiskidea, han be emakumeak eta umeak bae-gozak. Hilko joaguzak?

Eta baietz erantzunik, han doaz morroi biok ontzia-ri bultza egin eta hondoratzen.

Hainbat ontzi hondoratu, eta hainbat emakume eta ume txiki hil ondoren, Kaiserra mendi txuntxur batetik behera jausita hilten da, eta hamaika barrabas-keria munduan egin arren, zerurantz doa.

Baina zerura bidean etsai asko aurkitzen dau. Ilar-gia, izarrak eta enparau guztiak dagoz kanoi eta ame-tralladorekin, baina Kaiserrak denak isildu eta aldera-tzen ditu 420ko kanoi luzenga bategaz.

Azkenean heltzen da zeru atera, eta San Pedrok damotson ostikadaz ez da gelditzen harik eta Satana-ren galdaraino heldu arte. Eta helduaz batera heltzen deutse bertan dagozan Satanaren otsein guztiek, eta han da barrabaskeria!

Jataldi bat egiten dabe elkarregaz, eta bankete honen azkenean Kaiserrak Cruz de Hierro ipinten deuto Satanari txakur-kate handi bategaz eskegita, infernutarren txaloak alderdi guztietatik direla.

Infernura heldu denean ikusi bazenduez Kaiserra-ren bizarrak, hamaikatxu barre egingo zenduen!

MELILLA-TIK

1915eko irailaren 28 eta 29an

Gaur goizean heldu gara, eta berehala joan gara herrira ontzi burua eta neu Minas del Rif deritzon elkartearen administradoreagaz. Heldu gara herrira, eta nik neure zereginak egin dodazanean eta ontziburuak bereak, Alhambra kafetegian elkartu gara, eta Minas del Rif elkartearen administradorea be haraxe etorri da geure ondotxura kafea hartzen.

Berehala jaun honek ekarri deusku geure ondora beste jaun bat hainbat bider bere irudia Madrideko egunkarietan ikusi dodana, eta eskua estutu ondoren geure albotxuan jesarri da garagardo pixka bat edaten.

Orain zuek esango dozue: nor arraio dok ba hori? Hara, ez larritu, esango deusuet-eta. Morroi hori da italiarrek orain urte batzuk Abisinian guda garratza euki ebenean Italiako gobernuak Abisiniako Sultana-ren ondora bidali ebana bakea egiteko. Abisiniako eta Italiako hartu-emonak lege onean ipini ondoren estatu biok adiskide ipini ebezan.

Adiskidetasunezko hitzak Abisiniako Sultanari esaten egoala erretratista bat heldu zen bertara, eta Sultanaren aginduz bere tramankulu eta guzti sartu eben espetxe itzel batean. Gorago dinodan honek gizon gizagaixo honegaz egin ebena ikusirik, erretratista horren askatasuna eskatu eban, eta gainera irudi bat egiela Sultana eta bera bake usainean besarkaturik agertu zeitezen. Sultanak lehenengoan ez eban bai-menik emon gura, baina gero bai. Bere etxean dauka argazki hori eta bertan ageri dira Sultana eta berori.

Italiarra da berau, baina Espainiako gobernuaren menpean dago. Hegazlaria da, eta arabe hizkera arabiarrek eurek baino hobeto daki. Horregatik da guztiz balio handikoa Espainiako gudarostearentzat. Zeluan deritzon tokitik urten oi dau lantzean behinean hegaz bere tramankuluagaz turkiarren soinekoak jantzirik eta zuzen-zuzen joaten da oraindino Espainiak menperatu ez dauzen jara edo erkietara, eta han osalari turkiartzat bere burua egiten ei dau. Moro guztiek besoak zabalik hartzen dabe, eta ihes egiten dauenean mosu ez besteak egiten deutsoez. Beronek be hara doanean haginak garbitzeko zepiloak eta zaharrei indarrak emoten deutsezan pildorak eroaten dauz, eta herri guztietako zaharrek guztizko abegi onagaz begi-

tuten deustie, eta gazteek berriz «hainbat arinen heldu» esanik agurtuten dabe bere tramankuluagaz ihes egiten dauenean. Bien bitartean hainbat plano egiten dau beronek Espainiako gudarostearentzat, eta kitu.

Ibilkera guztiak eginiko gizona da berau bat izendatu ezean, eta berau da itsaspekoan inoiz ez dela ibili. Osterantzean ibili da asto gainean, zaldian, kotxe gainean, trenean eta abar, eta itsaspekoa falta jakon legez, oraintxe dauka itxaropena Italiako itsaspekoe-tara joateko. Lehengo egun baten bere tramankuluan joiala ikusi ebezan antzinako horma zahar batzuk mendipe baten. Jaitsi zen, eta garbian atera ebana da Islamaren aldietako berebereek eginiko hobiak zirela, orain batzuk dinotse erromatarrenak direla, eta hemen dabilta eztabaidan.

Hegaz doanean hainbat irudi ateraten dau, eta irudiok dira guztiz kontu handikoak espainiarren gudarostearentzat, eta horregatik osoz daukie estimatu italiar azkar hau.

* * *

Gaur goizean erostariak egiten joan naizenean plazara hara geure herritar Prantzisko hemengo jene-

ral bategaz morroi dagoena ez dot ba ikusi? Elkar sendo besarkatu ondoren gure barriketak hemengo hartu-emonez jo dau. Halan beharrean be zeresanik asko euki dau nire herritar horrek hemengo guda arazoaz.

Aspalditxuon, alemaniarrek hemen daukiezen bi-tartekoak Espainiaren aurka jagi eragiten albo herrietako biztanleei ibili dira, baina euren arazoak oker urten deutse, ba kontuan jausi direnean hemengo agintariak, eurek ez dakiela sartu jakez moroari euren etxean, eta hainbat herri atrapatu deutsez. Urrunago joan barik, atzo euki dabez burruka garratzak espainiarrek M-Talza deritzon moroekin. Moroak esanda euken euren gorpuen gainetik izan ezik ez direla sartuko herri hartara espainiarrak. Baina honeek zizkiluetatik ahozpez iletargia lainopean egoan arte sartu dira lautadan eta eureganandu dabez hainbat kilometro lur.

Aurrerantza hori egiten gehien lagundu dauena hemengo polizia baltzen godarostea, Policia Indigena deritzona izan da, eta hilak osoz izan dira gitxi.

Orain Espainiako mutilak geratu dira Kert deritzon ibaiak okerrunea daukan jasoune baten, eta bertatik osoz dago aparteko aukera ederra. Albo herrietan guz-

tiz dago ugari janaria eta Kert ibaiak barriz beren abia-
da arinagaz, ur garden eta garbia gudaroste eta zal-
dientzat dakar.

Hemengo kafetegi guztietan gaur ez dabil beste
zeresanik.

* * *

Hemengo baltzak be gu baino zoriontsuagoak dira
gauza batzuetan, ba denda, banketxe eta beste toki
guztietan idazkunak espainieraz eta arabieraz dagoz,
eta honez gainera arabiar hizkera ikasteko ikastolak
txitean-pitean dabilta edegiten, eta behinik behinean
espainiar askok ederki ikasi dabe arabieraz hitz egi-
ten. Holakorik ez dabe egiten espainiarrek gure aberri
aderrean.

Berak arabieraz eta nik euskaraz. Honetara adi-
tzen naiz ni hemengo azokan erdaraz ez dakien eta ja-
kinda egin gura ez daben morroiekin. Gauza batzuk
ikasi dodaz. *Harba* da lau, eta *Jaibai* ut-hortik. Gaur ke-
darra baino moro baltzago batek itaundu deust euska-
raz egin deustodanean, ea nondikoa naizen, berak
inoiz ez dauela entzun nire hizkera-eta.

- Ba, espainiarra naiz -erantzun deustat.

- Zu espainiarra? -esan deust berak-. Sekula ez zara izan, baina ni bai, eta gainera kistarra. Hara, adi hau -esanda, urregorrizko kurutzetxu bat erakutsi deust.

Horra ba, baltz hori espainiarra eta Kristoren erlijiora bihurtua da. Berak halan esan dau behinik behinenean.

GLASGOW-TIK

1915eko urrian

Aspalditxuon dabilta hemengo egunkariak ezta-baidan orain artean egon den legea soldadutzaz ala indarrez edo beharkunez mutilak eroatea ete den hobe.

Hiru miloi soldadu lortu dabez mutilak baturik euren gurariz. Baina jazo da, kale batean esaterako, badagoz sendi bi, bata ume txikien aita eta bestea be-harbada hiru edo lau seme sendoen aita. Ba gehienez-tan jazo da, ume txikien aita abertzaleago izan delako bestea baino, joan da luebakietara, eta beste seme sendoaren aita geratu da bere seme denekin etxean, esanik: «doala nahi dauena gura badau».

Beste gauza bat be jazo da: Frantzian, euren odola hainbat mutil ederrek emoten daben bitartean beste sendi batzuk abertzaletasunez kondarrik euren biho-tzean ez eukela oporrera doaz. Batzuk, ikatz meatze-tan eta asko eta asko itsastarrak zirenak barriz itsaso-ra urteten ukatu ziren alogera gitxi eukela-eta aitzakiaz. Ingalaterraren lepoan dagoen zama guztia ikusi-rik ez zen orain aldia oporrera joateko. Horra ba ba-

tzuk odola aberriari damotsen arte beste batzuk buru-
eskainia egin gura ez. Itsastarrak esaten eben askok:
«doala nahi dauena itsasora, dabilen beste itsaspeko-
arekin». Eta orduan alogerari jasoera handia emonik
lortu eben ontzijaubeak euren ontziak itsasoratzea.
Aberria batena bakarrik al da? Garaile urteten badogu
ez dira izango ingeles denentzat onurak? Hori itaun-
tzen dabe abertzaleek. Baina askotan erantzuna da:

- Ondasunak izango dira baten batentzat, baina
gu lehen legez txiro geratuko gara, eta beharbada zo-
ritzarrez oin bat bage, edo itsurik, edo mantxu guda
honen amaian.

Ingalaterrako gizon zuhur batek inoan lehengo
egun baten urteetako gudan oso ikasgai asko ikasi
dauela Ingalaterrako gobernuak. «Horra ba Alemania-
ko herriaren jazoera izan da gudazaletasun itzelagaz
nahastea». «Ekintza txarrekin ezin leikela gauza onik
lortu, baina ikusten dogunez badakigu Alemaniako he-
rriaren semeek ikasi daben beharkunagaz zertzuk ze-
regin dakaskazuen guri». «Gure gogoeta ez da izan
alemaniarrena legez bardina. Horra ba oker bitxi izan
gara mundu honetan. Geuk hareek legez herria
mendu bagendu beste gauza bat izan litzake».

Baina beste batek erantzuten deutso holan: «Askatasuna baino gauza ederragorik ez dago inon. Gizonari bere buruaren jaube denean emon behar jako askatasuna, berak pentsatu daien zein bide den bere hartu-emonentzat aukerakoena... Egia be bada Ingalaterran beste askatasun ez daukala herriak munduko inongo estatutan. Hor daukazue Errepublika Frantziarreko gobernua. Behetik gorantz egina dela dinoe hango agintzako legea, goitik beherantz eginda den legez Europako edozein estatutakoa. Baina halan be, oraingo guda-aroan Frantziaren aurka zer edo zer idatzi nahi dauenak, atzerrira joan beharra daukie. Barriz Ingalaterran ez da jazoten hori, askatasuna dago eta bardin idazten da aurka nahi aldez.

Holan da ba, oraindino Ingalaterrako gobernuko agintari askok ez dabe uste dagoenik beharrianik menperatutako herria beharrez soldadu eroateko. «Gura dauenak gehiago egiten dau ahala dauenak baino», dinoe.

Frantzian, antimilitarista guztiak dagoz lubakietan. Frantzian ez dabe uzten eztabaidarik herriaren aurka, eta eskerrak horri Frantzia da gaur arte ikara gehien eragin deutsona alemaniar herriari. Eta Ingalaterrak ikusi eta igarri dau hori, eta garaipenerantz jo-

ateko indar gehiago behar dauen legez, ez dau eukiko beste urteerarik, askatasun guztiak alde batera utzirik beharpetu herri osoa gudara joaten, eta hortik zehar dabiltzan hainbat emakume alfer lohiri be bere zereginak ipini.

GENOA-TIK

1915eko abenduan

Savonara joan-etorria egin beharra heldu jatan atzo, eta banoa geltokira. Oraindino orduerdi behar zen trena urteteko, eta jesarleku baten jarririk nengoen, ume eder bik elkarrekin erabilezen jolasei begira.

Piperra baino sudur gorriagoa eban morroi batek ateak edegi ebazan, eta goaz trenera atso eta ume eta enparauak. Itxaroten gengozen noiz geltokiburuak txilina joko eban trena abiatu zadin, eta honetan hor sei urte inguruko neskatotxu bat negar eta negar sartzen da gure departamentuan. Une hartan begi guztiak zuzendu ziren ume eder horreganantz.

- Zer jazoten jatzu, ene laztantxua? -inotsen denek.

Baina ume eder horrek ez eutson inori ezer erantzuten.

Trena ia urteteko egoan, eta ume eder horren jauberik ez zen inon agiri, eta larritu ginen denok, eta hasi ginen atetik adi. Atearen aurretuan bertan eztabaidan gogor iharduen atso zezkel sudurluze argal batek eta agure hordi sudurzapal gorridun batek, elka-

rri esanaz bateko honenbeste izan dela, besteko diru asko gastatu dabela eta abar.

Baten batek itaundu eutsen ia eurak ez ete ziren ume horren jaube egiten zirenak, eta baietz erantzun ondoren sartu ziren, eta oraindino eztabaidan ihar-duen euren arloan, bien bitartean ume eder horren zotinak bihotzak hausten euskuzela han gengozen guztioi.

- Gizontxua -dinotsot agureari-, ume hau, zeuena dozue?

- Batek daki norena den -dinost genovese deritzon hizkeraz-. Gaur atera dogu erruki-etxetik, ba etxean abere asko daukagu eta larrera bidaltzen doguzenean jagon ditzan, behi arranoak beti joaten dira ba inoren soloetara-eta.

- Zeuek ez daukazue seme-alabarik ala? -dinotse departamentuan bertan doan abade zahar batek.

- Ai, geure umerik bagendu, ez genduke honelako trasterik etxera eroango.

Batek daki norena alaba den berori...

Hitzok entzunik, eta agure mozkortiaren bihotz gorra igarririk jarri nintzen umeari begira. Negar anpu-lu handi bi eukazan betazpian, eta bere begi baltz handi eta ule gorritzta kizkorragaz eskuz eginiko txapel

zuri baten azpian ebala, guztizko polita zen umetxua. Bere zotinak itzelak ziren, eta guraso hordiak osterabe hasi ziren euren jardunean guztiz haserre. Umearentzat ez daukie hitz bigun bat, eta gitxiago laztan edo mosutxu bat.

Gomutaturik neure umearoa, negarra jatort begira, eta hartzen dot ume eder hori besartean eta mosuka jaten dot.

- Nora zoaz? -dinotsot.

- Ez dakit -dinost ahots zoli eta ederraz. Guztiz ederto daki hizketan.

- Zenbat urte dozu eta zelan jatzu izena?

- Sei urte eta erdi, eta Marina Natale da neure izena -(Natale da erruki-etxearen izena).

Neure belaunean jesarrita hainbat gauza dinost umetxuak pertsona nagusi batek baizen formalidadez.

Albisola geltokira heldu ginenean kendu eusten umea belaunetik, lehenengo bere begi ederrekin «ez naizu utzi» esan gura izan baleust legez. Negar-zotinez «ama! ama!» esaten eban gaixoak. Trena aurrera joian eta leihotik adi nengoen harik eta begietatik galdu arte atso-agure bihozbakoak eta gogoa hautsita utzi eustan ume ederra.

HUELVA-TIK

1916ko urtarrilaren 3an

Historiadun herria da berau, bere ibai eder bigaz. Bata da Tinto, eta bestea Odiel, biok sakonak eta zabalak, ardurage edozein ontzi ibiltekoak.

Hemendik hur samartxu dago Moguer deritzon herria, zahar-zaharra, baina gogai ederrak bururatzen deuskuena, ba antzina hainbat ontzigintza ziren eta hainbat itsasgizon Espainia aintzaz bete ebenak. Oraindino hantxe dago Palos deritzon kaia, bere goiko aldean duela antzinako eliza zahar bat.

Cristophoro Colombo itsastar bikaina handixik urten zen lehenengoz Indiaren bila eguzki sartalde-rantz, lekaide gurenen onetsia aurrez harturik. La Rabida dau izena komentu horrek, eta gaur zaintzen dauena ez da lekaidea. Orain ehunen bat urte alde eragin eutsen lekaideei.

Irakurlea, hemengo biztanleei aurpegira begiratu eta Afrikakoei begiratu, bardin da. Moroan arrazak sustarrak ondo sartuta utzi ebazan alde honetan. Daukien aldea ez da besterik, batzuek praka estuak darabilezela eta espaineraz hitza, eta besteak praka harro

nasaikein eta arabieraz hitz egin. Ondo ezagutzen dau moroak nondik nora euren hazia erein eben. Hemen-goak lako aurpegikera gitxi dago Asturias eta hortik.

Herri honeek oso txiroak dira. Ez dago hor Bilbaon legez tranbiarik, ez fabrikarik, ez ezebe. Orain bai, zezen plaza ederra dago, eta aritmetika baino hobeto edozeinek daki zelan zezenari sartu behar jakozen banderillak eta abar.

Rio Tinto-ko meatzeak ingelesena dira, eta agin-pidea daukien gehienak be handikoak dira. Beharginak bakarrik dira hemengoak, eta beti dabilta kez-kaz, ingelesak guztizko zekenak direla-eta. Dirua ero-aten dabela euren herrira, hemen agorra utzita.

Atzo jaia zen, eta herrira joan nintzenean ardane-txe guztiak beterik egozan, eta denetan egoan nor edo nor abestuten ekiena be, ba denetarik urtetzen zen kantu eta txalo hotsa. Horixe daukie ona andalu-zek, txakur txiki bat sakelean euki ezta be, beti umore ona.

Eta zelako kantuak! Dena da «iay, ay, ay, maresi-ta! iar presidio!», eta honakoak. Barrabasi berari be negar eragiteko modukoak.

Guk euskotarrok ez daukagula poesirik-eta esan deuskue, baina nire ustez gure hitz-neurtuak honee-

nak baino hobeak dira. Gure aberrian inork abesten di-
tuenean hitz-neurtuak egingo dau behar den legez.
Hemendik barriz dena da «ay» eta dena «ay»; esan
leike bertan azkenak egin behar dabezela.

BATXI BILBAOREN LANAK

1913

- XII-6: Gernika
- XII-13: Gernika'ko izparrak
- XII-19: Gernika
- XII-24: Gernika
- XII-27: Napartar maitiak. Napartarra
- XII-28: Gernika
- XII-31: Gernika

1914

- I-7: Gernika
- I-9: Sagunto'tik
- I-11: Sagunto
- I-18: Gibraltar (England)
- I-29: Rotterdam
- II-5: England ala?.... England'etik
- II-17: Gure Batxi be agertu da
- II-19: Italia'tik
- II-20: Savona'tik
- II-21: Gernika'tik
- II-22: Italia

III-4: Sabona (Italia)
III-5: Gernika
III-17: Sagunto (España)
IV-1: Rotterdam
IV-2: Rotterdam'go izparrak
IV-4: Ingalanda'tik
IV-11: Batxi'ri. Ingalanda'tik
IV-13: Ondo etorri
IV-14: Ingalanda'ko izparrak
IV-15: Batxi'ren txokorrak
IV-16: Aberrijan
IV-16: Erri sekulakue!
IV-17: Batxi'ren txokorrak
IV-19: Batxi'ren txokor zorijonekuak
IV-21: Gernika'tik
IV-22: Gernika
IV-25: Gernika'tik
IV-26: Gernika'tik
V-5: Batxi'ren txokorrak
V-8: Batxi'ren txokorrak oindiño
V-11: Zorijoneko txokorrak
V-13: Domino'tzaz
V-18: Atzerri'tik
V-19: Ingalanda'ko izparrak

V-20: Ingalanda'tik
V-22: Atzeritik, Ingalanda'ko larunbatak
V-25: Ingalanda'tik
V-29: Urrunetako ekandubak
VI-8: Itali'tik izparrak
VI-17: Itali'tik
VI-23: Itali'tik
VI-28: Sagunto (España'ko)tik
VII-14: Urrunetako ekandubak
VII-30: Busturi'tik
VIII-2: Guernica'tik
VIII-7: Guernika'tik
VIII-9: Poru'tik
VIII-13: Izparrak
VIII-15: Gernika'tik
VIII-18: Gernica'tik
VIII-19: Urrunetako ekandubak
VIII-20: Guernika'tik
VIII-21: Batxi'ren asmua
VIII-27: Arnazegi-Guerrikaiz'tik
VIII-29: Batxi itxasora. Euzkel-idazliei. Gernica'tik
IX-1: Alcantarilla'tik
IX-3: «La Calera»-tik
IX-6: Batxi'n asmotzaz

IX-10: Euzkel-idazlien bazkarija
IX-12: Euzkel-idazlien bazkarija
IX-12: Edesti piskat
IX-14: Euzkel idazlien bazkarirako
IX-14: Euzkel-idazlien batzarrerako
IX-19: Gure batzar ta bazkarija
IX-19: Kapela zurija
IX-21: Gure batzar ta bazkarija
IX-22: Ingalanda'tik
IX-23: Ingalanda'tik
IX-25: Batri'ren bazkarirako
IX-28: Ingalanda
X-3: Ibiñagabeitia'tarr gal zanaren gamutez
X-4: England (Ingalanda)
X-5: Gustijok zornotza-aldero
X-8: Ingalanda'tik
X-9: Ingalanda. Euzkel-idazliei iieup!!
X-12: Batxi'ri. Batxi'ren aupadia'ri erantzupena
X-15: Lisboa'tik
X-17: Euzkel-idazlien bazkarija. iNeu be bai nua!
X-18: Lisboa'tik
X-19: Euzkel-idazle-bazkarija
X-21: Antwerpen (Amberes)
X-22: Gure bazkarija

X-23: Gure bazkarija

X-23: Lisboa'tik. Ni be bai bazkarira

X-24: iZornotza'ra bijar!

X-25: Ondarrua'tik. Zornotza'ko euzkeltzaliei

X-26: Zornotza'n atzo

X-27: Azalbentxu bat. Erandio'tik. Zornotza'ko batzarrea

X-28: Gure anai zauritubentzat. Zornotza'ko bazkarijetzaz. Gernika'tik

X-30: Durango'tik. Erandio goiko'tik

XI-3: Erandio'tik. E.

XI-7: Erandio'tik. E.

XI-10: Erandio beko'tik. E.

XI-13: Batxi bai-dua. E.

XI-16: Barakaldo. E.

XI-28: Cardiff. E.

XII-1: Cardiff

XII-9: Lisboa

XII-29: Jai on batzuk opa dautzubedaz. E.

XII-30: Rumania. E.

1915

I-9: Cardiff

I-15: Ingalanda'tik. E.

I-16: Idazki agirija Batxi'ri. E.

II-8: Genova. E.

II-9: Irabazi nairik. Batxi'ren zillarrezko ustaidun esku-makilla. E.

II-11: Idazki agirija. Barainka'rentzat. E.

II-13: Euzkadiko gizon jakitunentzat. Napartarra

II-13: Genova'tik. E.

II-15: Batxi'rentzat. E.

II-15: Murcia. E.

II-16: Batxi'ren itandubak. E.

II-20: Euzkadi'ko ipuñak. E.

II-21: Euzkadi'ko ipuñak. E.

II-22: Euzkadi'ko ipuñak. E.

III-2: Ingalanda. E.

III-4: Ingalanda. E.

III-8: Ingalanda. E.

III-9: Ingalanda'tik. E.

III-14: Ingalanda. E.

III-15: Ingalanda. E.

III-16: Ingalanda. E.

III-18: Batxi'ren gauzak. E.

III-20: Ingalanda. E.

III-21: Ingalanda. E.

III-24: Idazki agiria. Batxi idazlari purrukatuari Car-diff'en. E.

IV-8: Batxi be agertu yaku. E.

IV-9: Neure autorpena. E.

IV-9: Genova'ko izparrak. E.

IV-13: Genova'ko izparrak. E.

IV-17: Batxi'ren makillea. E.

IV-20: Batxi. E.

IV-20: Almeria (España). E.

IV-22: Ingalanda. E.

IV-30: Batxi. E.

V-1: Airlanda'ko itxasuan. E.

V-3: Eskolanda'tik. E.

V-16: Batxi. E.

V-17: Glasgow (Eskolanda). E.

V-18: Glasgow (Eskolanda). E.

V-22: Euzko idazliak. Napartarra

V-22: Neurritzak bizkaiko Enbeita'rentzat. Naparta-
rra

V-24: iAgur, mutillak!. E.

V-29: Batxi'ren makilla. E.

VI-7: Batxi. E.

VI-8: Batxi'ren gauzak. E.

VI-9: Italia gudan. E.

VI-10: Italia ta gudea. Genova'tik. E.
VI-11: Italia ta gudea. E.
VI-12: Italia ta gudea. E.
VI-15: Italia ta gudea. E.
VI-16: Italia ta gudea. E.
VI-16: Mazarron (Murcia). E.
VI-21: Mazarron. E.
VI-28: Zer ete da?. E.
VII-7: Batxi ospatsuari. E.
VII-10: Glasgow (Scotland). E.
VII-11: Glasgow (Scotland). E.
VII-12: Glasgow (Scotland). E.
VII-14: Glasgow (Scotland)
VII-15: Glasgow (Scotland). E.
VII-17: Glasgow (Scotland). E.
VII-18: Egijak. E.
VII-26: Batxi'ren idazki bat. Italia ta gudia. E.
VIII-2: Savona (Italia). E.
VIII-3: Savona (Italia). E.
VIII-4: Savona (Italia). E.
VIII-6: Savona (Italia). E.
VIII-7: Savona (Italia). E.
VIII-8: Savona (Italia). E.
VIII-10: Savona (Italia). E.

VIII-14: Mazarron (Murzia). E.
VIII-16: Mazarron (murzia). E.
IX-21: Glasgow (1). E.
IX-22: Neuk bakiaren susmuak asmau dodaz. E.
IX-23: Bai-dakigu dagiguna. E.
IX-30: Genova. E.
X-2: Genova. E.
X-5: Genova. E.
X-6: Genova. E.
X-7: Genova. E.
X-8: Melilla. E.
X-11: Melilla. E.
X-16: Melilla'ko izparrak. E.
X-18: Melilla'ko izparrak. E.
X-21: Glasgow. E.
X-26: Glasgow. E.
XI-22: Glasgow. E.
XII-1: Genova (Italia). E.
XII-14: Urrutiko euzkeldunak. «Savona»tik. E.
XII-15: Genova. E.

1916

I-4: Genova. E.
I-10: Huelva. E.

I-13: Bat Juan, beste bat etorri. E.

I-15: Huelva. E.

Batxi Bilbaori buruzko bibliografia

Kirikiñoren aipamenak Euzkadi-n, bereziki 1914ko
abuztu-urria bitartekoak.

(Labayruk 1984an argitaraturiko *Edo geuk edo iñok*
ez bilduman jasoak).

1916

I-16: Las víctimas del «Bayo». E.

I-18: ¡Batxi gaxoa!. E.

I-18: El único superviviente del «Bayo». E.

I-19: Egunekua (B.ri buruz idazlijek). E.

I-20: Egunekua. Batxi gaxua. E.

I-21: Egunekua. Batxi'ren alargun eta umetxo
aldez. E.

I-22: Batxi il da. Napartarra

I-22: Batxi. Napartarra

I-22: Egunekua. «Bayo»tik gaizkaturiko bakarra &
E.

I-22: El naufragio del «Bayo». E.

I-23: Gaur meza «Batxi»ren aldez. E.

I-24: Bayo Lezama y compañía (eskela). E.

II-15: Batxi. Euzko-Deya